

PROIEKTUAREN MEMORIA
SANTA KATALINA ATERPETXEA, DEBA
CRISTINA ARIZMENDIARRIETA _ IÑAKI BEGIRISTAIN
2017ko UZTAILA

AURKIBIDEA	
ESKU HARTZE MOTA.....	2
KOKAPENA	4
01 DEBAKO HISTORIAREN ANALISIA	5
02 DONEJAKUE BIDEA	9
03 LURRALDEAREN ANALISIA	12
04 SANTA KATALINA BABESGUNEA	16
ARAUDIA	27
01 DEBAKO ARAU SUBSIDIARIOAK	29
02 KOSTA LEGEA	45
03 SANTIAGO BIDEAREN DEKRETUA	47
04 EUSKAL ATERPETXEEN DEKRETUA	51
IDEIAREN JATORRIA	53
01 INGURUKO BALDINTZAK	54
02 GAUR EGUNGO ATERPETXEAK	57
03 ATERPETXEEN ARKITEKTURA	60
PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA	63
PROIEKTUAREN PLANOAK	71
01 PLANOAK	72
02 PROIEKTUAREN IRUDIAK	84
DESKRIBAPEN TEKNIKOA	89
01 ERAIKUNTZA	90
02 EGITURAK	92
03 INSTALAKUNTZAK	94

ESKU HARTZE MOTA

ESKU HARTZE MOTA

Proiektu hau Debako herrialdeak duen behar bat asetzeko asmoz planteatzen da. Izan ere, nahiz eta gaur egun bertan mota honetako eraikinak badauden nahikoa ez dela jakinarazi dute askotan. Gainera, planteatzen den proiektua erabiltzaile zehatzago batzuentzat proposatzen da, Donejakue bideko erromesentzat hain zuzen.

Udalak, bai herrian bertan eta baita prentsan ere hainbat kasutan aipatu du arazo bat dagoela herriak jasotzen dituen bisitariekin. Hauek, udara gerturatzen denean batez ere, Donejakue bideari ekiten diote eta hau Debatik pasatzen denez askok hemen egiten dute geldialdia. Esan bezala, herriak baditu hainbat ostatu aukera, baina hauek mota ezberdinetakoak dira eta nahiko leku txikikoak. Gainera aurten hondartzan kokatzen zen hotela itxi dute eta beraz arazoa areagotu egin da.

Ondoren planotan ikusiko den bezala Donejakue bidea eta beste hainbat mendi buelta garrantzitsu pasatzen dira Santa Katalina babesguneko orubetik gertu. Hau dela eta, aterpetxea bertan kokatzea erabaki da erabiltzaileei bidean kokatzen den gune estrategiko batean ostatu aukera bat emanez eta bide batez herritarrei eta kanpoko bisitariei zerbitzu emango dien beste erabilera batzuk erantsiz.

Kokapenari dagokionez, aipatzekoa da Santa Katalinababesgunea landa lur eremu ikaragarria dela. Muinoaren gailurrean Santa Katalina ermita txikia aurkitzen da eta honen alboan paisaiarekin batera eraldatzen joan den San Juan baselizaren horma bat. Bertatik itsaslabarra ikusten da eta udalerriko hainbat eremuz gain Deba herria ere ikus daiteke. Biztanleriak leku oso garrantzitsu eta esanguratsu bezala kontsideratzen du herriarentzat, eta aintzinatik garrantzi handia izan duen eremua da. Gaur egun oraindik ere, lekuaren paisaia eta lasaitasunaz gosatzeko jende asko hurbiltzen da bertara. Gailurra itsasotik 185m-ko altueran kokatzen da Itziar eta Deba artean eta oinez iristeko ibilbideaz goatzeko aukera ezberdinak aurki daitezke, kostaldeko bidea barne. Autozko iritsiera nahiko txarra du, mendiko lurrezko bidea bai da irisgarritasun nagusia duena. Hala ere, kasu berezietan (ekainak 24an, San Juan eguneko meza eta erromeriarako) kotxeren bat iris daiteke.

Eremua babesgune bat izan arren, araudian dio herriarentzat ekipamendu gisako eraikuntza finkoak baimentzen direla hainbat baldintza betez. Gainera, garrantzitsua da aipatzea, Santa Katalina babesguneko antolamendu fitxan Donejakue bideko erromesentzako aterpetxea aurreikusten dela Debako beharragatik, nahiz eta proiektuan planteatzen den gunean ez izan.

Proiektua eraikin berri bat bezala planteatzen da baina gaur egungo eraikin eta arrastoekin bat egingo duen multzo gisa proposatzen da, beraz honen handipen bat bezala ere kontsidera daiteke. Izan ere baselizaren hormaren kontra eraikitzen da honen harrera nahiz eta hau ikutu gabe.

Proiektuan hasiera batetik inguruaren izaera mantentzea nahi izan da eta landa eremu bat bezala tratatu da. Hau kontutan izanda nahiz eta iritsierak eta kotak modifikatu diren bidexkak, landareria eta bistak bere horretan mantendu nahi izan dira.

Ondorioz, Deban argi nabaritzen den behar bat asetzeko asmoz aterpetxea planteatzen da Santa Katalina babesgunean, aurrez bertan gauzatzen ziren jende eta paisaiaren arteko hartu-emanak mantenduz.

KOKAPENA

01

DEBAKO HISTORIAREN ANALISIA

Deba, Euskal Herriko kostaldeko herri txiki bat da. Deba ibaiaren itsasorako irteeran eta Gipuzkoako ipar-mendebaldean kokatzen da, Deba beheko eskualdeari dagokiolarik. 2016ko errolden arabera Deba 5480 biztanle ditu eta 51,54 km²-ko azalera dauka. Horregaitik, biztanleko dentsitatea 106.3koa da km²-ko.

Sorrera, gertu duen Itziar nukleoan dauka. 1343an gaur egungo kokapenean ezarri zen Montreal Deba izenarekin, dagoeneko bere fundazioa 1294ko ekainaren 24etik zeukalarik. Erakargarri nagusiak hondartza eta Alameda haundiak dira.

Bi isurialdetik zabaltzen da, Deba eta Urola ibaietatik, eta bere lurak oso malkartsuak dira. Zumaia herrirarte heltzen den flysch-ak egiten du esanguratsua kostaldeko eremu hau. Euskal kostaldean sarritan ageri da flysch egitura, baina Gipuzkoako Deba eta Zumaia artean da ikusgarrien. Gainera, Zumaia flysch (Itzurun) nazioarteko erreferentzia geologikoa da.

Ibaiaren eskualdeko eremuan sortzen da Deba herria. Eta ibaiaren bokalean aintzina komertziorako portu garrantzitsu bat aurkitzen zen, gaur egun kirol portu gisa erabiltzen dena.



TOPONIMOA

Ibaiaren bokalean kokatzen zenez, herriak ibaiaren izena hartzen du, Deva. Deva hitzak sanskritoan, jainkoa esan nahi du. Aldi berean, Proto-Indo-Europear hitz batetik dator, deiwos hitzetik, jainko beraren hitzetan jainko edo Zeus esan nahi duena. Espainian normalean toponimoa ibaiekin erlazionaturik dagoenez, Deva ibaiaren jainkosa edota numecelta batekin erlazionatzen da.

Izatez Deva Itziar auzoan sortu zen 1294an, eta Mont-Real izenarekin bataiatu zen. 1343an gaur eguneko kokapenera trasladatu zen, ibaiaren bokalera, Mont-Real de Deva izatera pasa zelarik. Azkenik, Mont-Real goitizena kentzean herriaren izena ibaiarenarekin nahasten hasi zen.

Hasiera batean herriaren izena Deva bezala idatzi arren XX. mendeko azken herenean Deba bezala ere idatzen hasi zen euskeraren arau ortografikoak aplikatzen hasi zirenean. 1981. urtetik gaur egun arte Deba da izendapen ofiziala estatuko eskabide guztietan.

KOKAPENA ETA IRISGARRITASUNA

Probintziako mendebaldeko muturrean kokaturik eta Deba-beheko eskualdean kokaturik hain zuzen ere herria, izen berdina duen ibaiaren itsasadarren eskumako aldean kokatzen da. Udal lurraldearen zati bat Urola arroan zehar eta Itziar nahiz Lasturretik zabaltzen da, kostalde gainetik altxatuz.

Debaren mugak: Kantauri itsasoa iparraldean, ekialdean Zumaia eta Zestoa, hegoaldean Azkoiti eta Azpeiti, eta mendebaldean Mutriku eta Mendara aurkitzen ditu.

Debak hainbat auzo ditu, nagusia Itziar da, eta besteak Lastur, Itxaspe, Egia, Arriola, Madariaga, Endoia, Arbiskoa eta Elorriaga auzoak dira.

Deba ibaiaren ahoan hondartza irekitzen da. Ekialdean, kostaldea labartu egiten da marea-gune bat osatuz. Itsaslabar horiek, Zumaia arte hedatzen dira eta eremu hori Flysch babesgunea da. Ondorioz biodibertsitate, marea eta egitura aldetik oso garrantzitsuak dira eta oso babestuta dauden guneak dira hauek. Eta geologia naiz luraren historiako datuak argitzeko ikerketak egitea ahalbidetzen du.

KOMUNIKAZIOAK

Deba N-634 errepideak zeharkatzen du, Eibarrekin lotzen duena eta bi probintzietako hiriburuekin Donosti eta Bilborekin erlazionatzen duena. AP-8 autopistak sarrera bat dauka Itziar auzoan. Trenbide estuko Bilbo-Donosti lineako geltokia dauka Deba erdigunean, garrantzitsua dena baita inguruko herrietan ere. Bestalde, GI-638 errepideak herria Mutriku eta Ondarrukin lotzen du, azken hau Bizkaian kokaturik dagoena.

Debako kirol-portuak 70 amarre ditu arrantzarako untzi txikientzako. Gaur egun ez dagoen arren, aintzina linea komertzialak eta bidaiarietako lineak zeuden. Bilbo eta Pasaia portuetatik gertu dago eta baita Hondarribi, Bilbo eta Gasteizko aeroportuetatik.

Donostiara 40 km, Bilbora 60 km eta Gasteizera 70 km daude. Eta Eibar 20 km-tara aurkitzen da.

KONPOSAKETA

Udalerrien osaketa hiri-lur eta landa-auzoetan oinarritzen da. 130 bat baserri daude lur eremu guztian zehar.

Biztanleria gehien hirigunean biltzen da, % 81,7 bizi den lekuan. Eta Itziarren, % 7,7-ko biztanleria aurkitzen da. Beste denak lurraldean zehar banatzen dira.

GEOGRAFIA

Herriko topografia oso irregular eta bortitza da. Inguratzen duten mendiak, 800 edo 900m-ko altuera hartzen dute kostaldetik distantzia laburrera.

Debaren natura ondarerik preziatuena itsasertza da. Han daude, izan ere, Deba eta Zumaia arteko marearteko zabalgunea eta bost hondartza (Debako hondartza, Aitzuri, Lapari, Mendata eta Sakoneta).


Herrialdeko lurretako konposaketan kareharria da nagusitzen dena. Honek

leizeak, lur-azpiko haitzulo eta koba handiak sortzea ahalbidetu du, batez ere, Lastur eta Itziar eremuetan. Lur-eremu horietan berrogeita hamar bat haitzulo aurkitu dituzte; aipatzekoak dira, batez ere, Ekain eta Urriaga.

Kostaldean 150 metro altuerako akantilatu haundiek arreta deitzen dute. Hauen azpian, Fysch-a irekiko da, harkaitz eta harrizko hondartzeekin.

Landareriari dagokionez, haritza, pagoa, urkia eta herrialdeko beste espezie tipikoek osatzen dute panorama eta honi ustiapen komertzialerako landutako insignis pinuak gehitu behar dizkiogu. Larre belartsuak ere daude non ganaduak bazkatzen duen.

Gaur egun, Deba turismoari estuki lotua dago, udaldeen edo oporraldian jendetza iristen da, horietako asko bigarren etxebizitzan gozatzera, eta hotelak eta kanpinak gainezka egoten dira.



HISTORIA

1294.eko ekainaren 24an Sancho IV.ak hiri gutuna eman zien Monrealeko biztanleei, eta haiek, arrantza praktikatzeko kostaldera gehiago hurbiltzeko beharra ikusiz, Debako herria fundatu zuten formalki. Hiri gutuna 1343. urtean eman zieten Alfonso XI.ak eta Gasteizko fueroak Monreal de Deba izenarekin.

Deba ibaiaren eskuinaldean kokaturik, arrantza, nekazaritza, industria eta salerosketan jarraitu zuten. Kostaldeko gainontzeko arrantzaleen antzera, debarrek balea harrapatzen ematen zuten ahaleginik handienak, nahiz eta bestelako arrantza baztertu ez. Burdinolak ziren industriaren oinarri, bertatik burdin tresnak ateraz; lantegi haiek ibai eta erreka bazterretan kokatzen ziren ur indarraz baliatzeko.

Gasteiztik Debako kaira zekarten artile eta beste zenbait espeziaren komertzioa onuragarria izan zen herrirako. Beste batzuentzat, berriz, gaur arte mantendu diren nekazaritza eta abelazkuntza izan ziren bizibide, nahiz orduko labore batzuk mantendu ez diren: ohiturazko txakolina ateratzeko mahatsa adibidez.


Orduñako pasoa zabaltzean, burdingintza eta portuko uren sakontasun eskasa zela medio, Deba zuen onura estrategikoa gutxitzen joan zen. XIX. mendearen erdi aldera portuak zuen trafikoa behera zihoan neurrian, beste aktibitate berri bat sortu zen: udaldia. Itsas bainuek garrantzia hartzen zuten neurrian, Debako hondartza atsedenerako leku bihurtu zen, kanpoko bisitarien eraginez ostatu jarduerak gehituz.

Gaur egun Deba, 5.000 biztanle ingururekin, erakarpen handiko herria dugu turismo arloan (landa-turismoa, hotela, aterpetxea, Donejakue bidea...) eta Itziar aldeko industriaren garrantzia ere aipatzeko da.

DEBAKO IRUDIA

1900.urtean “ Guía General de Guipúzcoa” liburuak azaltzen duen bezala, Deba hirigunea bi plaza eta zortzi kaleekin osatzen da. Bi plaza: plaza zaharra elizaren aurrekoa eta plaza berria udaletxe parekoa, horren artean berriz zortzi kaleak.

Deba udaberria: 98 aldizkarian Debaren aintzinako irudi hipotetikoa azaltzen da. Herria harresi batez inguratuta dago, plaza bat dauka elizaren aurrean eta harresi barruko kaleak agertzen dira. Kale horiek irteera ezberdinak edukiko zituzten: Labataien, portuan eta hirugarrena Itziarreruntz. Honek 1900eko “Guía de Guipúzcoa” liburuak esaten zuena beteko zuen, udaletxea eta pareko plaza izan ezik.



Udaletxeak 1986an argitaratutako “El futuro de Deba” liburuak esaten zuen bezala, gure historian zeharreko idatziak ez dira asko baina zientzia, arkeologia, etnografia...bidez eta baita gure hizkuntza den euskeraren bidez idatzirik gabeko historia baten sortzean datza.

Idatzi berdinak “El Futuro de Deba” 25. orrialdean herriak nola eraikitzen ziren azaltzen digu:

“Se trata de nuevas poblaciones construídas según un plan ordenado, perfectamente planificado. El modelo que se seguía, consistía en tres calles paralelas, la del centro (principal) y dos paralelas, una a cada lado. y dos laterales, una a cada lado. que atravesaban la población de extremo a extremo; estas tres calles estaban cruzadas por otras de menor importancia, quedando todo el conjunto rodeado por un muro o cerca, que servía a la vez de defensa y de límite de la población. Las poblaciones que iban a tener cierta importancia, se diseñaban con dos iglesias, una en cada extremo. Y las menores con sola en el centro de uno de los extremos. Delante de la iglesia que también servirá de torre de defensa, se situaba una plaza de forma irregular”.

Hasiera batean Monreal de Itziar sortzen da eta 50 urte beranduago 1343an Deba ibaiertzera bajatzen dira Monreal de Deva herria sortuz. Europan errepikatzen zen Deva, Deiva edota diva izenekin, jainkotasun zelta baten hitza argiarekin erlazioa du. Orain iragan historikoarekin zerikusia duten eta herrian aurkitzen diren zenbait hitz aztertuko dira.

HERRIAREN HAZKUNDEA

Historia luzean zehar herriak lau hirigintza antolaketa izan ditu 1343ko sorreraz gain. Hauek erabileren ordenazioa eta etxebizitza eraikinen aukerak eta formak bermatzen zituzten.

Azkenengo legean zentru historikoan eta alboko aldapetan eraikuntza aukerak ukatzean zentratzen zen. Aukera hau agortu zenean eta hurrengo urteetan beharrezkoak izango diren etxebizitzak aurreikusita, oinarrizko baldintzak betetzen zituen lurzoruetan ordenazio berria egiteko beharra sortu zen.

IRAGANA

1343an orain dela sei mende baino gehiago Montreal de Deba gaur egungo Debaren kokapenean sortu zen. Sorrera bideen, eraikuntza berrien, etab. en antolaketan oinarritu zen, garaiko ingurune geografiko antzekoak zituzten beste herri batzuetan oinarrituz eta hauek bezala zenbait kriterio arrazional jarraituz. Hori dela eta, gaur egun oraindik zentru historikoa, kaleak, etxe irlak etab. antolaketa berdinarekin mantentzen dira.

Herria asko handitu den arren, 60 urtetan ez du aldatu zentru historikoaren forma, honela bere funtzio egokia betetzen jarraitzen duelarik. Mendeetan zehar, herria harresiaz inguratuta zegoenez, alturan hasi behar izan zen. Aurreko mendean zehar, udan etortzen zen jendeak sortutako beharrenek zurronez, herria horizontalki hasi zen hedatzen, harresia gaindituz eta arenlaren zati handi bat okupatuz.

Horrela sortu ziren gaur ezagutzen ditugun Hondartza kalea, Alameda nahiz Astillero kalea eta baita errepidea ere. Etapa ezberdinetan, portua eta gaur egungo zubia eraiki ziren zirkulazioa eta zenbait behar asetzeko, ondorioz hiri-lurrari behin behineko forma emanaz.

Pasaden mendearen bukaeran trenbidea eraiki zen ibaiaren paralelo trazatuz. Honek hainbat abantaila ekarri zituen baina baita beste eragozpen asko ere; beste herriekiko komunikazioa hobetu zen baina batez ere herria itsasotik banandu behar izatea ekarri zuen eta hauen arteko lotura zaildu zen nibelego pasoak sortuz. Mendearen erdialdean hordartzararteko zabalpena gauzatu zen herri nukleoaren inguruan zegoen zonalde lau guztia okupatuz.




50 ETA 60.HAMARKADA

Gaur egungo lehenengo hirigintza ordenazioa 1954ko Debako plan orokorra izan zen. Honek hiri lurra antolatzen zuen jada zeuden hutsuneak bakarrik hartuz eraikitzeko. Aldi berean, Artzabaletik gertuen zegoen Ribera eremuan, industrialdea planteatzen zen, gaur egun aurkitzen den gunean.

Lurzoruaren lege berria martxan jartzeko helburuarekin eta aurreikusten ziren beharrenek azterketa bat hasi zen, 1965ko plan orokorrean burutu zena. Askoz ere irizpide zabalagoekin esan daiteke, eta baita zehaztasun eska-

sarekin. Horrela, zeuden hutsuneetan eta botatako eraikinen lur eremuetan altuera eta bolumen handiko eraikuntzak ahalbidetzen ziren.



Plan honetan lehenengo aldiz, Debako herriak zituen beharrak asetzeko asmoz Agirretxe industrialdea lurzoru urbanizagarri bezala zehazten zen. Aldi berean, industrialdea Ribera osora haunditzen zen.

Plan hau indarrean zegoen bitartean, Itziarko industrialdea garatu zen eta beste zenbait ekimen Egia, Urasandi, Itziar eta Casa Campo eremuetan etxebizitzak egiteko aurreikuspena, azkenean ez zirenak guztiz burutu.

1980-84KO ARAU SUBSIDIARIOAK

Egungo demokratikoki aukeratutako korporazioak hiri antolamendu berria egitea beharrezkotzat ematen zuen. Hasiera batean 1983an onartuaz eta ondorengo korporazioak behin betirako 1984. urtean onartuaz.

Oinarrizko helburua ez zen soilik hiriaren hazkundea bideratzea, baita ere urte horietan aurrera eramaten ari ziren akats garrantzitsuak konpontzea. Hartutako irizpide nagusiak hurrengoak dira:

*hiri-lur gisa ordurarte horrela kalifikaturik zegoena mantentzea, eremua haunditu gabe eta honen babes ahalbidetuz.

*Agirretxe nahiz Itziarko industrialdeak bezalako arazo garrantzitsuak bideratzea.

*Eraikuntza eta jarduera berriak hiri-lur bezala zehazturik dagoen eremuaren hutsuneetan egitea.

*Deba eta Itziar bi nukleo ezberdin bezala kontsideratzea.

Modu honetan onartutako arautegiak hurrengo etxebizitza kopuruen eraikuntza aurreikusten zuen:

Área de Deba	Nº de viviendas
- Amillaga - cementerio	60
- Osio	70
- Casco Urbano	70
- Agirretxe	240
TOTAL	440 viviendas
- Área de Itziar	140
TOTAL	580 viviendas

Hasiera batean ordenazio berria lau urtetarako egin zen, ikerketa baten ondoren beste lau urtez luzatu zitekeena. Hala ere, azken 14 urtetan indarrean jarraitu du gehiegizko aldaketarik gabe, garrantzirik gabeko arazoekin hiriaren garapena jarraituz. Honela begi bistan gelditzen da bere garaian arazo ezberdineri erantzuna emateko hartu ziren irizpide egokiak.

1985 eta 1990. urteen artean eraikuntzaren hazkunde handia gertatu zen

eta Agirretxe industrialdeko ia lurzoru dena okupatu zen. 90. hamarkada hasierako krisiaren ondoren etxebizitzaren eraikuntza hasi zen hiri lurraren eremu osoa beteaz.

Azaldutakoagaitik eraikuntzaren aukerak 200 etxebizitzentzakoak zen hurrengo tablan ikusi daitekeen bezala:

Nº de viviendas	
- Amillaga - cementerio	60
- Osio	70
- Zona entre C/ San Roque y Agirretxe	60
Total disponibilidad actual en el área de Deba	190 viviendas



Momentu horretan 1800 etxebizitza egonda eta eraikuntza aukerak 190 etxebizitza berrirenak izanda, kantitate urria dela aurreikusten da momentuko eskaerarako.

Itziarren kasuan ordea, indarrean zegoen arautegiak hiri-nukleoa ordenatu eta kalifikatzen zuen moduan, momentuko etxebizitza kopurua bikoiztea ahalbidetzen zuen. Honela, hiriaren hazkunde erritmo eta moduarekiko egokitzen zelarik.

Azkenik heldu zen momentu bat non, Agirretxe industrialdea guztiz beterik zegoen. Eta hiri-nukleoak ia guztiz saturaturik egonda (hiri-lur gisa zehazturiko beste eremuetan gertatzen zen bezela), datozen hamarkadetarako zer hiri mota nahi den planteatzen hasten dira, hiriaren hazkundera nola eta noruntz joango den galdetzen.

ESKAERAK

Kostaldeko herriak egoitza gisa baloratzeko joera hasi zen. Gainera, Maltzaga-Gasteiz autopistaren sorrerak, barrualdeko zona handi batentzat Deba lehenengo kostaldeko herria bihurtzen zuen.

Horrez gain, Itziarko industrialdeak krisia hasi baino lehen lanpostuak sortzeko joera handiak zirela eta, Deban etxebizitzaren eskaera handia aurreikusten zen zetozen urteetarako.

Aurretik azaldutakoagaitik eta hiri-lurraren saturazio mailarengatik, etxebizitza berriak ez baziren eskeintzen, etxebizitzaren salmenta prezioaren hazkundera gertatuko zela aurreikusi zen.

HAZKUNDERAKO AUKERAK

Debako hiri-nukleoa orografia mugatuko haranaren sakonean aurkitzen da. Lauak diren eremu guztiak okupatuta daude eta eraikuntzak jadanik mendiarren alboak ere hartu ditu (Agirretxe industrialdea eta Itsasbegi). Esan bezela, bere sorreratik XIV. mendetik orain dela gutxi arte hazkundera hirigune inguruko eremu lauetatik kanpo ere hedatu da.

Hala ere, herriak duen orografia maldatsuegatik, jada ezin da hedapen mota honekin jarraitu.

Casa Campo babesdun berdegunera destinaturik dago. Hirigunetik urrundu-ta aurkitzen den Ribera ez du ematen eraikitzeko ideia gustokoa denik nahiz eta gaur egun badauden pare bat etxebizitza bertan.

Amillaga eremuaren goikaldean ordea, gaur egungo hilerriaren gainean, lurzoru hiritarrak kalifikatu dira etxebizitzaren behararen eskaera asetzeko eta orain dela gutxi hasi dira eraikuntza berriak eraikitzen.

Horrekin batera hilerria lekuz aldatzea aurreikusita dago Istiña auzora, izan ere, hilerria txiki gelditu da eta herritarren beharrak ez ditu betetzen, honen hedapena dagoen lekuan ezin delarik egin. Gaur egun indarrean dagoen arautegiak hilerri zaharra berdegune bezala ordenatzen du.

Ondorioz, lehenago aipatutako orografia dela eta, eraikuntza aukera bakarrak San Roke, Satixo eta Oloki bezelako malda handiko zonetan dira. Honek hirigunearen jarraipena ostopatzen du, berria zaharrarekin lotzeko aukera baztertuaz, baina herriaren beharrak asetzeko aukera bakarra da gero eta jende gehiago hurbiltzen bai da herri txiki honetara bizitzera edota bigarren etxebizitza erostera.

Azaldutakoagaitik dentsitate baxuko eraikuntzak izan beharko dira eta garrantzi handikoa izan beharko da ingurunearekin eta naturarekin edukiko duen erlazioa. Eraikuntza mota hau gaur egun gero eta gehiago garatzen ari da leku guztietan arazo berdina sortzen ari bai da.

Aldi berean, eremu horien hirigintza kostua altua izango da. kontutan hartu beharrezkoa izango da, malda handien eta bereizketa fisikoaren ondorioz, bertan biziko direnak edukiko duten erlazioa eta komunikabidea hirigunearekin. Bertan eraikitzeko kostu handia izango du, lur asko mugitu behar bai da; bai bideetarako eta baita eraikuntzak egiteko ere.

GAUR EGUNGO EGOERA

Debako hiriguneak duen kokapena dela eta, hazkundera maila honetan, lehenago aipatu bezala ez dauka hazkundera aukera askoz gehiago. Baina hala eta guztiz ere, etxebizitza berrien eraikuntza beharrezkoa ikusten da eta maldan gora egiten ari dira.

Hori dela eta, malda handietako eraikuntzetan bizi direnentzat, hirigunearekin komunikazio hobea ahalbidetzeko asmoz, udaletxeak eskailera eta igogailu mekanikoak sortu ditu paisaiak naturarekin duen erlazioa gogortuz.

Esan daiteke, beharra hain handia izanik, jada etxebizitza berriak egiten hasiak direla porikiroldegi alboan. Honela, mendiar lurra janda, herriaren hazkundera bermatzen da. Aurretik azaldutako eta arautegian aurreikusten ziren igogailu berriak ere eraiki dira, eremu berriak lehendik dagoenarekin lotura egokiago bat eduki dezan. Hala ere, goiko zonaldeak egoitza zonalde bezala kontsidera daitezke soilik eta jendearen arteko harremana beheko zentru historikoan ematen dela soilik.



02

DONEJAKUE BIDEA

DONEJAKUE BIDEAREN HISTORIA

Santiagoenganako miresmenen jatorriak Hispaniar erromatarrean ezagunak dira, baina dirudenez 812. urtean lehen aldiz aurkitu ziren apostoluaren altxor-rrak. IX. mendearen amaieran Europa kristauan zabaltzen da miresmen eta jarraitasun hau. XI. mendean asko handitu zen erromes kopurua.

Asturiasko errege Alfonso II.ak, Santiago apostoluaren gorpua dagoen tokian eliza bat eraikitzea agindu zuen. XV. mendetik aurrera eliza hau erromes kristauen gunen nagusi bihurtu zen eta Dnejakue bidearen jatorria izan zela esan daiteke. Bide honetatik zabaldu omen ziren penintsulan zehar Europan nagusitu ziren estilo arkitektonikoak.

Descubrimiento del Santo Sepulcro

El nombre castellano Santiago proviene del gallego Sanct' Iago (el Apóstol Jacobo; de él derivan los nombres "Santiago" y "Diego"). Los orígenes del culto a Santiago en Galicia permanecen en la oscuridad de los tiempos. A finales del siglo VIII se difunde en el noroeste de la Península Ibérica la leyenda de que Santiago el Mayor había sido enterrado en estas tierras, tras evangelizarlas. Así ocho siglos después de la muerte del Apóstol Santiago, en el año 813, un ermitaño llamado Pelayo o Paio dijo que vio una estrella posada en el bosque Libredón. Se lo comunicó al obispo Teodomiro, obispo de Iria Flavia, (cerca de Padrón). Fueron allí y descubrieron en la espesura la antigua capilla, donde existe un cementerio de la época romana. El hallazgo del supuesto sepulcro coincide con la llegada al reino astur de mozárabes huidos de las zonas dominadas por los musulmanes, buscando poder practicar sus creencias religiosas.

Alfonso II.ak, Asturiasko errege zenak, bere kortearrekin bidaiatu zuen Santiagora, horrela historiako lehen erromesa bihurturik. Hau jakinarazteko eliza txiki bat eraiki zen.

Erromesaldiaren hasiera

821. urtetik gutxi gora behera, altxorren aurkikuntzarekin eta Carlomagnoaren onespenearekin, Compostela erromesaldi zentru bihurtzen da poliki poliki. Honela, azken bultzada XI. mendearen erdialdean izango duelarik. Laster, notizia Europa kristau guztitik zabalduko da eta erromesak Santiagora iristen hasiko dira leku askotatik, Campus Stellae deituriko lekura, azkenik Compostela deituz.

Erromes asko Europako hainbat regio musikan aurreratutako zirenetatik bidaitzen zuten, batzuk iparraldetik eta beste batzuk Frantziatik gertuagoko gunetatik. Leku eta kultura ezberdineko jendea elkartzen zen bidean.

Santiagoko gurutzea

Elkartzen ziren monasteriotan oraindik ere ez zen guztiz onartzen kanpoko bisitariak Campus Stellaera joatea, izan ere kompetentzia zen haientzat. Gainera, bide horretatik sartu bai zen hispaniar rituen etsai nagusia. Azkenean, kanpotarrek kultua ez zuten argi ikusten, Alfonso VI.ak ritoa kendu zuen liturgia erromatarren onerako.

Donejakue bidearen finkatzea

Erromes kopurua handitzen doa X. mendetik aurrera, Europear herrialdeek antzinako garaietatik irtetea lortzen dutenean, eta kanpotarrek erlazioa eta aldaketak hasten dituztenean. Honek alderdi erlijiosoan erromesaldia modu aktibo, inklusibo eta deboziokoa ekarririk. Erroma, Jerusalem eta Santiago de Compostela norako garrantzitsuenak ziren: bide guztiak eramaten dute Erromara. Denek errazten dute bidea Santiagora zubi eta bide berrien bitartez.

Urte batzuk beranduago, elizaren izaera apostolikoa eta honen altxorrak (erromesek oparitutakoak), Diego Remirez obispoak egoitza artzapezpikutzan bihurtzea ekarri zuten.

Santiago bidearen gainbehera

XVI. mendearen ondoren gizartean konbulsio asko sortu ziren Europan, eta hauek erromesak desbideratuko ditu beste leku batzuetarantz. Beste alde batetik, Errekonkistak ikuspuntu ekonomiko eta gobernukoa beste leku batera bideratzen ditu, Espainiako erreinuetatik hegoaldera. Santiago bideak bere jarraitasun handia galtzen du. 1378ko mendebaldeko hausturak kristautasuna banatzen du. XV. mendean ere ez du honen berrindartzea lagunduko gerrak, goseak, pesteak, etab. izanda.

Hala ere, erlijioan sinisten jarraitzen zuten askok apostoluaren hilobira joaten jarraitzen zuten, baina urtez urte Santiago bidea indarra galtzen joan zen.

Bide modernoa

Erdi aroa eta modernoaren ondoren, Santiago bidea garrantzia galtzen doa esan bezala, azken aterpetxe historikoak ere itxi egiten duen arte XX. mende erdialdean.

Biziberritze lehen saiakera 1962an eman zen noiz bidea seinalizatzera zijoala esan zutenean. Hala ere, nahiz eta prentsan atera zen ez zuen jarraipen handirik izan.

1993an, Urte SAnTo Compostelanoan, galiziako gobernu autonomoak turismo bideratutako balioa indartzea erabaki zuen, betiko erromes erlijiosoari irekita; horrela, publizitate handia egin zen urte horretako Xakobeorako: Xacobeo 93.

Plan honi esker, rutaren hainbat tramo birgaitu ziren eta honen azpiegiturak ere. Bidea igarotzen den komunitateen laguntza lortu zen Espainian. Ordunik oso ohikoa da bidea oinez, bizikletaz nahiz zaldiz egitea, eta ez bakarrik jende erlijioso, baizik eta bide espiritual, kultural eta ekonomiko bat bihurtu da.

Gaur egungo egoera

Gaur egun, orainik ere erromesen bideak martxan jarraitzen du eta nahiz eta hasierako ideia erlijioso ez den hain nabaria, askok oinezko bidea egiten dute esperientzia gisa eta ez erlijioan sinistearren, jende asko ibiltzen da, batez ere udara aldean. Askotan herritan ez da lekurik egoten erromesak jasotzeko eta askok bidean zehar lo egiten amaitzen dute.

Santiago bidea hain ezaguna egin zenez, leku askotan errepikatu izan da eredu hau eta bide asko ezagutzen dira gaur egun:

Caminos de Santiago en Galicia

- Camino de Santiago Portugués del Interior
- Camino de Santiago Portugués de la Costa.
- Camino de Santiago de la Ría de Arosa
- Camino de Santiago de los Ingleses
- Camino de Santiago a Finisterre

Caminos de Santiago Francés

- Camino de Santiago Francés en Aragón
- Camino de Santiago Francés en Navarra

Caminos de Santiago del Norte

- Camino de Santiago de la Costa
- Camino de Santiago Primitivo
- Camino de Santiago Real
- Viejo Camino de Santiago
- Camino de Santiago Vasco del Interior
- Camino de Santiago del Besaya
- Camino de Santiago Vadiniense

Caminos de Santiago de la Vía de la Plata

- Camino de Santiago Sanabrés
- Camino de Santiago desde Badajoz
- Camino de Santiago desde Huelva por la Sierra
- Camino de Santiago desde Huelva por las Marismas
- Camino de Santiago desde Cádiz "Vía Augusta"
- Camino de Santiago desde Antequera

Camino de Santiago de la Vía de la Estrella

- Camino de Santiago de la Vía de la Estrella

Caminos de Santiago del Ebro

- Camino de Santiago del Ebro
- Camino de Santiago de Teruel
- Camino de Santiago del Maestrazgo

Caminos de Santiago de Castilla

- Camino de Santiago de la Lana
- Camino de Santiago de Soria
- Camino de Santiago de Madrid
- Camino de Santiago de Alcalá de Henares
- Caminos de Santiago Alcarreños

Caminos de Santiago Catalanes

- Camino de Santiago Catalán: Ruta por Zaragoza
- Camino de Santiago Catalán: Ruta por Huesca
- Camino de Santiago de Gerona
- Camino de Santiago desde Puigcerdá
- Camino de Santiago desde Viella
- Camino de Santiago desde Tarragona

Caminos de Santiago del Sureste y Levante

- Camino de Santiago del Sureste. Camino desde Alicante.
- Camino de Santiago, Camino de la Lana desde Alicante
- Camino de Santiago Levantino desde Valencia

Camino de Santiago desde Cartagena: Ruta del Azahar

Caminos de Santiago de las Rutas de los Mozárabes

Camino de Santiago Mozárabe
Camino de Santiago Mozárabe por Toledo
Camino de Santiago desde Málaga
Camino de Santiago desde Almería
Camino de Santiago desde Jaén

Caminos de Santiago desde Portugal



KOSTAKO SANTIAGO BIDEA

Iparraldeko Santiago bideetatik ezagunena eta erabiliena Kostako ruta da, Ipar europako portutatik datozen erromesentzat batez ere, Kantauri itsasoko edozein portutan geratuta hasten bai dute bidea.

Soulac bidearen jarraipena da Frantziako mendebaldeko lurraldeak igarotzen dituen izanik. Penintsulan sartzen dira Hendaia eta Irun arteko muga gurutzatuz.

Bidearen trazadurak Arzuara bideratzen ditu erromesak, Frantziako Santiago bidearekin bat eginda guztiak Compostelara bidea hartzen dutelarik.

Kostako bide honek bibliografia eta seinalizazio oso egokia du eta erromesak duten edozein behar asetzeko aukerak dituzte bide guztian zehar.

Aurrekari historikoak

Apostoluaren gorpuaren aztarnak aurkitu zirenen notizia kristautasun guztitik zabaldu zen IX. mendean erdialdean, "Noscat fraternitas vestra" garaian, eta San Leon papari lotu zitzaion hau penintsulan eta Pirineoak gurutzatzean.

Antzinako Asturiasko erreinuko bide astur-galaikoak izan ziren lehenak erromesak Santiagorantz bideratzen. Ruta honek beste bide xakobeko primitiboan antzeko garrantzia zuen XI eta XII. mende aurretik, mende hauetan monarka hispanoak bide Frantsesa indartu zuten arte.

Hala ere, bide Frantsesaren ondartzeko honek ez zuen beste ruta batzuen garrantzia kendu, izan ere Leon-Oviedo tartea indartu bai zen XI. mende bukaeran.

XIII. mendetik aurrera kostako bideak aurrera jarraitzen du Irundik datozen erromesekin eta baita Ipar Europatik datozenekin ere, Bermeon eta Bilbon barkuan jaisten zirenetatik hain zuzen. Bizkaian aurki daitezkeen adierazgarri aurreerromanikoek bermatzen dute teoria hau. Behin bizkaia pasata Kantabria gurutzatu Kastrotik eta Laredotik Santanderrerantz, eta hemendik Asturiasera bidea hartzen zuten.

1879an, Santiago kardenalak dio Santuaren aztarna galduak aurkitu zituela. Bost urte beranduago Leon XIII papak bigarren aurkikuntza hau baieztatu zuen ofizialki.

Kostako bideko ondarea

Bidearen luzerak bidaiariari monumentu asko ikusteko aukera ematen dio; bai interes naturalistikokoak eta baita kulturalak ere, beste erromesen rutatan baino dezente gehiago.

Ondare natural eta paisajistikoa

Amaiezina den ibilbide honetan zehar bidaiariak monumentu natural askoz goza dezake, kasu ia gehienetan administrazio publiko ezberdinen laguntza bat behar dutenak nolabaiteko babes konserbadore bat emateko.

Gure orubeari dagokion tartean (Zarautz-Deba) adibidez:

-Zarautzeko Iñurritza paraje babestua

Beste alde batetik, rutak duen ibilbidea kontutan hartuta, itsaso eta mendi artekoa, paisaiak erromesei Espainiako estampa harrigarrietako batzuk eskaintzen dizkio.

Ondare arkeologikoa

Kantabriako erlaitza zerbaitegatik bereizgarria bada, Europako labar-arteen herentzia handiagatik da. Kobazulo asko daude historiaurreko margo artistikoekin bertan.

Gure tartean aipagarrenak gainera DEbako herrian aurkitzen dira:

-Ekain, Ermitia, Urteaga, Aiza eta Praileaitz kobazuloak Deban.

Ondare artistiko eta monumentalak

Ibilbidearen luzeran zehar ruta honek Penintsula iberikoko portu eta hiri nagusienetakoak igarotzen ditu. Herri hauetako batzuk kultura, ekonomia, erlijio era politika garrantzi handia dute edo izan dute, ondare monumentalaren jatorria izango dena.

Gainera, kristautasunaren indarrak lur hauetara ekarri dituen erromesei esker arkitektura erlijiosoaren zeinu diren eliza, ermita, kapila eta beste hainbat kultoko lekuz aberastu zuen bidea.

Zarautz eta Deba bitarteko tramoko elementu nagusienak Deban aurkitzen dira hain zuzen:

-Nuestra Señora de Itziar Santutegia Deban

-Aipatzekoa da Santa Katalina ermita (erromes gehienak bertatik pasatzen dira ondare erlijiosoaz ain naturalistikoaz gozatzeko aukera ematen bai du)

Arkitektura Zibila

Kantabriar kostaren botere ekonomikoa nabarmenago egiten da dauden jau-regi eta etxe handiak ikusten direnean ruta xakobea osatzen duten herrialde gehienetan. Hauetako asko gaur eguneko zerbitzu publiko eta pribatuetara bideratuak egon arren antzinan izandako boterearen seinale dira.

Arquitectura civil[editar]

Tarte honetan aurki daitezkeen kasu honetan ere Debako herrian aurkitzen dira:

-Bañez etxea Deban

-Agirre jauregia Deban

ATERPETXEA

Santiago bidea igarotzen den herrietan bi motatako aterpetxeak aurki daitezke:

Aterpe publikoak: herri bakoitzean bakarra dago soilik; hauetan bakarrik bidaiatzen duten erromesak edota talde txikitakoak dute lehentasuna talde handiekiko, eta gainera garraioaren lehentasuna dute ezgaitasunen bat duten pertsonak, oinezkoek ondoren, zaldian bidaiatzen dutenak, bizikletan doazenak eta azkenik kotxe edo furgonetan lagunduta doazenentzat. Urte batzuk atzera arte denak dohainik ziren, baina gaur egun Galiziako juntako sareko aterpetxe guztiak 6 euro balio dute gau bakoitzeko.

Pribatuak: partikularrek edo asoziazio laiko edo erlijiosoek daramatzate, normalean etekin ekonomikorik ateratzeko asmorik ez dutela.

Beste aukera bat Turgaliciak (turismoa eramaten duen konpainia Galizian) diseinatutako Bono Iacobus izeneko produktua da, espiritualtasuna eta bideko esperientzia pertsonala nahasten dituen bertako turismo ruraleko etxetan deskantsatzeko aukerarekin.

03

LURRALDEAREN ANALISIA

Deba Gipuzkoako kostaldeko herri txiki bat da. Lurraldeari dagokionez, ondoren ikusiko den bezala hiri lurra eta landa lurra nahasten dituen herria da, inguruko lurralde nahiko malkartsuan auzo txiki ugari osatzen da.

Udalerriaren osaketa hiri-lur eta landa-auzoetan oinarritzen da: hauek Itziar, Lastur eta Elorriaga izanik. 130 bat baseri daude lur eremu guztian zehar. Biztanleria gehien hirigunean biltzen da, % 81,7 bizi den lekuan. Eta Itziarren, % 7,7-ko biztanleria aurkitzen da. Beste denak lurraldean zehar banatzen dira.


Probintziako mendebaldeko muturrean kokaturik eta Deba-beheko eskualdean hain zuzen ere. Herria, izen berdina duen ibaiaren itsasadarraren esku-mako aldean kokatzen da. Udal lurraldearen zati bat Urola arroan zehar eta Itziar nahiz Lasturretik zabaltzen da, kostalde gaineratik altzatzen.

Herriladeak eremu lauenetan edo lurraldearen gune estrategikoetan sortzen dira historian gertatu izan den bezala eta Deba ideia honi jarraituz itsaso eta ibai ondoan kokatzen da lurraldearen gune lau batean mendiz inguratutik.

Debaren mugak: Kantauri itsasoa iparraldean, ekialdean Zumaia eta Zestoa, hegoaldean Azkoiti eta Azpeiti, eta mendebaldean Mutriku eta Mendaro aurkitzen ditu.

Deba N-634 errepideak zeharkatzen du, Eibarrek lotzen du eta Donostira eta Bilbora ere eraman dezake, nahiz eta hauetara autopista bidez joaten den. Autopistara sarrera Itziarren aurkitzen da, AP-8ra. Trenbidea ere pasatzen da Debatik Bilbo-Donostia linea. Azkenik, GI-638 errepidea, Mutriku eta Ondarruranzko bidea ere badu, Bizkaiarako lotunea lortuz.

Santa Katalina babesguneari dagokionez, nahiz eta gero hobeago azalduko den, itsasoaren begira kokatzen da Deba herriaren ekialdeko 185m-ko gailurrean. Nahiz eta ondoren ikusiko den bezala inguruko mendiak altuagoak izan itsasotik gertu dagoen gailur altuena izanik inguruko herrietatik ikusgarria da eta honek garrantzia izango du proiektua garatzerako orduan.




LURRALDEAREN TOPOGRAFIA

Herriko topografia oso irregular eta bortitza da. Inguratzen duten mendiak, 800 edo 900m-ko altuera hartzen dute kostaldetik distantzia horizontal gutxira.

Lurraldea esan bezala oso malkartsua da eta kota aldaketa handiak ditu eremu guztian zehar, ondorengo ebaketetan ikus daiteke hau modu oso argian:

- A-A' ebaketa: kosta ondoko ebaketa, Deba eta Zumaia herrietatik
- B-B' ebaketa: Deba herritik hegoaldera, barnealderantzko ebaketa
- C-C' ebaketa: Santa Katalina babesgunetik hegoalderantz egindako ebaketa
- D-D' ebaketa: Itziar herritik hegoaldera egindako ebaketa



LURRALDEAREN EBAKETAK
E:1/40000

Plano honetan ikus daiteke Santa Katalina babesgunetik pasatzen diren mendi buelta nagusiak.

Ermita hau puntu oso esanguratsua da hainbat mendi bueltatan eta baita Donejakue bidean ere. Bertatik jende ugari pasatzen da urte osoan zehar, batez ere udara aldean. Bide guztiak puntu honetatik pasatzen dira eta askotan erromesak eta mendizaleak geraleku bezala aukeratzen du duen kokapen bereziagatik.

Aukerautako esparrua paisai natural batean kokatzen da eta hau bere kabuz, gaur egun dagoen bezala, babesteko moduko paisaia interesgarri bat bihurtu da urteak pasa diren elean. Gainera, jendea espreski paisaia ikusteko gerturatzeko arren, puntu konkretu honetatik ibilbide ugari pasatzen dira: GR 121 ruta, Flysch-eko ruta eta Zumaia-Deba bidea nagusienak (marra finak).

Aipagarria da Donejakue bidearen 3. etapa (Zarautz-Deba, marra lodia) gertu pasatzen dela eta desbideraketa bat ematen dela erromesak paraje hau ikus dezaten baita. Ibiltariak nahiz eta bideko deskantsu gune bat ez izan bertara hurbiltzen dira geldialdi bat egiteko, behin-behineko ur iturri bat bai dago.

Nahiz eta Kostako bidea barnealdetik doan hainbat bide daude kostatik gertuago pasatzen direnak eta askok aukera hau hartzen dute ibilbide hauek eskaintzen dituzten paisaiak direla eta.

INGURUKO ATERPETXEA

Deba inguruan hainbat ostatu aukera daude gaur egun funtzionamenduan. Hauek mota askotakoak dira: aterpetxeak, garestiakoak diren hotelak, hostalak, kanpina...



Hauek lurraldean zehar banatzen dira, eta gehienak landa eremuan kokatzen diren baserri itxurako eraikin isolatuak dira, eta askotan kanpotarrek ezagutzen ez dituztenak.

Eremutik gertu aurkitzen diren eta erromesek gehien erabiltzen dituzten ostatuak ondorengo hauek dira:

- Geltokiko aterpetxea: Erromesei bideratutako aterpetxe publikoa. Tren geltokiko lehen eta bigarren solairuetan kokatzen da.
- Donibane landa-turismo etxea: Itziar eta Deba tarteko landa turismo etxe batek eskainitako ostatu pribatua.
- Zumardi Pentsioa: Herrigunean, hondartzaren ondoan kokatutako ostatu pribatua. Garestiagoa da eta nahiko txikia.
- Itxaspe kanpina: Itxaspe auzoan dagoen kanpina da. Neguan itxita dago, beraz beharrak urteko garai batzuetan bakarrik asetzin ditu, jende asko izaten du. Herritik oso banandua aurkitzen da.
- Kanala hotela: Itziarren kokatzen da eta garestiegia da erabiltzaile mota honentzat.

Ikus daitekeenez, erromesei dagokienez ez dago aukera askorik Deban eta daudenak txikiak eta ez dira nahikoa. Udaletxeak behin baino gehiagotan esan du beste aukera berri bat beharrezkoa dela.

Hauek izan dira proiektuan aterpetxe bat egiteko erabakia hartzen lagundu duten baldintzetako batzuk. Izan ere, Santa Katalina babesgunea eremu apropos bat da horrelako ekipamendu bat egiteko.



04

SANTA KATALINA BABESGUNEA

KOKAPENA

Debako Egia auzoa, itsasotik 185 metrotara aurkitzen dena, eremu paregabean Atzandi eta Peñas de Lapar akantilatuen gainean, Santa Katalina de Alejandria ermita aurkitzen da. Ikusmira bikain bat eskeintzen du bertatik, non Euskal Herriko itsasalde eta lurraldearen zati haundi baten panoramikak ikus daitezkeen.

Lehen aipatu den bezala, iparraldera begira Kantauri itsasora ikuspegi zabala irekitzen da non ekialdean itsaslabarra Jaizkibelerarte eta Iparraldeko itsasaldea nahiz Pagoeta, Mendizorrotx, Igeldo, Peñas de Aia eta Larrun ikuspegi oneko egunetan ere disfruta daitezkeen. Ipar-mendebaldean berriz, Debako herria ikus daiteke eta hemendik haratago Ondarru gaineko Tontorramendi mendia, nahiz Urregarai (Santa Eufemia), Untzar, Otoio eta Antzoz muturrearteko itsasaldea non Lekeitioko Santa Catalina ermita kokatzen den. Nahiz eta hau ez den ikusten normalean, antzinan eraiki zirenean euren artean harreman bisual bat izateko asmoz eraiki ziren, betiere gailurretan kokaturik. Mendebaldean “macizo del Amo” eta Oiz mendia ikus daitezke. Hego-ekialdean Itziar eta Andutz, Sasamendi, Ernio eta Izarratiz mendiak eta azkenik, hegoaldean Lizarreta, Arbil, Karakate eta Udalaiz mendiak.

Esan bezala oso leku pribilegiatuan kokatzen da eremu hau inguru guztira dituen bistak ezagututa.



AZTARNAK

Gaur egun ermita aipatzen duten eta ezagutzen ditugun dokumenturik zaharrenak 1515ekoak dira. Hau Patronatuak Debako udaletxeari emandako pribilegioekin erlazioaturik dago. Beraz esan daiteke ermita hau XVI. mendetik gaur egun arte zutik daraman inguruko eraikin gutxitakoa dela.

Honez gain gaur egun orubean basilizaren arrastoak ere aurki ditzakegu, honen sarrera horma bat soilik. Nahiz eta oso egoera txarrean aurkitzen den hau paisaiaren parte bilakatu da eta ermitarekin batera multzo bat osatzen dute. Basiliza honi buruzko informaziorik ez da aurkitu baina antzinako argazkiek eta bertan dauden aztarnek argi adierazten dute jatorrizko itxura.

Ermitaren deskribapena

Eraikina laukizuzena da, oso azalera txikikoa eta solairu bakarrekoa. Honen neurriak barnean 8,10m x 4,80m-koak dira. Teilatua bi isurialdekkoa du eta teila arabekin osatzen da. Gaur egun lau paretak harlangaitza dute bistara nahiz eta jatorrian estalia egongo zen. Adreilua ere badu ertzetan eta leihoburuetan. Aurreko fatxadak 0,70m-ko sakonera dauka eta albokoek 0,65m-koa. Presbiterioa ipar-meldebaldara orientatua dago.

Basilizaren horma ere harlangaitz bistakoa da gaur egun. Nahiko degradatuta dagoenez ezin dira honen dimentsioak ondo definitu baina gutxi gora behera 11,5 metro zabaleko horma bat eta 7mko altueraduna.

Berritze lanak historian zehar

1778an ia bere osotasunean berreraiki zen alboan atxikita zuen Santa Katalina basilizarekin batera, garai hartan itxi ziren Santiago Apostol eta San Juan Evangelista ermiten materialak aprobetxatuz. Izan ere, aurretik aipatutako hiru ermitak eta San Rokekoa, Debako udaletxeak zaintzen zituen eta beraien arteko gertutasunagaitik eta baita beraien kontserbaziorako baldintzen behar ekonomikoengaitik, Santiago eta baita San Juan ermitak iztea erabaki zen.

1869an berriz ere Santa Katalina ermita jausi beharrean zegoen, izan ere, fatxada nagusia sartatuta zegoen eta alboko paretak erdi erorita. Hau dela eta, teilatua puntal bidez mantentzen zen. Ondorioz, 1880an Lersundi zenaren andreak, bere jabetzako bait zen alboko baserria Santa Katalina izenekoa eta baita inguruko zenbait lur eremu ere, berreraiketa lanak egitea erabakitzen du.

Eraikuntza aldetik ermita eta atxikita dagoen baserria eraikuntza bakar gisa ulertzen da. Baserria botatzea eta berriz ere eraikitzea erabaki zuen Lersundi familiak, hori eginez ermita jausteko arriskua egon arren ere. Zutik eutsi zion honi guztiari denbora batean eta 1965erarte ganoraz mantendu zen mezak eta erromeriak eginaz, baina hortik aurrera 20 urtetan zaindu gabe egon zen berriz ere erortzeko egoerara heldu arte. Hori dela eta, 1997an Santa Katalina eta bere eremua estimatzen dituzten pertsona talde bat elkartu zen eta ermitaren berritze, eremuaren eta ingurunearen konpontzearen ardura hartzen dute.



Berreraikitze lanak

Esan bezala azkenik 20 urtetan abandonaturik egon ostean, 1997an kontsientziaturik zegoen pertsona talde bati esker berreraikitze lanak egin ziren. Honela, bai Egia auzoentzat eta baita bertan San Juan Bautista eguneko erromeria eta meza ospatzen duten debarrentzat eraikin eta ingurumen esanguratsuaren berreskurapena ahalbidetu zuten.

Eraikinaren berreraikitzeaz gain, ingurunea zatartzen zuen uraren depositua bota zen nahiz eta gaur egun oraindik honen arrastoak badauden, eta inguruko landetan zuhaitzak landatu ziren.

Bertan eginiko lanak garrantzi haundikoak izan ziren, izan ere, lau paretak ez ezik beste ia dena berreraiki zen. Lan horien barruan: teilatu berria teila eta barruko akabera berriekin, itxiturako lau paretan akaberak kanpokaldetik eta barrukaldetik harrizko manposteria begi bistara azalerratzuz, fatxadako leiho borobila konpondu zen kanpotik segurtasunerako sare bat gehituz, marko eta likodun kristalezko atea kokatu zen segurtasunerako barra lodi batzuekin (barrukaldea ikustea ahalbidetzen dutenak), barrukalde osoa berritu zen eta bertako irudi nahiz kuadroak berritu ziren...

GAUR EGUNGO EGOERA

Santa Catalina ermitaren historian zehar berreraikitzeak egon dira bai ermitarenak eta baita atxikita zeukan baserriarenak ere. Izan ere, urteak pasa hain ermitaren erantzukizun ekonomikoa entitate ezberdinena izan da tartean urte askoren mantenimendu falta dela eta, ia ermitaren desagerpena bultzatuaz.

1990ko legean kultur interes gisa bermatzen da Santa Catalina ermita, “conjunto monumental” atalean eta Santiago biderako ermita interesgarri gisa bermatuz, horrela honen mantentzea zihurtatzen delarik gaur egun.

Horrela izanik, urte askoan zutik iraungo duen eraikin bat izango da bisitarien zorientasunerako nahiz eta mantenu lanak nohizean behin egin beharko diren. Ermitaren alboan garai bateko Santa Katalinaren eta honen kortaren astarnak aurkitzen dira. 1880an abandonatu zirenak, Lersundi familiak bere jabetzako beste terreno batetan baserri berria sortu hostean.



GAILURRERA IRISGARRITASUNA

Debatik Santa Katalinara igotzeko aintzinatik bost bide erabili izan dira. Hauetako edozein hartuta ere gutxi gora behera ordu erdi behar da Santa Katalina gainera heltzeko, bakoitzak paisaia eta ezaugarri ezberdinak dituelarik. Debatik Santa Katalinara iristeko ibilbideak ondorengo hauek dira:

Ibilbide zaharrak:

- Miramar-etik Buenos Aires baserria pasatuz.
- Hileritik, San Rokeetik Santa Katalina bidea lotuaz.
- Ifarkaletik Santiago baserria pasa ondoren, San Roke Santa Katalina bidea lotuaz.
- “La Cruz” ermitatik, San Rokeetik Santa Katalinara
- Aguirro-tik, San Josepe, San Roke, Santa Katalina.

Beste ibilbide batzuk:

- N-634-tik Aitzandi kurba pasatuaz.
- N-634-tik Amabirjinabista kurba pasatuaz.
- N-634-tik gasolineratik gertu.

* Hauek ibilgailu irisgarritasuna dute puntu hauetararte baina hemendik aurrera oinezko bideak dira.

Santa Katalinara irisgarritasuna ibilgailuz:

- Debatik Santa Katalinara distantzia ibilgailuz: N-634tik 3,7km- 12min.
- Itziartik Santa Katalinara distantzia ibilgailuz: 3,8km- 10min.
- A-8 sARBidetik Santa Katalinara distantzia eta denbora ibilgailuz: N-634tik 4,3km - 10min.

“1. - *El camino de herradura más rápido y con mayor pendiente es el que parte de la carretera N-634, pasando entre el antiguo Hotel Playa y el chalet del notario Pertegaz, subiendo en empinada cuesta por el caserío Buenos Aires Casa Ardatz y Santa Catalina.*”

2.- Camino que parte de Amllaga, subiendo Junto al cementerio hasta el cruce con el camino que va de San Roque a Santa Catalina y el que continua a Itziar

3- Antiguo camino de herradura por el que bajaban hasta la IgleSia los peregrinos que visitaban la ermita de Santiago. Se inCiA en la calle Ifarkale junto a la casa de Bañez, subiendo por el actual caserío Santiago hasta el camino que va de San Roque a Santa Catalina. En este momento este camino esta cortado.

4.- Camino que parte desde la plaza de los Fuero pasando Junto la ermita de la Cruz, subiendo por Aldatzgol, por el camino adoquinado hasta San Roque y Santa Catalina

5.- El camino rodado más suave y largo, es el antiguo camino Real que parte del Palacio de Agulrre, subiendo por el cruce de San Josepe, Escuelas, San Roque a Santa Catalina

Nuevos caminos a Santa Catalina se utilizan a partir de la construcclon de la carretera de Muniasoro a Sasiola en 1.855, actualmente N-634.

A- Camino que parte de la carretera N-634 pocos metros después de pasar la curva de Altzandi, empalmando con el camino B que deScribimos más abajo (Cortado en la actualidad). Un ramal de este cammo sube directamente hasta la ermita.

B.- Camino rodado con firme de hormigón, que parte después de la curva de Ama Blrjlñabista y que antiguamente enlazaba Ubestiaga con Santa Catalina bajando un ramal por el cammo A citado anteriormente, hasta la Atalaya Sube hasta el caserío Etxeberrí, donde empalma con el camino que viene de San Roque a Santa Catalina.

C.- Camino rodado con firme de hormigón que parte de la carretera N- 634, próximo a la gasolinera y que sube hasta el caserío Iparragulrre empalmando con el camino que viene de San Roque a Santa Catalina

En 1931 el Ayuntamiento concedió autorización para hacer una carretera hasta Santa Catalina a Francisco Celaya "Patxi txiki", partiendo del Km. 49-50 de la N-634 Esta inCiativa debió estar relacionada con los negoclos de este señor que era propietario de un taller de reparación de automÓviles y ofrecía un serviCIO de autobuses para excursiones (22)"


ERMITAREN ERABILERA

Santa Katalina ermitara inguruko baserrietako amama eta aititak gerturatzen ziren antzinan San Juan egunean. Ekainak 23an, San Juan bezperan, gazte jendeak Santa Katalina ermitaren inguruan lizar bat kokatu eta inguruan sua egiten zuten. Hala ere, San Juan eguneko erromeria da gehien gogoratzen dena.

Egun hortan meza ospatzen zen ermitan bertan. Hau 1778.urtetik aurrera hasi zen, non urtean bi egunetan meza emango zela sinatu zenean. Meza hauek San Juan bautista eta Santoago Apostoluaren egunetan ospatuko zirela esan zen, Deban desagertutako ermiten oroimenez.

Urteak igarotzean, San Juan eguneko festak soilik irauten du, non erramuak

bedeinkatzen diren bai lorez osatutakoak eta baita garaiko produktuenak ere; artoa, babarruna, etab. Bedeinkatutakoan etxean edo ganbaran lagatzen ziren eta behin lehortuta zeudenean sutara botatzen ziren ekaitzak galarazteko. Ura ere bedeinkatzen zen ortuan bota ahal izateko.



Gaur egungo erabilera

Santa Katalina ermita gaur egun erlijioeko ekipamendu bat kontsidera daiteke, nahiz eta honen erabilera urteko egun bakarrera mugatzen dela esan ditekkeen.

San Juan egunaren bezperan Egia auzoko baserriarrak sozietatean elkartzen dira afaltzeko. Bertan hainbat kanta egin ondoren hurrengo eguneko goiza erromeriarako erosketak egiteko erabiltzen dute. Ekainaren 24an, erromeria antzeko bat ospatzen da bertan. Gaur egun autobus bat ere jartzen da Itziarko gasolindegirarte eramaten gaituena, hemendik iritsiera motzagoa bada. Horrela zailtasun handiagoak dituztenak ere joateko aukera izan dezaten.

Hemen meza motz bat ematen dute, eta eguraldi ona egiten duenean kanpoan egiten da. Kokapenaren bistak direla eta pena merezi duela esan daiteke. Meza ondoren ermitako kanpaia jo eta erromeria hasten da.





Erromeriara inguruko baserriarrak eta baita herriko jendea ere hurbiltzen dira sozietate batetik ekarritako salda eta txorizoaz gozatzera. Ondoren janariko hainbat postu ere aurki ditzakegu bertan eta jai giro polita egoten dela esan daiteke.



Nahiz eta ikus daitekeen bezala erabilera oso murrizta izan, egunerokotasunean jendea bertara hurbiltzen da eta ermitaz gozatzeko aukera izaten du nahiz eta barnekoa itxita egon. Hala ere askok loreak lagatzen dituzte atean oraindik ere. Horrez gain kanpotarrak bertara hurbiltzeak paisaiaz gozatzeko erabilera gehigarri bat ematen diola uste da.









Ondoren 2016an ospatutako San Juan egunaren argazki batzuk ikus daitezke. Orduan ere meza kanpoan eman zen eta apaiza entzutearekin batera inguruaz gozatzeko aukera izan genuen bertara hurbildu ginena.





SANTA KATALINA ERMITA ETA
BASELIZAREN BEHE OINA


SANTA KATALINA ERMITA ETA
BASELIZAREN ESTALKI OINA



SANTA KATALINA ERMITAREN
ALTXAERAK

SANTA KATALINA BASELIZAREN
ALTXAERAK


ERAIKINEN ALTXAERAK
E:1/150



PAISAIA

Paisaiaren ikuspegitik, itsasbazterren fisiografiak higadura-arrasto interesgarriak ageri ditu eremu honetan, hala nola haran esekiak, oinarria atzeratua duten itsaslabarrak, hondartzak eta, bereziki, marearteko zabalgunek handi bat.

Eraikuntza seinatu batzuk eta esparruaren ezaugarri fisiografikoak berak dira alderdiak paisaia aldetik eskaintzen dituen mugari garrantzitsuenak. Eraikinen artean, nabarmentzekoak dira Santa Katalinako ermita, mendebaldeko muturrean, eta Itzurungo hondartzaren aldamenean dagoen San Telmo ermita. Ezaugarri fisio- grafikoei erreparatuz, aipagarriak dira higadura-arrastoak, esaterako aurrez aipatu haran esekiak, abrasio-plataforma zabala, oinarria atzeratua duten itsaslabarrak, lurmutur ugari –Haitzandi, Aitzuri, Mendata, Sakoneta, Algorri eta Marianton– eta Santiago, Lapari eta Itzurungo hondartzak.



KLIMA

Antolatutako zonaldeak Kantauri Itsasoaren klima leuna du; alegia, euri ugari urte osoan zehar, eta temperatura epelak. Temperaturaren epela eta uraren ugariagatik, landarediaren hazkunde-garaiak ia ez du etenik.

Urtean, prezipitazioak 1.040 eta 2.180 mm artekoak dira, eta euria 150-200 egunetan egiten du. Prezipitazio gehien udazkenean izaten dira, eta muturreko balioak abenduan ematen dira. Aitzitik, uda hasiera arorik lehorrena izan ohi da.

Urteko batez besteko temperatura 13 oC ingurukoa da; hil beroenaren (abuztua) eta hotzenaren (abendua) batez besteko temperaturren arteko aldea, berriz, 12 oC inguru-ko da. Izotzaldia eta temperatura altuak (> 35 oC) oso gutxitan izaten dira; batez besteko maiztasunak urteko 5 eta 10 egunekoak dira, hurrenez hurren.

Haizeei dagokienez, iparraldekoak dira ohikoenak, eta gehieneko maiztasunak udan markatzen dituzte; hego-haizeak urriagoak dira, eta udazken-neguan dira ohikoenak. Ondorioz, temperaturak leunak dira neguan eta neurritsuak udaran, eta urteko laino-egunak (% 12) espero baino gutxiago dira, hezetasun erlatiboaren balio altuei (% 80) erreparatuz gero behintzat.

Gainazaleko hidrologia


Arranomendiko erretenak Itziarko mendi-mazeletan du iturburua, A-8 autobidearen gainetik. Beherago, ezkerretatik, Iparragirre eta Santa Katalinako mazelakdrinatzen dituen San Joango erretenaren urak hartzen ditu. Bi ubideok bat egiten duten gunetik aurrera eginez, Debako Hondakin Uren Araztegia dago. Puntu horretatik, erreka haran eseki batetik aurrera doa, itsas-labarrera amiltzen den arte. Araztegiaren isurkiak uren konposizio kimikoa aldatzen du, jariakinen gehikuntza dela-eta.

LEHORREKO EKOSISTEMAK ETA LANDAREDIA

Ikuspegi biogeografikotik, aztertutako esparrua eurosiberiar eskualdearen muino-estean dago. Egungo klima-baldintzetan, Quercus robur espezieko harizti azidofiloa egongo litzateke mazelen beheko aldean, hareharrizko substratuetan Quercus pyrenaica ameztiari eta kareharria nagusi denetan erkameztiari leku eginez. Artadi kantauriarra harizko lurzoruekiko itsasaldeko zonalde agerikoetan hedatuko litzateke. Itsasoaren aurrean, labarretako berezko landaredia haziko litzateke.

Robinia pseudoacacia sasiakazia, 9 ha-tan hedatzen da; zatirik handiena Debatik heltzen den errepidearen ondoan kokaturik dago, Santa Katalinako ermitaren inguruan, Arranomendi eta Mendata haranetan. Lekadun aloktono honen populazio bertakotuek eta, akaso, sail txikiek osatzen dituzte arboladi horiek.

Landaretza mapan ikus daitekeen bezela, konifera basoek gain, larrea eta hosto zabaleko zuhaitzen habitataki aurkitzen dira. Eta ez hori bakarrik, hosto erorkor eta zabaleko zuhaitzen basoak ere aurki daitezke. Batzuk hosto erorkorrekoak izanik, urtaro ezberdinetan itxura aldatuko dute paisaiari irudi ezberdin bat eskainiz.



Ondoren planoan ikusiko da eremuan dauden landaredia ezberdinak eta hauen kokapena eraikin zaharrekiko.

LANDAREDIA

Artea [quercus ilex, subsp. rotundifolia]

Ardaburu zabal eta biribildua

Altuera 8-12(15)m-raino

Adar sendoak, jarreraz zutituak eta horizontal bitartekoak

Gainaldean kolore berde ilunekoak eta azpialdian tomentu izarkarra eta hauskaraz estaliak

Zuhaitz nagusia eskualde mediterraneoan

Egurra gogorra eta astuna, lehortzean bihurritu eta pitzatu egiten da

Edozein substratu

Haritz kanduduna [quercus robur]

Zuhaitz sendoa, altueran 40m-raino

Ardaburu zabal eta biribilekoa

Enbor zuzen, labur eta lodia banako

bakartietan, abar lodi eta bihurriekin

Azala leuna eta kolore haustakarakoak



hasieran, lodia eta zartatua eta kolore arrekoa adinekoa

Hostoak erorkorrak

Zuhaitz urtabezkoa da, apirila maiatzean loratzen dena: ezkurak iraila-urrian heltzen dira

Lurzoru azidoak eta hezeak maite ditu, aldizka istiltzen direnak barne.

Garai bateko hariztien lekuan gaur egun labore lurrak, belardiak eta konifero-sail tandatuak aurkitzen dira, eta haiek bazter lurretan murriztuta geratu dira

Bere egurrak kalitate paregabekoa da, kolorez harre-horiska, ale xehekoa, gogorra eta astuna

Oso estimatua eta guztuz egokia zurgintza, ebanisteria, upelgintza, itsasgintza eta abarretakoa

Gainera, labore.lur, belardi eta gaztainadien hedakuntzagatik ia suntsituta

Konifera basoak [Intsinis pinua]

Garaiera ertain eta handiaren bitartekoa duen zuhaitza 25-30m-ko altuera lortu baina 50m-raino iritsi daiteke Eite konikoa gaztetan, adinarekin zabaldu eta adarburu zapalduarekin bukatu

Sustrai sistema azalekoa, haize bortitzeko botatzen dute

Enborra zuzena eta zilindrikoa, lodiera aldakorrekoa da eta azala berehala zartatzen da

Ale bakartietan adarrak ia oinetik, multzo trinkoan gehenez ere adarburuaren erdia bakarrik kontserbatzen da

Udaberri hasieran loratu, pinuburuak bigarren udazkenean heltzen dira Pinu honek isurialde kantauriarrean eratzen dituen masa hedatsuen polena nabaria izaten da udaberriko euriteetan sortzen diren ur putzuen ertzean



Itsas pinua [pinus pinaster Aiton]

Garaiera ertaineko zuhaitza, 25-30m artekoa, nahiz eta zoru on eta sakonetan 40m-rainoko banakoak aurkitzen diren

Gaztetan eite erregularra, adineko landareetan adarburua zuhaitzaren goiko herenera mugatzen da Enborra zuzena edo zertxobait flexuoso

Azala gris iluna gaztetan

Martxotik maiatzera loratu, pinuburuak urteko udazkenean heldu

Hazkunde bizkorreko espezie honek lurzoru silizeo, aske eta hareatsuak maite ditu, argiaren zalea da eta izozteekiko jarkikorra da

Gure geografiako zenbait puntutan, espezie kolonizatzaile gisa dihardu suteen ondoren

Egurra larrikoa eta oso erretxinatsua da

sasiarkazia [robinia pseudoacacia]

Zuhaitz edo zuhaixka

Hosto erorkorrak

Hostoak konposatuak. loreak galtzarbako luku zintziliarietan

Zuhaitz sendoa, adarburu zabalekoa, baldintza egokietan Altueran 25m arte iristen da



Adarrak indartsuak eta bihurriak
Sustrai sistema primarioki sarkorra
Lore ugariak
Maiatzean eta ekainean loratzen da
Hazkunde bizkorrekoa eta izaera indartsukoa eta
sustraietatik ppuja berriak botatzeko joera eduki, es-
pezie inbaditzeile gisa dihardu lur mugitu eta edozein
terreno deforestatuan
Oso zaila izaten da behin sartuz gero, hura ezabatzea
Isurialde kantauriarreko haranetan bereziki
Loreak usain eta zapore onekoak. Ugariak diren le-
kuetan, garrantzi handia dute erleen janaritarako eta
eztigintzan
Egurra oso gogorra, astuna eta elastikoa



Arkazia [Acacia dealbata link]

Zuhaitza altueran 30m artekoa, baina gure lati-
tudeetan 10-12m

Adaburua konikoa edo irregularra, enborraren
azala leuna, grisezka-berdeska gaztetan, ilundu
eta sakonki zartatu egiten da adinekoetan
Urtariletik martxora loratu, lekak uztailetik irai-
lera bitartean

Gure latitudeetan zenbait urtetan ez du ia frui-
turik ematen

Gure lurraldean ongi moldatzen da kostaldeko klima suabera eta basati bi-
hurtzen da heskai eta sastrakadietan



Urkia [Betula pendula Roth]

Zuhaitzak, inoiz zuhaiskak


Azala leuna eta zuriska da, ziminda horizontaletan as-
katzen dena


loreak hiruak loratzen dira


Altueanean 30m-raino, adarburu biribildu eta irregu-
larrak eta adar zintzilariak dituena


Banaketa-area Euskal Herrian, ez da hain ugaria eta
bere banaketako eremua uren banalerroaren he-
goaldeko mendi garaienatarako mugatzen da







- 

Artea zuhaitza
quercus ilex, subsp. rotundifolia
- 

Itsas pinua
pinus pinaster Aiton
- 

sasiarkazia
robinia pseudoacacia
- 

Urkia
Betula pendula Roth
- 

Haritz hankaduna
quercus robur



GAUR EGUNGO LANDAREDIA
E:1/1000

ARTEA
 quercus ilex, subsp. rotundifolia

-Ardaburu zabal eta biribildua
 -Altuera 8-12(15)m-raino

ITSAS PINUA
 pinus pinaster Aiton

-Garaiera ertaineko zuhaitza,
 25-30m artekoa
 -Azala gris iluna

HARITZ KANKUDUNA
 quercus robur

-Zuhaitz sendoa
 -altueran 40m-raino
 -Ardaburu zabal eta biribilekoa

URKIA
 Betula pendula Roth


-Zuhaitzak, inoiz zuhaiskak
 -Altueran 30m-raino

SASIARKAZIA
 robinia pseudoacacia


-Zuhaitz edo zuhaixka
 -Hosto erorkorak

KONIFERA BASOAK
 Intsinis pinua


-Garaiera ertain eta handiaren
 bitartekoa
 -Udaberri hasieran loratu



C-C' EREMUAREN EBAKETA



B-B' EREMUAREN EBAKETA



ARTEA
 quercus ilex, subsp. rotundifolia

-Ardaburu zabal eta biribildua
 -Altuera 8-12(15)m-raino

ITSAS PINUA
 pinus pinaster Aiton

-Garaiera ertaineko zuhaitza,
 25-30m artekoa
 -Azala gris iluna

HARITZ KANKUDUNA
 quercus robur

-Zuhaitz sendoa
 -altueran 40m-raino
 -Ardaburu zabal eta biribilekoa

URKIA
 Betula pendula Roth

-Zuhaitzak, inoiz zuhaiskak
 -Altueran 30m-raino

SASIARKAZIA
 robinia pseudoacacia

-Zuhaitz edo zuhaixka
 -Hosto erorkorrak

KONIFERA BASOAK
 Intsinis pinua

-Garaiera ertain eta handiaren
 bitartekoa
 -Udaberri hasieran loratu

185

180

160

140

120

100

80

A-A' EREMUAREN EBAKETA


185

180

160

140

D-D' EREMUAREN EBAKETA



ARAUDIA

JUSTIFIKATU BEHARREKO ARAUDIAK

Proiektuan bete beharreko arauari dagokionez, esan daiteke Debako Arau Subsidiarioak bete beharko direla, eta zehazki honek gure orubeari buruzko fitxan esaten duena. Fitxan bertan eskatzen dena betetzen bada araua betetzen dela esan daiteke, baina hala ere hau errepasatuko da eta puntu kritikoak aztertuko dira. Ondoren fitxetan ikusiko da nola kasualitatez bertan herriko arauak aterpetxe bat planteatzen duten Santiago bidearekin lotuta.

Gainera, esan den bezala, arau honetan ere Santa Katalina ermitak ondare den babes minimoa duela aipatzen da eta ezingo da honen aldaketarik egin. Honek proiektuan eragina izango du eta ez da ikutuko baina integratu egin da. Horrez gain, eremua babesgune bat izanik, paisaia eta babes naturalistiko bat du biotopo barnean sartzen delako. Ondorioz, proiektuan hasiera batetik mantendu nahi den paisaia eta landarediak garrantzia izango du garapenean.


Beste alde batetik kostako legea ere kontutan hartzekoa izango da gure eremuaren kokapena dela eta. Izan ere, lege honek zor eremu batzuk definitzen ditu non ezin den ezer eraki ezta urbanizatu ere. Beraz, hau hasiera batetik begiratu da eta justifikatu ere.

Azkenik, aipatzekoa da interbentzioko eremua partzela bakar bat dela gaur egun eta orain dela gutxi Udaletxearen eskutara pasa dela, eta beraz ez da honen aldaketarik egin beharko eta hirigintza justifikazioa errazagoa izango da.

Hirigintzan ere aldaketa bat suposatuko duen beste puntu bat suhiltzaile eta larrialditako zerbitzuen iritsiera izango da. Puntu hau instalakuntzak garatzean suteen aurreko babesa garatzean landu da eta topografian aldaketa batzuk egitean datza soluzioa, bideak zabaltzeaz gain.

Ondorengo planotan ikusiko dira kokapenaren baldintza nagusiak zeintzuk diren; hala nola orubearen kokapen orokorra eta partzela eta azpipartzelazioa, inguruko morfologia hobeto ezagutu ahal izateko. Bertan ikus daiteke gure partzela 54.ena dela eta azpipartzela B izango dela, zelaia.

EREMUAREN KOKAPENA: 1/20000



SANTA KATALINA BABESGUNEAREN PARTZELAZIOA: 1/5000

Finkarne datuak

Herria: Deba

Partzela kopurua: 3


Partzelaren datuak

Poligonoa: 10

Partzela: 54

Azalera totala: 63.468 m²

Balio katastrala: 7.907,56 €



Azpipartzelen datuak

Laborantza mota:

A -Bazkalekua: 2.105 m²

B -Zelaia 1: 43.939 m²


C -Landa eraikuntza: 311 m²

D -Bazkalekua 2: 1.969 m²

E -Koniferak (pinua): 558 m²

F -Mendi hostotsuak: 6.330 m²

G -Zelaia 2: 8.256 m²



01

DEBAKO ARAU SUBSIDIARIOAK

DEBAKO ARAU SUBSIDIARIOAK

Debako herrian gaur egun oraindik ere Arau subsidiarioak daude indarrean. Bertan herriaren inguruko antolamenduari dagozkion arauak definitzen dira, eta ondoren eremu bakoitzari dagokion antolamendu fitxa azaltzen da.

Lehenengo araua modu orokor batean begiratuko dugu eta gure eremuan aldaketarenbat suposa dezaketen puntuak justifikatuko dira. Antolamendu memoriatik (1. dokumentua) hasi eta hirigintza arauekin (2. dokumentua) jarraituko da.

DEBAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA

TEXTU BATERATUA

DOCUMENTO Nº 1 - AGIRIA

I. ANTOLAMENDU MEMORIA

II. EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERKETA

2. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDU EREDUAREN AZALPENA ETA JUSTIFIKAZIOA.

2.1. LURRALDEAREN ANTOLAMENDU EREDUAREN HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK.

Debako udalerraren azalera oso ofiziala 5.029,1575 ha-koa da. Herriaren topografia hain gorabeheratsua izaki, hiri erabileretarako %20 baino ez da baliagarria (1.000 ha inguru, %20tik beherako malda dutenak). Beraz, funtsezkoa da erabilerak behar bezala banatzea, alderdi baliagarriak gaur egungo eremuaren etorkizuneko garapena ahalik eta gutxien arriskuan jarriko duen egitura baten arabera kalifikatuz.

Memoria Justifikatzailean (1 dokumentua) adierazi eta garatu den moduan, antolamenduko testuinguru orokorraren hirigintzako irizpide nagusia iraunkortasuna da. Izan ere, lurra ondasun urritzat jotzen delarik, indarraldi berrirako beharrezkoa dena besterik ez da programatuko, eta kokaleku berriak esleitutako eremuek duten harrera ahalmenaren arabera banatuko dira.

- Hiri parke eta berdeguneen arauzko zuzkidura (5 m²/biztanle baino gutxiago ez), sistema orokorren egituraketari erreparatuz bermatuko da, zehazki honakoak: 1 SO (Erriberako eta hondartzako pasealekuak), 2 SO (Kalbeton zumardia) eta sortu berriak diren 12 SO (Itziarko santutegiaren babesgunea), eta 24 SO (Santa Katalina aldiriko parkea) horri begira, 2011. urtean 7.617 biztanle izango direla aurreikusi da.

- Lurzoru hiritarrezin babestua: nekazaritza, basogintza edo abelazkuntzari begira oso baliotsuak izateagatik, bertako natur baliabideak ustiatzeko aukerengatik, paisaiaren, historiaren, kulturaren edo zientziaren ikuspegitik nahiz fauna, flora eta oreka ekologikoa babesteko dituzten balioengatik horrela kalifikatutako lurzuak; kasu honetan, batik bat honakoak dira: kostaldeko eta errioko labarrak, Santiagoko hondartza, Izarraizko alderdia, Andutz eta Hartzabal-Casa Campoko esparru bat.

- Lurzoru hiritarrezin arrunta: hiri garapenetik babestu edo gordetzen den lurzorua, nekazaritza eta abeltzaintzakoez edo horiei lotutakoez beste probetxamendurik izan ez dezakeena.

- Landa eremuko lurzoru hiritarrezina: nekazaritza ustiapenari lotu gabeko dentsitate baxuko kokaleku txikiak hartzeko ahalmena duena, beti ere legeak xedatutako baldintzetan.

Santa Katalinako gaina azken honen barne dagoela esan daiteke, izan ere hiritarrezina izanik bertan arauak eraikn bat planteatzen dute eta beraz kokaleku txikiak hartzen gaitasuna duela esango dugu.

2.2. LURRALDEAREN HIRIGINTZA SAILKAPENA.

2.2.1. SAILKAPENERAKO IRIZPIDE OROKORRAK.

Sailkapenerako irizpideak 2/2006 Legeko 10 eta 24 bitarteko artikuluetan zehaztutakoak dira: beraz, sailkapen eta zenbaketa hau egingo da:

Lurzoru hiritarra.....	1.283.471 m ²
Lurzoru hiritargarria.....	25.778 m ²
Lurzoru hiritarrezina	48.982.499 m ²

Ikusten da lurzoru hiritarrezina dela herrialdea hartzen duen zati nagusia, esan bezala topografia oso malkartsua da eta honek ez du ahalbidetzen erakuntza.

2.2.4. LURZORU HIRITARREZINAREN MUGAKETA.

Lurzoru hiritarrak edo hiritargarriak hartu gabeko lurzorua hiritarrezin gisa sailkatuko da.

Lurzoru mota hau jarraian doazen kategorietan bereizten da, Lurraldearen Antolamendurako Zuzentzaruetako 6.1 kapituluaren arabera eta Deba Beheko Lurralde Plan Partzialarekin koordinatuta:

1. LHBB. Lurzoru hiritarrezina: Babes berezia.
2. LHH. Lurzoru hiritarrezina: Ingurumenaren hobekuntza.
3. LHML. Lurzoru hiritarrezina: Mendiko larreak.
4. LHLGU. Lurzoru hiritarrezina: Lur gaineko urak.
5. LHB. Lurzoru hiritarrezina: Basogintza.
6. LHNAL. Lurzoru hiritarrezina: Nekazaritza eta abelazkuntza eta landazabala.

2.3. HIRIGINTZA GARAPENAREN EGITURA OROKORRA. KALIFIKAZIO OROKORRA.

2.3.1. KALIFIKAZIO OROKORRAREN SISTEMATIZAZIOA.

Xedapenak ahalik eta gehien doitze aldera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintza Legeko 50. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoari jarraiki, berrikuspenerako dokumentu honek honela sailkatzen ditu elementu egituratzaileak:

- a) Zonak: "erabilera orokorretarako" lurrak.
- b) Sistema orokorrak: oinarritzko azpiegitura erabileretarako lurrak, biztanleria osoaren zerbitzura.

Beraz, kalifikazio orokorreko erregimena honela eraturik geratuko da:

EGOITZA ZONA.
INDUSTRI ZONA.
HIRUGARREN MAILAKO ZONA.
LANDA ZONA.

Babes bereziko landa zona.
Babes bereziko landa zona. Babestu beharreko alderdiak.
Babes bereziko landa zona. Hobetu edota leheneratu beharreko alderdiak.
Ingurumenaren hobekuntzarako landa zona.
Mendiko larreen landa zona.
Lur gaineko uren babeserako landa zona.
Basoko landa zona.
Nekazaritza eta abelazkuntzako landazabaleko zona.
Landa eremuen zona.

KOMUNITATEKO EKIPAMENDUAREN SISTEMA OROKORRA.
ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA.

Hiri parkeak eta berdeguneak.
1 SO. Erriberako eta hondartzako pasealekuak.
2 SO. Fermin Kalbeton zumardia.
12 SO. Berdegunea. Itziarko santutegiaren babesgunea.
Hondartzak 27 SO. Debako hondartza.
Aldiriko parkea.24 SO. Santa Katalina.
Aisialdirako eskualde alderdia. Arronamendiko sakana.
Aisialdirako eskualde alderdia. Aitzuriko punta-Mendata-Sakoneta.

KOMUNIKAZIOEN SISTEMA OROKORRA.
ZERBITZU AZPIEGITUREN SISTEMA OROKORRA.

Proiektuan interesa izango duten kalifikazio orokorreko zonak landa zona eta espazio libreen sistema orokorra izango dira kasu honetan.

2.3.2. ZONAK (ERABILERA OROKORRAK).

2.3.2.3. LANDA ZONAK ETA ERABILERAK.

Landa ingurunea hiritartzeko prozesua kontrolatzeko eta arrazoi ezberdinak medio esparru horretan ezarri nahi diren erabilera "ez landakoak" ezartzeko, aipatu ingurunean esku-hartzeko orduan dokumentu honen irizpide nagusiak iraunkortasuna eta Lurraldearen Antolamendurako Zuzentzaruei egokitu beharra dira, nekazaritza eta abelazkuntzako nahiz basogintzako produkzioari buruzko alderdietan sakondu gabe, hori tresna espezializatu baten (Lurralde Plan Sektoriala) eskumenekoa delako eta aipatu jarduera Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak arautzen duelako.

Ingurune fisikoari dagokionez, Lurraldearen Antolamendurako Zuzentzaruen arabera lurzoru hiritarrezinaren antolamendu eta erabilera "ezinbestekoa da eremu hori aisialdirako elementu baliotsu gisa erabiltzen duten herritarren bizi kalitatea hobetzeko, oro har aisialdi eta atsedenerako gero eta denbora gehiago duen gizarte batean".

Ikuspegi orokor horrekin bat etorruta, antolamendurako irizpide eta helburu orokortzat jotzen dira Lurraldearen Antolamendurako Zuzentzaruei proposatzen dituzten hauek:

- Lurraldeko gune bakoitzean haren balio ekologikoak, paisaiarenak, produktiboak eta zientifiko-kulturalak bermatzea.
- Beren harrera ahalmenarekin bateraezinak diren jarduerak garatzeagatik

narriaturik dauden natur ingurune elementu eta prozesuak hobetu, lehenak ekarri eta birgaitzea.

- Bazter utzita dauden edo behar adinako etekina atera ez zaien natur baliabideei behar bezalako balioa emateko jarduketak ildoak ezartzea.

- Landa ingurunearen garapena sustatzea natur baliabideak behar bezala antolatuz, baliabide horien probetxamendua modu iraunkorrean kudeatuz, prozesuan esku hartzen duten eragile ezberdinen partaidetza eta haiekin bat arituz, eta baliabideek aisia eta atsedenerako eskaintzen dituzten aukerak baliatuz.

- Lurraldearen ingurumen egoerari buruzko informazio sistemak paratzea, horrela abian diren ingurumena babesteko ekimenak zuzendu, areagotu edo aldatu ahal izateko.

Gaurko jabetza egitura dela eta lurrek duten balioagatik, eta gehiegizko zatiak zehaztea, beharrezkoa irizten zaio bananketak modu eraginkorrean kontrolatzeko neurri egokiak hartzei, ustiatzei bat ekonomikoki bideragarria izateko beharrezkoa den tamainarik ez duten jabetza berriak sor daitezela eragozteko.

Proiektua garatzen den eremua partzela bakar batez eta beraz jabego bakar batez osatzen den landa zona da eta ez da alde honetatik arazorik egongo. Gainera, landa eremua mantenduko da honen paisaia ahalik eta gutxien ikutz eta gainera zerbitzu bat eskainiz. Horrela, aisirako gune izateaz gain beste zerbitzu gehigarri bat emanaz.

2.3.2.3.1. Zonakatzea.

Xedatutako irizpide eta helburu orokorrekin bat etorritik, eta horiek modu eraginkorragoan lortzearen, lurzoru hiritarrezina zonetan banatu da, Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauetan proposatutako antolamendu kategoriei lotuz. Zonak, zeinen mugaketa 4.9 planoaren dokumentazio grafikoan jaso baita, honako hauek dira:

- 1- Babes berezikoak: 560,8085 ha.
- 2- Ingurumena hobetzekoak: 22,9897 ha.
- 3- Mendiko larreak: 2.705,2355 ha.
- 4- Lur gaineko uren babeserako zonak: 1.603,4917 ha.
- 5- Basoak: 532,1233 ha.
- 6- Nekazaritza eta abelazkuntzakoak eta landazabalekoak: 1.656,1985 ha.
- 7- Landa eremuak: 5,0092 ha.

Beraz, LURZORU HIRITARREZINA GUZTIRA 7.085,8564 ha.

2.3.2.3.2. Zona bakoitzaren gaur egungo erabilerak eta proposatutakoak.

NATUR INTERESEKO ALDERDIAK.

1.6.1.2. Natur intereseko alderdien eta paisaia aldetik interesa duten beste gune batzuen mugaketa.

Honakoak zehaztu dira:

- Zumaia-Debako itsaslabarrak eta marearteko zabalgunea (Sakoneta-Mendata) Esparruaren mugatzat hartu dira, marrarteko zabalguneez, itsaslabarrez eta iparraldeko hondartzaz gain, bideen trazatua, errekek, trenbidea eta kota topografikoak muga fisiko zehatz eta erreal modura.

Zumaiatik Debara, Urola eta Deba ibaien bokaleen arteko alderdia BIOTOPO izendatzeko izapidea sustatu eta abian jarri denez, mugak honakoak dira: Bi-

labier baserrirako bidetik Elorriagako gunera, Errotaberri, Uzkinga eta Itxaspe baserriak albo utzita Iribearko eta San Juan Erreka arroak barne hartuz; mendebaldeko muga bezala, N-634 errepidea, Debako hondartzarekin bat egiten duen arte. Guztira 5.558.883 m²-ko azalera zenbatetsi da. Biotopoaren izapidea eta mugaketa amaitzean, zuzenean Natur Eremu Babestua izango da.

- Elorriagako parkea eta itsaslabarraren inguruko eremua.

- Andutz.

- Arronamendiko sakana.

Nahiz eta Santa Katalina hemen ez aipatu, Biotopoaren parte da eta beraz babestua egongo da alde horretatik.

INTERES ZIENTIFIKO ETA KULTURALEKO ALDERDIAK.

1.6.1.4. Historiaurreko aztarnategi arkeologikoak.

Monumentu megalitikoak edo interes arkeologiko edota artistikodunak nahiz Debako udalerritik igarotzen den Santiago Bideari atxikitako landa eremuak; aipatu bidea Eusko Jaurlaritzaren urtarilaren 25eko 14/2000 Dekretuan edo haren aldaketetan zehaztua dago.

Kasu honetan ere Santiago bidearen ondoko landa eremuak aipatzen dituzenez gure kasua dela esan daiteke.

HOBETU EDOTA LEHENGORATU BEHARREKO ALDERDIAK.

6. Nekazaritza eta abelazkuntzako landazabaleko zona.

6.1. Definizioa.

Kategoria honetan sartzen dira ahalmen agorologiko handiko lurzoruak.

6.2. Irizpide orokorra.

Kategoria honetan, irizpide nagusia lurren ahalmen agorologikoari eustea da, eta baita nekazaritza eta abelzaintzako jarduerak nahiz, horiekin bateragarriak izanik, ekosistemak eta nekazaritza lurren berezko paisaiak gordetzea ziurtatuko dutenak ere. Nolanahi ere, gainerako erabilera onargarriak, basogintzako barne, nekazaritza eta abelazkuntza erabileren mende egongo dira. Arreta bereziz kontrolatu beharko dira balio agorologiko handiko lurrak hartzen dituzten eraikuntzak edo azpiegiturak ezartzeko prozesuak, eta baita nekazaritza eremuak zatikatzen eta isolatzen dituztelarik horietan garatzen diren jardueri kalte egiten dieten prozesuak ere.

Eremuan gaur egun behiak bazkatzen dute eta hau arauan landazabaleko zonalde bezala definitzen da. Horregatik balio hauek mantendu beharko ditu proiektuan integraturik. Nahiz eta aterpetxe bat planteatzen den, eremua landa eremu bezala lagatzen denez balio hau ez du galduko.

6.3. Jarduera bultzatuak.

Nekazaritza eta abelazkuntzako jarduera guztiak bultzatuko dira, eta batez ere nekazaritza ustiapena areagotzen duten haiek.

6.4. Jarduera onargarriak.

Onargarritzat hartzen dira, inolako mugarik gabe, ingurumena zaindu eta hobetzea eta aisia estentsiboa. Garapeneko planeamenduak xedatuko du jardueraren doazen jarduerak onargarriak direnez: aisia intentsiboa, ehiza eta arrain hazkuntza, negutegiak, baso erabilera, nekazaritzako industri jarduerak, erauzketa lanak, garraiobideak, airetiko lineak, lurpeko lineak, linea bidezkoak ez diren A motako zerbitzu teknikoaren instalazioak, linea bidezkoak ez diren B motako zerbitzu teknikoaren instalazioak, hondakin solidoen zabortegei eta hondakindegiei, aurrez ziren guneetan oinarritutako hirigintza hazkunderak, nekazaritza jarduerari lotutako egoitza erabilera bakana, erabilgarritasun publiko eta gizarte intereseko eraikinak eta instalazio arriskugarriak.

Esan daiteke sortzen den aterpetxea erabilgarritasun publikoko eta gizarte intereseko eraikina dela izan ere zerbitzu bat ematen du eta gizarteari laguntasun bat eskaintzen dio.

6.5. Jarduera debekatuak.

Debekatutzat hartzen dira irizpide orokorrekin bateraezinak diren jarduerak eta, zehazki, arteztarau honetan definitzen diren moduan, lehendik zeuden guneetan oinarritzen ez diren hazkunderak eta nekazaritza ustiapenari lotu gabeko egoitza bakana.

2.3.2.3.4. Sistema orokorrak.

Lurzoru hiritarrezinean, honako sistema orokor hauek daude:

- 8 SO. Hilerreri berria Istiñan (Deba).
- 9 SO. Itziarko hilerria.
- 12 SO. Berdegunea. Itziarko santutegiaren babesgunea.
- 13 SO. Deba ibaia.
- 14 SO. Trenbide sarea.
- 15 SO. A-8 autobidea.
- 16 SO. N-634 errepidea.
- 17 SO. GI-3291 errepidea. Itxaspeko lotunea.
- 18 SO. GI-3295 errepidea. A-8 autobideko lotunea.
- 19 SO. GI-3210 errepidea. Itziar-Azkoitia.
- 20 SO. GI-3292 errepidea. Lastur-Sasiola.
- 21 SO. GI-638 errepidea. Mutriku-Deba.
- 22 SO. GI-3293 errepidea. Lastur-Endoia.
- 23 SO. GI-3294 errepidea.
- 24 SO. Santa Katalina aldiriko parkea.**
- 25 SO. Sasiola aisialdi gunea.
- 26 SO. Debako hondartza.
- 27 SO. Hartzabal futbol zelaia.
- 28 SO. Deba ibaiaren estuarioa.
- 29 SO. Itziarko mendebaldeko saihesbidea.

Lurzoru hiritarrezinean, sistema orokorren guztizko azalera 1.005.839 m² ingurukoa da.

2.3.3. SISTEMA OROKORRAK.

2.3.3.2. ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA.

Sistema orokor honetan sartzen dira herriguneko hiri parkeak eta espazio libreak, kirol parkea, landa parkeak eta hondartzak.

Honela deskribatzen eta zenbatzen dira:

FINKATUAK	Espazioak Libreak (m2)	Hiri parkea. hiri ingurukoak (m2)
Erriberako eta hondartzako pasealekuak (1 SO)	13.360	
Fermin Kalibon zumardia (2 SO)	26.405	
Itziako santutegiaren babesgunea (12 SO)	8.932	
	48.697	
EPEDUNAK		
Santa Katalina aldiriko parkea (24 SO)		89.264
Elorriagako aldiriko parkea (SG 26 SO)		
GUZTIZKOA	48.697	89.264
Zatikakoa **	6,39 m2/biz.	11,71 m2/biz.

8. LURRALDEAREN HIRIGINTZAKO MUGAKETA. JARDUKETEN KUDEAKETA.

8.2.3. LURZORU HIRITARREZINA.

- Plan Berezia (PB)
- Hiritartze Proiektua (HP)
- Desjabetze Proiektua (DP)

Parke edota sistema orokorren (Santa Katalina, Sasiola...) kasua litzateke. Honakoan, Debako Udalarari dagokio planeamendua abiaraztea.

Noiz-nolako gorabeherak tarteko, lurzoru mota honetan zati batek osatutako esparruak mugatu ahal izango dira, eta horiek mugatutako esparruaren plan berezi batez eta hiritartze proiektu batez garatuko lirateke.

Gaur egun oraindik ere ez dago Santa Katalina babesguneari buruzko Plan Berezia nahiz eta udaletxearen eskutan egon. Beraz, hiritartze proiektuaren dioena beteko da.

8.3.1. JARDUKETA ESPARRUAK.

Lurzoru hiritartzearekin, hirigintzako jarduketak esparruak zerrenda eta eduki hauen arabera sailkatu dira:

c) Lurzoru hiritartzearekin.

- Hirigintzako Esku-hartze Alderdiak (HEA) interes publikoko lurralde esparruak izango dira, eta dagokion Plan Bereziaren xedapenek arautuko dituzte. Esparruok lurzoru mota horretan definitutako zona guztiak edo bakarrik batzuk barne hartu ahal izango dituzte.

- Jarduketa Bakanak (JB).

- Landa eremuko lurzoru hiritartzearekin kokatutako esparru pribatuak dira, familia bakarreko edo biko etxebizitzak hartuko dituztenak eta lurzati bakar bati esleituak; hala zehazten den esparruaren zatia jabari eta erabilera publikorako lagako da.

9. IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK.

9.1. KOKAGUNEAREN BALDINTZAK.

IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK.

1. Lehendik ziren gune eta instalazioak baliatu eta berrerabiltzea.
2. Lurzoru kutsatuak ezabatu edo leheneratzea, arriskurik eza bermatzeko.

Proiektuan lehengo eraikin baten lekuan kokatzen da eraikina eta erori beharreko horma bat erabiltzen da.

9.2. ERAIKINEN DISEINU OROKORRA ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK.

Ingurumen irizpideak barne hartzen dituen diseinuak hainbat faktoreri erreferentzia hartzen dio, hala nola eraikinaren orientazioa, luraren topografia, haizeen erregimena eta abar.

Barne diseinuak argi naturala bilatu behar du, eta etxebizitza babestu behar du bai urtaro epeletatik (korrante gurutzatuekiko aireztatpena, aire bertikala...) bai hotzetatik (isolamenduak, negutegi efektuen sorrera...).

Bestalde, eraikin batean erabiliko diren materialak hautatzean, kontuan izan behar da horiek ingurunean eragin garbia dutela, eta beraz ahaleginak egingo dira fabrikazioan zehar ingurumenean duten eraginari, energi edukiari eta birziklagarritasunari begira ingurunearekiko begirunetsuak diren materialak erabiltzeko. Material bat edo bestea aukeratzeko orduan, Bizi Zikloaren Analisia aintzat hartu beharko da. Horrez gain, osasunaren kalterako izan daitezkeen materialak baztertu beharko dira, eta bertako eraikuntza materialak lehenetsi.


Hau garrantzitsua da aipatzea, izan ere proiektuan hasiera batetik bilatu izan da materialen naturaltasuna eta ingurura integratzea. Horregatik, ondoren argi ikusiko den bezala material guztiak naturarekin zerikusia dutenak dira eta bertatik hartuak direla esan daiteke.

9.6. PAISAIA ETA HIRI INGURUNEA INTEGRATZEA.

Hiri ingurune batean, berdeguneen xedea alde biko da: batetik, paisaia hobetzea, eta, bestetik, inguruko bizilagunen aisia eta atsedeen denbora elikatzea. Premia hori Lurzoru Legean (2/2006 Legeko 78. artikulua) jasotzen da, eta bertan parke eta eremu publikoek gutxienez biztanleko 5 m2 hartu behar dituztela xedatzen da.

Berdeguneek bestelako funtzio garrantzitsuak ere badituzte, hala nola:

- hiri klima hobetzea (airearen zirkulazioa, hezetasuna orekatzea, gasak eta hautsak atxikitzea);
- herritarren ariketa fisikoa akuilatzea (paseatzea, korrika egitea, bizikletan ibiltzea);
- natura babestea eta hari buruz hezteak.



Debako arau subsidiarioen berrikuspena.
revisión de las normas subsidiarias de Deba.

TEXTU BATERATUA
TEXTO REFUNDIDO

eragileak:
promotor:



talde egileak:
arkitektoak:



abokatuak:
Juan Landa
EKAIN S.L.

egilea:
1/15,000


ANTOLAMENDUA
lurraldearen egitura orokorra.
Lurzoruzaren sailkapena

ORDENACION
estructura general del territorio.
Clasificación del suelo

plano nº
4.7
planoa
marzo 2007

SANTA KATALINA ATERPETXEA, DEBA
CRISTINA ARIZMENDIARRIETA _ IÑAKI BEGIRISTAIN
2017ko UZTAILA

BIZKAIKO GOLKOA



LURZORU EZ HIRITARGARRIAREN EZAJGARRITAPEN OROKORRA,
LUR-ANTOLAKAREN KATEGORIK (10 TONA)

CLASIFICACION GLOBAL DEL SUELO NO URBANIZABLE
CATEGORIAS DE ORDENACION DEL SUELO (ZONA D).

- D1 BABES BEREZIA
ESPECIAL PROTECCION
- D2 INGURUGIROAREN HOBEKUNTZA
MEJORA AMBIENTAL
- D3 MENDI LARREAK
PASTIZALES MONTANOS
- D4 LURRAZALEKO UREN BABESA
PROTECCION DE AGUAS SUPERFICIALES
- D5 BASOA
FORESTAL
- D6 NEKAZARITZA ETA ABELTZANTZAKO LANDAZABALA
CAMPIÑA AGROGANADERA
- D7 BASERRI GUNEAK
NUCLEOS RURALES

BALDINTZAILUE GAINJARRIAK
CONDICIONANTES SUPERPUESTOS

NATUR GUNEAK ETA INTERES DUTEN EREKUMAK
ESPACIOS NATURALES Y AREAS DE INTERES

- BABESADUN NATUR GUNA (NATURA 2000 SAREA)
ESPACIO NATURAL PROTEGIDO (RED NATURA 2000)
- INTERES NATURALISTIKOA DUTEN EREKUMAK ETA INTERESA DUTEN
BESTE LEKUCUNE BATZU GUNEAK
AREAS DE INTERES NATURALISTICO Y
OTROS ENCLAVES DE INTERES
- INTERES ZIENTIFIKO ETA KULTURALEKO EREKUMAK
AREAS DE INTERES CIENTIFICO Y CULTURAL
- LARRABIEL (ITXASPE)
- LAPARRI ETA ITXASPEZKOAK
ACANTILADOS Y LITORAL
- PI PLAYA DE SANTIAGO, P3 PLAYA DE ENDAIA, P4 PLAYA DE SAMPONETA
- INTERESEKO GEOLOGIA EDOTURRIK DUTUTENAK
DE FORMACIONES GEOLOGICAS DE INTERES
- A1 ACANTILADOS Y RASA MAREAL, PUNTA AITZURI MENDATA-SAKONETA, A3 MONTE ANDUTZ, A7 COMPLEJO KARSTICO DEL MONTE ERLU (IZARRITZ)
- INTERESEKO INTERESA ETA MONUMENTU MEGALITIKO DUTUTENAK
DE INTERES ARQUEOLOGICO Y MONUMENTOS MEGALITICOS
- Cu1 AITZAZITO, Cu2 ERMITA, Cu3 LARRABIEL, Cu4 ARBIL I., Cu5 ERMITA II., Cu6 LATSURREGI, Cu7 ARBIL II., Cu8 ERMITA III., Cu9 FRALLE ATZ I., Cu10 ARBIL III., Cu11 ERMITA V., Cu12 SAAR MAKATZA, Cu13 ASTARRAGA, Cu14 GANTXURPIA TXKI, Cu15 THOMMEN KOPA, Cu16 EXAN, Cu17 GANTXURPIA BERRI, Cu18 LEB, Cu19 EXAN II., Cu20 IERTZA, Cu21 URKIZETAKO LEZPI, Cu22 EXAN IV., Cu23 IMANOLEN ARROBIA, Cu24 URTIATA, Cu25 EXAN V., Cu26 ESTANAN IV. (IZARRITZ), Cu27 URTIATAKO LEDIA, Cu28 EXANNO LEZEA, Cu29 KOLA ZARRA, Cu30 MEGALITO DE ARLI
- MONUMENTU MONUMENTALEN BABESA
PROTECCION DE CONJUNTO MONUMENTAL
- M31 ESTACION MEGALITICA DE ARLUZE, Cu71 CUEVA DE EXAN Y SU ENTORNO, Cu72 CUEVA DE PRALEATZ I Y SU ENTORNO
- HIDROLOGIA ETA ITXASPEZKO EREKUMAK
AREAS DE INTERES HIDROLOGICO Y LITORAL
- ITXASPEZKO EREKUMAK
LITORAL Y MARIASMAS
- LURAZKOAK AKUFEROEN BABES GUNA
PROTECCION DE ACUFEROS SUBTERRANEOS
- NEKAZARITZA INTERESEKO EREKUMAK
AREAS DE INTERES AGRIKO
- ITXASPEZKO EREKUMAK BEHEKUNTZA EREKUMAK
AREAS A MEJORAR Y/O RECUPERAR
- CO-1 ZONA URBEROGA, V-1 CONSTRUCCIONES OSIO, CO-2 JUNTO A ZOZOBERRI, V-3 SANTUARIAN, CO-1 ANSOCHO, V-4 IBE-LIBER, CO-2 ZINDUTURRI, V-5 CANTERA APERRIBAL, CO-4 USABARITZA, V-6 VALLE DE LASTUR, CO-5 URBEROGA, V-7 BARRACIONES AUTOPISTA, CO-6 GATZELU, V-8 MARGENS DE ARZAL, CO-9 FRENTE DE GOLTZIBAR, V-9 Km.35 N-634, Entre la Itebarreta y el acceso al Cº Errota, CO-10 IGARTEA, V-10 ACCESO A LASTUR POR SASIOLA, CO-11 S. NIKOJAS DE LASTUR, V-11 Cº UGATEBERRI, Fuente a 10 centneros de Lastur, V-12 Cº ITXASPEZKO, (Itebarreta,) V-13 DETRAS DE LA CANTERA DE SASIOLA, CO-1 CAMPING DE ITXASPE, V-14 ANAKO ZULOA, CO-2 CAMPING DE ITZAR, V-15 ANAKO ZULOA
- ITXASPEZKO EREKUMAK
AREA CANTERABLE
- AC-1 SASIOLAKO HARRIBERGUNA, AREA CANTERABLE DE SASIOLA, AC-2 URULAKO HARRIBERGUNA, AREA CANTERABLE DE URULAKU, AC-3 DULURIKAKO HARRIBERGUNA, AREA CANTERABLE DE DULURISA

ITXASPEZKO ETA LURREZKO ZERBARRIEN PUBLIKOA
DESLINDE PUBLICO MARITIMO TERRESTRE

- ITXASPEZKO RIBERA
- ITXASPEZKO ETA LURREZKO ZERBARRIEN PUBLIKOA
DESLINDE MARITIMO TERRESTRE
- BABES ZORGUNEA
SERVIDUMBRE DE PROTECCION

Debako arau subsidiarioen berrikuspena.
revisión de las normas subsidiarias de Deba.

TEXTU BATERATUA
TEXTO REFUNDIDO




abokatua:
Juan Landa
EKAIN S.L.

eragileak:
Luciano Paguegi
Agustín Errea

ANTOLAMENDUA
lurraldearen egitura orokorra,
Lurzoru ez-hiritargarriaren
antolamendu kategoriak

ORDENACION
estructura general del territorio.
Categorías de ordenación
del suelo no urbanizable

plano nº
4.9
planoa




ULDA
A1
A2
A3

KALIFIKAZIO ZEHAZTZIAKO SISTEMATIZAZIOA (012 art.)
OSAGARRIA 4.8 PLANOAREKIN
SISTEMATIZACIÓN DE LA CALIFICACION PORMENORIZADA(art. 012),
COMPLEMENTARIO CON PLANO 4.8

- C.1. Administrazio, Merkatiza eta Zerbitzu Erabilerako Zonak
Zonas de Usos Administrativos, Comerciales y de Servicios
- C.3.1. Amillaga
- C.3.2. Alameda
- C.3.3. Talasoterapia
- C.3.4. Salegi
- C.3.5. Kanala
- E.1. Sare Bide - Sistema - Sistema de Redes Viarias
- E.1.1. Heriz Kanpoko Errepidea - Carretera Interurbana
- E.1.2. Errejidle Lokala - Carretera Local
- E.2. Trenbide Sareak - Redes Ferroviarias
- E.2.1. Trenbideko Gehokia - Estación de Ferrocarril
- E.2.2. Via férrea
- E.3. Portu erabilerako Zonak, Portuen Sistema Orokorra
Zonas de Usos Portuarios, Sistema General Portuario
- E.3.1. Uxo Portuaria
- E.3.2. Espazio Libres Portuarlos
- E.3.3. Amarrak Tradicionales
- F.1. Espazio Urbano Libreak - Espacios Libres Urbanos
- F.1.1. Parkeak eta Lorategiak - Parques y Jardines
- F.1.1.1. Fermin Calbeton
- F.1.1.2. Parque Amillaga
- F.1.1.3. Parque Elizburu
- F.1.1.4. Parque Oslo
- F.1.1.5. Parque Santuario de Itziar
- F.1.1.6. Parque antiguo Cementerio de Itziar
- F.1.1.7. Parque Presada Lastur
- F.1.2. Joku Lekukoak - Areas de Juegos
- F.1.2.1. Alameda
- F.1.2.2. Itziar
- F.1.3. Plazak eta Oinezko Eremuak - Plazas y Espacios Peatonales
- F.1.3.1. Plaza Aglre
- F.1.3.2. Plaza Lertxundí
- F.1.3.3. Plaza de los Fueros
- F.1.3.4. Plaza Vieja
- F.1.3.5. Plaza Arakistain
- F.1.3.6. Plaza Gudaris
- F.1.3.7. Plaza Carrejo, Itziar
- F.1.3.8. Plaza Frontón, Itziar
- F.1.3.9. Plaza San Nicolas, Lastur
- F.2. Landa Lurretako Espazio Libreak - Espacios Libres Rurales
- F.2.1. Parque Santa Catalina
- F.2.2. Sasiola
- F.3. Ibaian Ibilguak - Errekak- Cauces Fluviales - Regatas.
- F.3.1. Artzabal
- F.3.2. Osio.
- F.3.3. Amillaga.
- F.4. Itasoa eta Lehorraren artean Jabari Publikoa
Centro Público Marítimo Terrestre
- F.4.1. Santxo - Lapari
- F.4.3. Acantillados y Franjas Costeras Rocosas
- F.4.3. Filas fluviales.
- F.4.5. Servicio de Playas
- G.1. Zehaztugabeko Komunitate Ekipamenduko Zonak
Zonas de Equipamiento Comunitario no determinado
- G.1.1. Social, Amillaga
- G.1.2. Social, Osio.
- G.1.3. Social, Harzabal
- G.1.4. Social, Itziar
- G.2. Hezkuntza Ekipamenduko Zonak - Zonas de Equipamiento Docente
- G.2.1. Pimera
- G.2.2. Ostolaza
- G.2.3. Ostolaza Berri.
- G.2.4. Elizburu
- G.2.5. Escuela de Arte Osondo
- G.3. Kirol Ekipamenduko Zonak - Zonas de Equipamiento Deportivo
- G.3.1. Polideportivo
- G.3.2. Campo de Fútbol
- G.3.3. Pabelon de Remo (Supramunicipal - S.G.30)
- G.3.4. Pistas al aire libre
- G.3.5. Fronton Carrejo
- G.3.6. Fronton Lojendio
- G.3.7. Fronton Itziar
- G.3.8. Fronton Lastur
- G.3.9. Piscinas cubiertas (Supramunicipal - S.G.30)
- G.3.10. Polideportivo ampliación.
- G.4. Erakunde Publiko eta Administrazio Ekipamenduko Zonak
Zonas de Equipamiento Administrativo e Institucional Público
- G.4.1. Udaletxea - Ayuntamiento
- G.5. Osasun eta Sorospen Ekipamenduko Zonak
Zonas de Equipamiento Sanitario y Asistencial
- G.5.1. Osasun Zentroak - Centros Sanitarios
- G.5.1.1. Ambulatorio, Itziar
- G.5.2. Haurtzaindegia - Guarderías
- G.5.2.1. Guarderia Zabaltzo
- G.5.3. Zehaztugabeko Sorospen Zentroak - Centros Asistenciales Diversos
- G.5.3.1. Hogar del Jubilado y Centro de Día
- G.5.3.2. Residencia de ancianos
- G.6. Gizarte, Kultura eta Aisialdi Ekipamenduko Zonak
Zonas de Equipamiento Socio Cultural y Recreativo
- G.6.1. Casa de Cultura
- G.6.2. Palacio Aglre
- G.6.3. Centro Civico Social Calbeton
- G.6.4. Maxpe
- G.6.5. Margen Izquierda (Supramunicipal - S.G.30)
- G.6.6. Molinos de Lastur
- G.6.7. Alberque Naparenekua
- G.6.8. Social, Lastur
- G.6.9. Social Elorrixa
- G.6.10. Social, Itziar
- G.7. Erlijio Ekipamenduko Zonak - Zonas de Equipamiento Religioso
- G.7.1. Iglesia Santa Maria la Real
- G.7.2. Santuario de la Virgen de Itziar
- G.7.3. Ermita de San Roke
- G.7.4. Ermita de Santa Catalina
- G.7.5. Ermita de Santa Cruz
- G.7.6. Ermita de Salbatore, Urteaga
- G.7.7. Ermita San Martin.
- G.7.8. Ermita de San Sebastián.
- G.7.9. Ermita de San Nicolas.
- G.7.10. Convento - Iglesia de Sasiola
- G.8. Zerbitzu Publikoen Ekipamenduko Zonak
Zonas de Equipamiento de Servicios Públicos
- G.8.1. Ohiko merkatua - Mercado tradicional
- G.8.3.1. Cementerio de Deba, Istita
- G.8.3.2. Cementerio de Itziar
- H. Zerbitzu Azpiegiturako Zonak - Zonas de Infraestructuras de Servicios
- H.1. Depositos de agua
- H.2. Depuradora
- H.3. Itzuriola subestacion
- H.4. Telefonica central
- H.5. Gas


SASIOLA



LASTUR



ELORRIXA



ITZIAR



- EGUNGO EKIPIAMENDUA
EQUIPAMIENTO EXISTENTE
- EKIPIAMENDU PROGRAMATUA
EQUIPAMIENTO PROGRAMADO
- PARKEAK ETA BERDEGUNEAK
PARQUES Y ZONAS VERDES

Debako arau subsidiarioen berrikuspena.
revisión de las normas subsidiarias de Deba.

TEXTU BATERATUA
TEXTU REFUNDIDO

eragileak: promotors

Decretu Libak

talde egileak: Luciano Pagaegi, Agustín Errea


abokatuak: Juan Landa, EKAIN S.L.

eskala: 1:4,000

ANTOLAMENDUA
ekipamenduak
eta erabileraz zehaztatutak

ORDENACION
equipamientos
y usos pormenorizados

plano nº
4.13
planoa
marzo 2007 marta




ULDA
A1
A2
A3

KALIFIKAZIO ZEHAZTZUAKO SISTEMATIZAZIOA (012 art.)
OSAGARRIA 4.8 PLANOAREKIN
SISTEMATIZACIÓN DE LA CALIFICACION PORMENORIZADA(art. 012).
COMPLEMENTARIO CON PLANO 4.8

- C.1. Administrazio, Merkataritza eta Zerbitzu Erabilerako Zonak
Zonas de Usos Administrativos, Comerciales y de Servicios
- C.3.1. Amillaga
- C.3.2. Alameda
- C.3.3. Talasoterapia
- C.3.4. Salegi
- C.3.5. Kanala
- E.1. Sare Bide - Sistema - Sistema de Redes Viarias
- E.1.1. Heriz Kanpoko Errepidea - Carretera Interurbana
- E.1.2. Errejidle Lokala - Carretera Local
- E.2. Trenbide Sareak - Redes Ferroviarias
- E.2.1. Trenbideko Gehokia - Estación de Ferrocarril
- E.2.2. Via férrea
- E.3. Portu erabilerako Zonak, Portuen Sistema Orokorra
Zonas de Usos Portuarios, Sistema General Portuario
- E.3.1. Uxo Portuaria
- E.3.2. Espazio Libre Portuaria
- E.3.3. Amarrak Tradicionales
- F.1. Espazio Urbano Libreak - Espacios Libres Urbanos
- F.1.1. Parkeak eta Lorategiak - Parques y Jardines
- F.1.1.1. Fermin Calbeton
- F.1.1.2. Parque Amillaga
- F.1.1.3. Parque Elizburu
- F.1.1.4. Parque Oslo
- F.1.1.5. Parque Santuario de Itziar
- F.1.1.6. Parque antiguo Cementerio de Itziar
- F.1.1.7. Parque Presada Lastur
- F.1.2. Joku Lekuak - Areas de Juegos
- F.1.2.1. Alameda
- F.1.2.2. Itziar
- F.1.3. Plazak eta Oinezko Eremuak - Plazas y Espacios Peatonales
- F.1.3.1. Plaza Aglire
- F.1.3.2. Plaza Lertxundi
- F.1.3.3. Plaza de los Fueros
- F.1.3.4. Plaza Vieja
- F.1.3.5. Plaza Arakistain
- F.1.3.6. Plaza Gudaris
- F.1.3.7. Plaza Carrejo, Itziar
- F.1.3.8. Plaza Frontón, Itziar
- F.1.3.9. Plaza San Nikolas, Lastur
- F.2. Landa Lurretako Espazio Libreak - Espacios Libres Rurales
- F.2.1. Parque Santa Catalina
- F.2.2. Sasiola
- F.3. Ibaian Ibilguak - Erreak - Cauces Fluviales - Regatas.
- F.3.1. Artzabal
- F.3.2. Osio.
- F.3.3. Amillaga.
- F.4. Itasoa eta Lehorraren artean Jabari Publikoa
Centro Público Marítimo Terrestre
- F.4.1. Santxo - Lapari
- F.4.3. Acantillados y Franjas Costeras Rocosas
- F.4.3. Filas fluviales.
- F.4.5. Servicio de Playas
- G.1. Zehaztugabeko Komunitate Ekipamenduko Zonak
Zonas de Equipamiento Comunitario no determinado
- G.1.1. Social, Amillaga
- G.1.2. Social, Osio.
- G.1.3. Social, Harzabal
- G.1.4. Social, Itziar
- G.2. Hezkuntza Ekipamenduko Zonak - Zonas de Equipamiento Docente
- G.2.1. Pirmeria
- G.2.2. Ostolaza
- G.2.3. Ostolaza Berri.
- G.2.4. Elkizburu
- G.2.5. Escuela de Arte Otsondo
- G.3. Kirol Ekipamenduko Zonak - Zonas de Equipamiento Deportivo
- G.3.1. Polideportivo
- G.3.2. Campo de Fútbol
- G.3.3. Pabelon de Remo (Supramunicipal - S.G.30)
- G.3.4. Pistas al aire libre
- G.3.5. Fronton Carrejo
- G.3.6. Fronton Lojendio
- G.3.7. Fronton Itziar
- G.3.8. Fronton Lastur
- G.3.9. Piscinas cubiertas (Supramunicipal - S.G.30)
- G.3.10. Polideportivo ampliación.
- G.4. Erakunde Publiko eta Administrazio Ekipamenduko Zonak
Zonas de Equipamiento Administrativo e Institucional Público
- G.4.1. Udaletxea - Ayuntamiento
- G.5. Osasun eta Sorospen Ekipamenduko Zonak
Zonas de Equipamiento Sanitario y Asistencial
- G.5.1. Osasun Zentroak - Centros Sanitarios
- G.5.1.1. Ambulatorio, Itziar
- G.5.2. Haurtzaindegia - Guarderías
- G.5.2.1. Guarderia Zabaltzo
- G.5.3. Zehaztugabeko Sorospen Zentroak - Centros Asistenciales Diversos
- G.5.3.1. Hogar del Jubilado y Centro de Día
- G.5.3.2. Residencia de ancianos
- G.6. Gizarte, Kultura eta Aisialdi Ekipamenduko Zonak
Zonas de Equipamiento Socio Cultural y Recreativo
- G.6.1. Casa de Cultura
- G.6.2. Palacio Aglire
- G.6.3. Centro Civico Social Calbeton
- G.6.4. Maxpe
- G.6.5. Margen Izquierda (Supramunicipal - S.G.30)
- G.6.6. Molinos de Lastur
- G.6.7. Alberque Naparrenekia
- G.6.8. Social, Lastur
- G.6.9. Social, Elorrixa
- G.6.10. Social, Itziar
- G.7. Erlijio Ekipamenduko Zonak - Zonas de Equipamiento Religioso
- G.7.1. Iglesia Santa Maria la Real
- G.7.2. Santuario de la Virgen de Itziar
- G.7.3. Ermita de San Roke
- G.7.4. Ermita de Santa Catalina
- G.7.5. Ermita de Santa Cruz
- G.7.6. Ermita de Salbatore, Urteaga
- G.7.7. Ermita San Martin.
- G.7.8. Ermita de San Sebastián.
- G.7.9. Ermita de San Nicolás.
- G.7.10. Convento - Iglesia de Sasiola
- G.8. Zerbitzu Publikoen Ekipamenduko Zonak
Zonas de Equipamiento de Servicios Públicos
- G.8.1. Ohiko merkatua - Mercado tradicional
- G.8.3.1. Cementerio de Deba, Istita
- G.8.3.2. Cementerio de Itziar
- H. Zerbitzu Azpiegiturako Zonak - Zonas de Infraestructuras de Servicios
- H.1. Depositos de agua
- H.2. Depuradora
- H.3. Ikerriola subestacion
- H.4. Telefonica central
- H.5. Gas


SASIOLA



LASTUR



ELORRIXA



ITZIAR



- EGUNGO EKIPAMENDUA
EQUIPAMIENTO EXISTENTE
- EKIPAMENDU PROGRAMATUA
EQUIPAMIENTO PROGRAMADO
- PARKEAK ETA BERDEGUNEAK
PARQUES Y ZONAS VERDES

Debako arau subsidiarioen berrikuspena.
revisión de las normas subsidiarias de Deba.

TEXTU BATERATUA
TEXTU REFUNDIDO

eragileak: promotors

Decretu Libak

talde egileak: arkitektoak: Luciano Pagaegi, Agustín Errea

abokatuak: Juan Landa, EKAIN S.L.

eskala: 1:4,000

ANTOLAMENDUA
ekipamenduak
eta erabileraz zehaztatutak

ORDENACION
equipamientos
y usos pormenorizados

plano nº
4.13
planoa
marzo 2007 merkua

TEXTU BATERATUA

DOCUMENTO Nº 2 – AGIRIA
I. HIRIGINTZA ARAUAK

Bigarren dokumentu honetan herriko lurzoru motak eta bertan baimentzen dena eta eraikuntza motak definitzen dira batez ere. Hau da, hirigintza mota non eta nolakoa izan behar den.

Arau hauen barnean aukeratutako partzela eta inguruari eragiten dioten puntu ezberdinak aztertu eta justifikatuko dira soilik.

6. Espazio libreen erabilerak

Espazio libreen erabileren barruan honako kategoria hauek bereizten dira:

- Landako espazio libreen erabilera
- Hiriko espazio libreen erabilera

Espazio libreen erabilera, sarrera libreko espazioak diren eta komunikazio sareko elementuak ezartzera bideraturik ez dauden jabari publikoko espazioen erabilera da. Horietan, aparteko kasu berezietan izan ezik, ez dira eraikuntza garapenak onartzen.

Horien artean aipatzekoak dira, batetik, plazak, lorategiak eta hirietako parkeak, eta bestetik, eraikigarriak ez diren landa eta hiri eremuetan dauden hondar eremuak nahiz eraikuntzetatik eta azpiegituretatik babesturik dauden eremuak, landa ingurunean aisialdirako eta erlaxatzeko jabari publikoko lurrrak, eta, azkenik, ibaien ibilgu publikoak eta itsasaldeko eremuak.

Landa lurretako espazio libreen erabileren barruan sartzen dira baso autoktonoak ekosistema integratu moduan zaintzeko eta biziberritzeko erabilerak, edo lurralde eremu jakin bateko (Hartzabal, Santa Katalina) natura- eta paisaia-balioak lehenera ekartzeko erabilerak. Halaber, aisialdi eta olgetarako jarduerak ere horretan sartuko dira, muga batzuekin eta kontrolpean.

Nahiz eta hasiera batean eraikuntzarik onartzen ez dela esan, ondoren hainbat erabilera onarturik daudela esaten du legeak; horien artean paisaiari balio ateratzeko erabilerak, aisialdirako erabilerak, etab.

Ondoren fitxan hobeto ikusiko da.

Espazio libreen erabileraren barruan sartuko dira, halaber, mantentze lanetarako erabilera lagungarriak – makineria, lanabesak, materiala eta antzekoak gordetzea–, eta jendearentzako beharrezkoak diren bestelako zerbitzuak – garbigela publikoak eta antzekoak–.

010. artikulua. Kalifikazio orokorraren sistematizazioa.

D. Landa zonak

D.6. Nekazaritzarako eta abelazkuntzako landazabaleko zona

F. Espazio libreen sistema

F.2. Landako espazio libreak

D. LANDA ZONAK

D.6. Nekazaritzako eta abelazkuntzako landazabaleko zona

Udal barrutian, nekazaritza ustiapenerako baldintzarik hoberenak erakusten dituzten lurzoruak hartzen dituen eremua da. Lurren ahalmen agrológicoari eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueri eustea da kategoria horren helburu orokorra, bai eta aipatutako jarduerekin bateragarriak izanik, ekosistemak eta nekazaritza paisaiak zaintzea ziurtatuko duten jardueri eustea ere.

1. Eraikuntza erregimen orokorra

Baimendutako erabilerekin loturiko mota ezberdinetako eraikin isolatuak. Eraikin horiek bete beharko dituzte 3.7.4 ataleko “Eraikuntzaren eta erabileren araudi espezifikoan” ageri diren lurzoru hiritarrezineko kategorietako VI. ataleko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzak.

2. Erabilera erregimen orokorra

Erabilera nagusia:

– Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak eta baso ustiapenerako erabilerak, modalitate eta kategoria guztiak.

Erabilera baimenduak:

– Egoitza erabilera, etxebizitza modalitatean; soilik arau hauek onartu baino lehen zeudenak, eta, aldi berean, etxebizitzarako erabiltzen zirenak onartuko dira. Eraikin horiek 184., 185., 186., 187. eta 188. artikuluetan definitzen diren tolerantziak errespetatu beharko dituzte.

– **Hirugarren sektoreko erabilerak, ostalaritza modalitatean;** sagardotegiak, askaldegiak etab. onartuko dira, **bai eta hotel jarduera ere, landetxe modalitatean.** Aurrekoak arau hauek onartu baino lehendik zeuden kasuetan eta **dagoen eraikinaren osagarri moduan soilik** onartuko dira. (195., 196. eta 197. artikulua)

– **Espazio libreen erabilera.**

– Garaje erabilera, beste erabilera baimendu batzuen erabilera lagungarri moduan.

– **Komunitateko ekipamenduko erabilerak** kirol- eta **aisialdi-ekipamenduko eta zerbitzu publikoentzako ekipamenduko modalitateetan;** horiek landa giroan jartzea beharrezkoa eta egokia denean, eta, aldi berean, erabilera publiko edo **gizarte intereseko arrazoiengatik justifikatzen denean.** (198. artikulua)

– Zerbitzuen azpiegituren erabilerak; horiek landa ingurunean ezartzea beharrezkoa eta egokia bada, eta erabilgarritasun publiko eta soziala duela justifikatzen bada (199. artikulua).

Erabilera debekatuak:

– Gainerako guztiak.

Proiektuan aterpetxea denez onartzen dela ikus daiteke, izan ere ostalaritza eta landetxeak onartzen direla esaten du eta espazio publikoen erabilera ere bai. Hauek udaletxearen ekipamendu publiko izango dira eta gizartearen intereseko behar bat asetzeko asmoz egindakoa da.

F. ESPAZIO LIBREEN SISTEMAK

F.2. Landako espazio libreak

Orokorrean, aisialdirako edo atsedenerako erabiltzen diren espazioak dira;

erabilera orokor horretarako erabiltzen diren lurzoru horietan Udalak titularitate ez duenean, desjabetze bidez lortuko ditu lur horiek.

1. Eraikuntza erregimen orokorra

Baztertua, espazio libreei loturik dagoenean –parkeak– eta behar-beharrezkoa denean izan ezik, eta beti ere Kosta Legeak gaiaren inguruan ezarritakoa betetzen bada.

Ondoren ikusiko da nola Kosta legeak dioena betetzen den eta ez den zor eremuen barnean sartzen.

2. Erabilera erregimen orokorra

Erabilera nagusiak:

– **Espazio libreak.**

– **Komunitatearen ekipamenduko erabilera,** kirol eta **aisialdi modalitateetan eta zerbitzu publikoen modalitateetan,** beti ere horiek jartzea alderdi bakoitzean xedaturik eta xeheaturik badago.

– Hirugarren sektoreko erabilerak, tamaina txikiko aire zabaleko aisialdi erabilera moduan.

– Ura hornitzeko zerbitzuen azpiegituren erabilerak.

– Nekazaritza erabilerak eta basogintza erabilerak.

Erabilera debekatuak:

– Bereziki baimendu gabekoak.

012. artikulua. Kalifikazio xehekatua.

3. Kalifikazio Xehekatuaren sistematizazioa

A. Egoitza erabilerako lurzatiak

A.1. Alde zaharretako egoitza asentamenduen lurzatiak

A.2. Dentsitate intentsiboko egoitza lurzatiak

A.3. Dentsitate ertain/baxuko egoitza lurzatiak

B. Industri erabilerako lurzatiak

B.1. Industri lurzati arruntak

C. Hirugarren sektoreko lurzatiak

C.1. Zehaztu gabeko zerbitzu erabileren lurzatiak

C.2. Administrazio erabileren eta bulegoen lurzatiak

C.3. Merkataritza lurzatiak

E. Komunikazio sistemen lurzatiak

E.1. Bide sareen sistemak

E.1.1. Hiriarteko errepideak, A-8 autopista eta N-634 saihesbidea

E.1.2. Errepide lokalak

E.1.3. Landabideak

E.1.4. Hiribide nagusiak

E.1.5. Bidegorriak

E.1.6. Oinezkoen ibilbideak

E.1.7. Aparkalekuak

E.2. Trenbide sareko sistemaren lurzatiak

E.2.1. Geltokiak eta geralekuak

E.2.2. Burdinbideak

E.3. Portuko sistema orokorraren lurzatiak

E.3.1. Portuko erabilera lurzatiak

E.3.2. Portuetako espazio libreen lurzatiak

E.3.3. Amarratze tradizionalen lurzatiak

F. Espazio libreetako sistema orokorren lurzatiak

F.1. Hiriko espazio libreak

F.1.1. Parke eta lorategien lurzatiak

F.1.2. Jolasguneen lurzatiak

F.1.3. Plazak eta oinezkoentzako espazioak

F.1.4. Espazio libre komunak

F.2. Landako espazio libreak

F.3. Ibai ibilguak - errekek

F.4. Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa eta horri erantsitako zonak.

F.4.1. Senaiak eta bainurako zonak

F.4.2. Itsaslabarrak eta kostaldeko eremu harritsuak

F.4.3. Itsasadarrak

F.4.4. Itsasertzeko pasealekuak

F.4.5. Hondartzetako zerbitzuak

G. Komunitatearen ekipamenduko sistemak

G.1. Zehaztu gabeko komunitatearen ekipamenduko lurzatiak

G.2. Irakaskuntza ekipamenduko lurzatiak

G.3. Kirol ekipamenduko lurzatiak

G.4. Administrazioaren eta erakunde publikoen ekipamenduko lurzatiak

G.5. Osasun eta sorospeneko ekipamendu lurzatiak

G.5.1. Osasun zentroak

G.5.2. Haurtzaindegiak

G.5.3. Askotariko sorospen zentroak

G.6. Ekipamendu soziokultural eta aisialdiko lurzatiak

G.7. Erlijio zentroen lurzatiak

G.8. Zerbitzu publikoen ekipamenduko lurzatiak

G.8.1. Azoka eta merkataritza gune publikoak

G.8.2. Automobil parkeak eta biltegiatzeko parkeak

G.8.3. Hileta ekipamenduak

G.8.4. Posta eta telekomunikazio ekipamenduak

H. Zerbitzuen azpiegiturarako erabileren lurzatiak

H.1. Ur hornidurarako sarea

H.1.1. Ura ponpatzeko estazioak

H.1.2. Ur hornidura erregulatzeko deposituak

H.1.3. Uraren hornidurarako eta banaketarako hodieria

H.1.4. Itziariko edateko uraren tratamendurako estazioa

H.2. Hondakin uren estolderia sarea eta araztegiak

H.2.1. Hondakin ura ponpatzeko estazioak

H.2.2. Estolderia sarea

H.3. Energia elektrikoaren hornidura sarea

H.3.1. Produkzio eta transformazio estazioa

H.3.2. Transformazio zentroa

H.3.3. Elektrizitatearen hornidurarako hodieria

H.4. Telekomunikazioen eta seinaleen sareak

H.4.1. Telekomunikazio antenak

H.4.2. Telefonía zentralak

H.4.3. Faroak eta seinaleak

H.4.4. Telefoniako eta telekomunikazioko hodieria

H.5. Gasaren hornidurarako eta banaketarako sarea

H.5.1. Gasaren ekoizpeneko eta banaketarako zentroa

H.5.2. Gasaren hodieria

019. artikulua. Planeamendua lurzoru hiritarrezinean.

Hiri Antolaketako Arau hauetan berariaz aurreikusitakoez gain, landa ingurunean jarri beharreko erabilera edo interes publikoko eraikuntzak edo instalazioak jartzeko, Debako Udalak eskatu ahal du aurrez plan berezi bat egitea

eta onartzea, Euskadiko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 72. artikuluan aurreikusitako helbururen batekin. Eta hori egin ahal izango du, erabilera horien kokalekuagatik, horien izaeragatik eta dakarten garapenagatik nahiz beste faktore batzuegatik, aholkagarria denean ingurumen eta paisaia aldetiko balioen zein bestelako balioen babes bermatuko duen antolamendu bat aurrez definitzea.

Nahiz eta gaur egun oraindik ere ez dagoen Plan Berezi bat Santa Katalinako gainari buruz, udaletxea horretan lan egiten ari dela jakin da.

1.2.3. ATALA. Kudeaketa erregimena

022. artikulua. Lurzatiketak lurzoru hiritarrezinean.

1. Oro har, lurzoru hiritarrezin moduan sailkatutako finkak banatu edo zatitzeko, aurrez udal lizentzia eskuratu beharko da. Lizentzia hori lortzeko, beste alderdi batzuen artean, arau hauetan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

2. Ezingo da finka banaketarik egin, baldin eta, baimendutako erabilerak eta eraikinak ezartzeko, arau hauetan araututako ekarpen lurzatiaren azaleraren neurria baino neurri txikiagoko finkak sortzen badira. Hala ere, baldintza horietan banandutako zatiak beste finka batzuekin elkartzen badira, eta finka berriek araututako neurriak betetzen badituzte, banaketa horiek egin ahal izango dira.

3. Lurzatiketaren ondoriozko sailek bereziki etenak diren lurrei eragin ahalko diete, beti ere nekazaritza, abeltzaintza eta basoko erabilerekin lotura dutenean.

Bestela, lurzatiak beste erabilera batzuetarako erabiltzen badira, ondoriozko lurzatiek osotasun jarraitu bat osatu beharko dute.

4. 2/2006 Legeko 236. artikuluan eta gainerakoetan xedatutakoa betez, lurzoru hiritarrezinean arau hauetan xedatutakoaren kontra eta arau hauek onartu ondoren egiten diren lurzatiketak eta banaketak burutu gabekotzat hartuko dira, eraikinak eta erabilera baimenduak jartzeko. Beraz, eskatzaileak jatorrizko finka nagusia osorik jarri beharko du, edo hori posible ez bada, aurretik lurzatiketa lizentzia eskatu beharko du, arau hauetan ezarritakoaren arabera.

5. Erregimen berariazko eta xehekatua hirigintza arau hauen 3.7 kapituluan ezarriko da.

Finkako partzela bakarra da eta azpipartzelak bi izango liratezke lehen ikusi dugun bezala, baina gaur egun dena udaletxearen esku dago eta beraz ez da zatiketarik emango.

1.2.5. ATALA. Eraikitze ahalmena erabiltzea.

029. artikulua. Lurzoru hiritarrezinean eraikitze ahalmena erabiltzea.

1. Lurzoru hiritarrezinean eraikinak eta jarduerak jartzeko ahalmena erabiltzeko, arau hauetan, eta, hala badagokio, horien garapenean egingo diren plan berezietan eta 2/2006 Legearen 72. artikuluan xedatutakoa beteko da.

3. Aurreko atalean aipaturiko erabilerez gain beste erabilera batzuk jartzeko prozedurari dagokionez, baldintza hauek bete beharko dira (azaroaren 24ko

82/1998 Dekretua – GAOren abenduaren 4ko 232. zenbakia):

a) Izapidetzea hasteko, Udalari eskabide orria aurkeztu beharko zaio, eta orri horri eraikinaren edo instalazioaren aurreproiektu bat erantsiko zaio. Aurreproiektu horrek, berezko duen edukiaz gain, zehaztapen hauek bildu beharko ditu:

— Eragina jasango duen finkaren egoera eta kokapen planoak, haren azaleraren neurriak barne.

— Erikuntza landa ingurunean jartzeko beharra behar adina justifikatzea.

— Eskatzen den hirigintza justifikazioa, eta horren barnean, arau hauetan ezarritako xedapenak betetzearen balorazio zehatua joango da, bai eta lehendik lurraldean dauden instalazioek eta azpiegiturek jasango dituzten ondorioen balorazioa ere.

Partzela udalaren esku dagoenez gaur ez litzateke hau guztia egin beharko, beraien esku bai dago hau eraikitzea ala ez. Baina beste edozein kasutan pausu hauek jarraitu beharko liratezke eraiki ahal izateko.

053. artikulua. Azalera eraikigarriak kalkulatzeko eta altuerak neurtzeko irizpideak.

2. Azalera eraikigarria kalkulatzeko elementu konputagarriak:

- Azalera erabilgarriak, 1,80 m baino gehiagoko altuera dutenak.
- Eraikinaren elementu trinkoak eta instalazioen eroaleak.
- Aireztapeneko patioak eta barruko patioak, eraikuntza ordenantzek eskatutako tamainarik ez badute.
- Lehenengo sotoa eta erdisotoa.
- Teilatupeak, 1,50 metroko altuera libretik gora.

3. Azalera eraikigarria kalkulatzeko elementu ez konputagarriak:

- Baldintza hauek dituzten arkupeak:
 - Bide publikoaren mailan egotea.
 - Inolako itxiturarik ez izatea, edo erabilera publikokoak izatea. Azkenengo kasuan, jabetza erregistroan dagokion zorpena jasota egon beharko da.
 - Atariak erabilera publikorako beharrezko azalera edukitzea, hots, 3 metroko gutxieneko sakonera.
 - Eraikuntza ordenantzen betekizunak betetzen dituzten barruko patioak.
 - Berariaz baimenduriko eta planeamenduaren eskutik ez konputagarri moduan definituriko goitegiak.
 - Ilogailuak eta instalazioak, irisgarritasunagatik edo arkitektura oztopoak kentzeko, finkatutako eraikinetan horiek sartzea derrigorrezkoa denean.
 - Balkoiak, terrazak eta eguterak, irekiak edo itxiak.
 - Sotoko bigarren solairua eta hurrengoak.

4. Altuerak neurtzea.

- Eraikinen altuera:

Fatxadaren azaleraren gainean neurtuko da bertikalki, eraikinaren lerrokaduraren batez besteko puntutik, fatxadak duen azken solairuaren sabai forjatua- ren barnealdearen mailara.

Teilatuaren plano edo teilategalaren azpiko aldea fatxadaren azalerarekin elkartzen den puntua aipatutako forjatua baino altuera gehiagoko puntu batean dagoenean, altuera gehien duen erreferentzia hartuko da neurketa egiteko.

054. artikulua. Eraikinaren profila ezartzea.

Eraikinaren profila ezartzeko, solairu hauek konputatuko dira:

- Sotoak eta erdisotoak. 5 m baino gehiagoko erdisotoetan, balizko tarteko solairu moduan, azaleraren %30 konputatuko da.
- Beheko solairuak, solairu artekoak, goiko solairuak eta atikoak.
- Teilatupeko solairua.
 - Txapitulak dituzten teilatuak, edo, oro har, etxebizitza erabilerarako indarreko planeamenduak edo udal ordenantzak xedatzen dituzten gutxieneko bizigarritasun baldintzak betetzen dituena.

Proiektuan bi eraikin isolatu daude eta biek izango dute profil berdina: ES+BS+1S. Nahiz eta bien artean topografia aldaketa bat egon.

055. artikulua. Baimendutako gehienezko estalki profila, oro har.

Hiri Antolaketa Arauek eraikinen gehienezko altuera ezartzen duten zonetan, garapenean planeamenduak eta udal ordenantzak beste xedapenik ezarri ez dutenean, baimendutako gehienezko teilatu profila marra baten bitartez kalkulatu da. Marra hori lurzatiaren barrurantz doa, %35eko goranzko maldak dauka eta eraikinaren altuera kalkulatzeko erreferentzia gorenetik edo teilegalaren ertzetik abiatzen da; salbuespen dira arkitektura proiektuan behar bezala justifikatzen diren ekipamendu eta instalazio bereziak.

Proiektuko eraikinek %30eko maldadun teilatua du eta beraz hau beteko da. Gainera, garaiera maximoa ere betetzen da kasu bakoitzean lur puntutik goraino. Hala ere, ekipamendu publiko bat izanik beste soluzio bat ere aukera zitekeen. Proiektuan ingurura moldatzea zenez helburua eta inguruko izaeraren jarraipen bat mantentzea antzeko soluzio bat aukeratu da.

CAPITULO 3.7. SUELO NO URBANIZABLE, RÉGIMEN DE USO DEL SUELO Y EDIFICACIÓN.

136. artikulua.- Eraikitze eta hiritartzeko baldintza orokorrak

1. Kokalekuari buruzko baldintzak.

Orotariko paisaia edo ingurumen eraginak nahiz sor litekeen bestelako ondorio kaltegarriak murriztu eta txikiagotze aldera, Udalak, kasu bakoitzean, honi dagokionez egin daitezkeen proposamenak aldatuz, baimendutako eraikinak kokatzeko baldintzak ezarri ahal izango ditu; baldintza horiek proiektu honetan berriaz eta kasu bakoitzean ezartzen diren osagarri izango dira.

Baldintza horiek bai proiektatutako eraikin berrietan, bai lehendik zeuden eraikin eta instalazioak ordeztzeko, handitzeko... proposamenetan eragina izan dezakete.

Proiektuko eraikina nahiz eta handitze bat izan daitekeen orokorrean eraikin berri bat dela esan daiteke eta beraz honen arauak beteko dira.

2. Eraikin berrien forma, bolumen eta materialei buruzko baldintzak.

- Bolometriari eta itxura orokorrari dagokionez, eraikinak inguruko herri arkitektura onaren adierazgarritzat jotzen diren eraikuntza tradizionaletan oinarrituko dira, eta aukeran aipatu eraikuntzen berezko elementuez eraikiko dira.

- Aipatu eraikuntza tradizionalen oinarritzko ezaugarriak honakoak izango dira: **bolometria soila** eta **bi, hiru edo lau isurkiko estalki inklinatuak,**

%35etik gorako maldarik izan gabe.

Esan bezala, ingurura egokitzen den eraikin bat egitea bilatu da hasiera batetik eta horregatik bistara geratzen diren eraikinak inguruko bolometria eta materialak jarraituko dituzte. Estalkiak ere %30eko bi isurialdetarako teilatuak izanik betetzen da.

Hala ere, eraikinaren zati batzuk erdilurperatuta geratzen dira naturaren jarraipen bat bilatuz, beraz esan daiteke betetzen dela ingurura moldatzearen ideia. Gainera hauek ere material naturalak erabiltzen dituzte.

- Honako hauek hartzen dira landa eraikuntzen berezko elementuzat: **harlanduzko hormak, morterozko emokaduraz edo gabe, antzeko kanpo itxura ematen duten eraikuntzako beste baliabide batzuk, zeramikazko teila estalki inklinatuak, berezko kolorearekin,** edo beste material batez osatuak, antzeko akaberarekin, eta **zurezko arotzeriak.**

Nahiz eta gabioia erabili fatxadan esan daiteke harlangaitzezko itxurara asko hurbiltzen den material bat dela eta beste atal guztiak arauan esaten dutena betetzen dute. Gainera ekipamendu bat izanik egoitza eraikuntza tradizionalatik ezberdintzea ere ondo datorkio.

- Beste tratamendu edo irizpide batzuk ere onartu ahal izango dira, Udalaren iritziz proposamenak onarpena merezi badu, arkitekturaren kalitateagatik eta ingurunean behar bezala txertatzen delako.

- Behin eraikita, etxebizitzarako eraikinak ezingo dira handitu, eta hobetze eta konpontze lanak nahiz eraikin osagarrien eraikuntza nekazaritza eta abeltzaintza zein baso zonetakako xedatutakoaren arabera arautuko dira.

- Eraikuntza berriko esku-hartzeetan, lurzati eta jabetza berean kokatutako **eraikuntzek ingurumenera egokitu** beharko dute.

Proiektuan nahiz eta lur mugimendu dezente egon, topografiara moldatzen dijoan eraikuntza dela esan daiteke.

145. artikulua.- Zuhaitziak babestea.

1.- Debekatuta dago baso autoktonoa botatzea, non eta hobetzeko eta garbitzeko ez bada, edo jarduera hori ustiapen eta mantentze plan baten barnean ez badago. Horiek egiteko, dagokion Foru Aldundiko departamentuak emandako berriazko baimena beharko da, eta baita lurraren balizko higadura eragoztearren hartu beharreko neurriak ere; horretarako, Gipuzkoako Mendiei buruzko urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauan (GAO, 204. zenbakiduna, urriaren 26koa) zehaztutako baimenak, izapideak eta baldintzak hartuko dira kontuan.

Debeku hori berdin bete beharko da, baldintza beretan, ubide publikoetako ertz eta erriberetako zuhaitzi eta zuhaixkekin.

Beti ere, natura zaintzeko proiektua izanik, zuhaitzak mantendu egin dira eta proiektuan integratu dira. Hau gutxi balitz, kasu batzuetan proiektuko eraikinaren forma baldintzatzen lagundu du patioak sortuz eta argi naturala sartzeko aprobetxatuz.

2.- Zuhaitzen bati eragiten dioten obrak egiteko lizentziak eskatzen badira, hori eskaeran eta dagokion dokumentazioan adieraziko da, eta Udaleko zerbitzu teknikoek ezartzen dituzten babes neurriak hartu beharko dira. Desagertzea dakarten kalteak gertatuz gero, birjartze bikoitza izango da gutxie-

neko neurria. Era berean, kalte ordainak exijitu ahal izango dira zuhaitza edo zuhaitzak publikoak badira, ordenantza hauetako 192. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

3.Gipuzkoako Foru Aldundiko 4/1990 Foru Dekretuaren arabera, babestuta daude, interes bereziko espezie kategoriaz, honako flora espezie hauek: hagina (*Taxus baccata* L.); artelatza (*Quercus suber* L.); ametz ilaunduna (*Quercus pubescens* Willd.); sagarina (*Malus sylvestris* L.); udareondoa (*Pyrus communis* L.); oilarana (*Prunus mahaleb* Mill); ihar frantsesa (*Acer monspessulanum* L.); otsalzarra (*Sorbus aucuparia* L.); hostazuria (*Sorbus aria* Crantz); mazpila (*Sorbus torminalis* Crantz); gorostia (*Ilex aquifolium* L.).

Ez dago baimenduta horiek moztea. Zerrenda horrek ez ditu gainerako espezieak baztertzeko, eta gerora onartzen diren dekretu edo foru arauetan azaltzen diren beste espezie batzuk ere sartu ahal izango dira.

147. artikulua.- Ingurunea begien bistatik babesa, errepide eta bideetatik.

1.- Eraikitzeo aukerak bereziki murrizteko arrazoia izan daiteke, Udalak hala erabakiz gero.

2.- Itxituren eta hesien altuerak mugatu ahal izango dira, horretarako material egoki jakin batzuen erabilera ere xedatu ahal izango da, bai eta zuhaitzen landaketa debekatu edo hori egitera behartu ere, zer nagusitzen den: ingurua ikusteko aukera ematea edo eragozte.

Ingurune guztitik ikusten den eraikina iznaik honek baldintza lezake. Baina ekipamendi bat izanik urrutitik ikusten den zerbait izateak laguntzen du erroresak bideratzen. Gainera, betiere naturan txertatutako eraikina izanik ez du gehiegi destakatuko.

3.7.4. ATALA. Erabileren eta eraikuntzaren arautze espezifikoa lurzoru hiritarrezinaren antolaketa kategorietan

159.4.2. HOBETU ETA LEHENERATU BEHARREKO ALDERDIAK.

VI. ATALA.- Nekazaritza eta abelazkuntzako landazabaleko zona.

179. artikulua.- Helburuak.

Lur hauetan nekazaritza eta abelazkuntza erabilerak bultzatuko dira, bai eta, erabilera horiekin eta eremuko ingurumen balioekin bateragarri izanda, jarduera ekonomikoa dibertsifikatzea eta dauden ustiapenetako errentakosatzea ahalbidetuko duten gainerako jarduerak ere.

180. artikulua.- Onartutako jarduketak eta erabilerak

- Baserri edo ustiapen unitate berriak nekazaritza eta abelazkuntzako landazabaleko zonan.

- Lehendik dauden baserri edo ustiapen unitateak.

- **Hondatuta dauden eraikinak berreraikitzea.**

- Lehendik martxan dagoen ustiapenean etxebizitzarako eraikin berria egitea.

- Ustiapenari lotuta egon gabe dauden etxebizitzak.

- Abelazkuntzako ustiapen arruntari edo estentsiboari lotutako instalazio eta eraikinak.

- Granjak eta abelazkuntzako ustiapen intentsiboak.

- Zura manipulatu edo eraldatzeko jarduerak hartuko dituzten eraikin

edo instalazioak.

- Abelazkuntza erabilera profesionalizatu gabeak.
- Baratzei lotutako eraikuntzak, txabolak.
- Behartutako nekazaritza unitateak. Berotegiak.
- Eskuz egindako elikadura jarduerak eta eskulangintza.
- **Landa turismoko establezimenduak.**
- **Merkataritza eta ostalaritza erabilerak.**
- **Herri onurako edo gizarte intereseko erabileren ezarpena.**
- Herri lanak gauzatzeari eta horien mantentze lanei zein zerbitzuei lotutako erabilerak ezartzea.
- Erauzketa erabilerak.

193. artikulua.- Landa turismoko establezimenduak.

Landa turismoko establezimendutzat hartzen dira 128/1996 Dekretua aldatzen duen Eusko Jaurlaritzaren irailaren 23ko 210/1997 Dekretuan (urriaren 13ko 195 zenbakiko EAeko Aldizkari Ofiziala) araututa daudenak.

194. artikulua.- Merkataritza eta ostalaritza erabilerak.

Lehendik dauden baserrietan, bai eta ustiapenari lotu gabeko etxebizitza eraikinetan ere, merkataritza txikiko jarduerak ezartzea onartuko da oro har, hala nola tabernak, jatetxeak, sagardotegiak eta mota guztietako ostalaritza erabilerak, honako baldintza hauekin:

a) Eraikinak sarbidea izan beharko du errepide eta bideen udal saretik, eta Udalak beharrezko hobekuntza lanak egitera behartu ahal izango du, kasuan kasuko erabilerak sortutako beharren arabera.

b) Udalak kasu bakoitzean ebaluatuko du proposatzen diren erabileren zehatzen bideragarritasuna; era berean, neurri zuzentzaileak ezarri ahal izango ditu, bai eta baimena ukatu ere, ingurumen, zirkulazio edo zarata arazoengatik, ezinezkoa bada irtenbide egokia ematea aparkaleku beharrei, edo metaketa ondorioak eragozteko.

c) Kasu bakoitzean, jarduera erakunde eskudunen kontrolpean egongo da.

Proiektuan erabileraren barne sartzen den programako zati bat izanik eraikin berri batean sartzen da. Hala ere, horrelako erabileradun eraikin batean beharrezkoa eta bideragarria dela uste da. Bidea izango du ateraino eta aparkalekua ere planteatu da eraikinetik 100m ingurura nahiz eta irisgarria den ateraino.

VIII. ATALA. Sistema Orokorren Zona.

24 SO. Santa Katalinako aldiriko parkea.

1. ERANSKINA

DEBAKO UDALERRIKO "KULTUR ETA NATUR INTERESEKO ERAIKITAKO" ONDAREAREN KATALOGOA.

3. KATALOGATUTAKO ERAIKINEN ETA ELEMENTUEN ZERRENDA

3.2 Ondare eraikia eta hiritartua.

1. EAeko Autonomia Erkidegoak izendatuta edo izendapena abiarazita dauzkan ondasun higiezinak.

1.1. Izendatutako edo izendapena abiarazita daukaten monumentu-multzoak.

DONE JAKUE BIDEA*

Done Jakue bidea babestuta dagoen monumentu multzoa da eta gure orubeko elementuak bertan artzen direla ikus daiteke jarraian. Beraz, ondoren ikusiko den Santiago bidearen babes mailak definitutako babes minimoa edukiko dute proiektua garatzerakoan kontutan izan dena.

Oinarrizko babesa:

14. * San Roke ermita.

22. * Santa Katalina ermita.

4. Euskal Autonomia Erkidegoak presuntzio arkeologikotzat hartutako inguru arkeologikoak.*

33. Ermita Santa Catalina (B)

Hemen ikusi dezakegu arau subsidiarioak Santa Katalina babesguneari dagokion ordenazio fitxa gaur egun eta ondoren proiektua eraiki ahal izateko egin beharko diren aldaketak.

SANTA KATALINA BABESGUNEAREN ANTOLAMENDU FITXA

HIRIGINTZA FITXA. - 24 SO. SANTA KATALINA ALDIRIKO PARKEA

HIRITARREZINA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

Debako Udalaren hitzarmena, 2002ko abenduaren 27koa, Santa Katalina finka Debako Udaren jabetzakoa bihurtu zuena (ikus 2. dokumentua: Antolamendu Memoria, 9. kapitulu).

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarrezina.
- 2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Landako espazio libreen sistema orokorra (11. artikulua: F.2).
- 2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : 89.264 m²

3 . PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Eremua herritarren aisialdiari begira antolatuko da, pasaiaren behatoki bikain eta aparteko gisa ulerturik, eta Santiago Bidearen funtsezko osagai moduan, Itziarko santutegiaren eta Santa Maria elizaren artean.

4. KUDEAKETA.

Sistema orokorra garatzeko plan berezia. Gutxienez hiru Hirigintzako Esku-hartze Alderdi (HEA) zehaztu beharko ditu:

- 1 HEA. Santa Katalina multzoa.
- 2 HEA. Ingurumena lehenera ekartzea.
- 3 HEA. Ekipamendu epeduna.

5. LURRALDE KATEGORIZAZIOA. Lurzoru hiritarrezina: espazio libreen sistema orokorra.

6. ESPAZIO LIBREEN APLIKAZIO ERREGIMENA.

6.1. Eraikuntza erregimena.

Lurzoru kategoria honetan, funtsezko helburua herritarren aisialdi eta olgeta intentsiborako eremuak antolatzea da. Eraikuntza apaingarriak eta espazio libreen erabilera osagarrietarako eta Egiako bizilagunen premiei erantzuteko eraikuntza finko edo behin-behinekoak bakarrik baimenduko dira, eta baita lurpean dagozkien azpiegiturak jartzea ere. Santiago Bideari lotutako erabilereen baitan, erromesentzako aterpetxeak baimenduko dira.

1 HEA. Santa Katalina multzoa: eraikuntza finkatua:	Solairuan hardaitekeen	Solairu estalgarria
	Azalera m ²	m ²
ermita	60	60
aterpea	130	130
baserria	140	350

3 HEA. Ekipamendu epeduna:

Erromesentzako aterpetxea 400 800

Onartutako gehieneko profila:

Santa Katalina multzoa: BS+1+EP
Ekipamendu epeduna: ES+BS+1+EP

Zorutik teiltategalerako altuera:

Santa Katalina multzoa: 7 metro.
Ekipamendu epeduna: 7-10 metro.

6.2. Erabilera erregimena.

Publikoa.

Erabilera bultzatuak: Espazio libreen erabilerak, horien osagarriak barne.

Erabilera onargarriak: Aisia estentsiboa eta intentsiboa.
Aldi baterako edo behin-behineko lehen mailako merkatariak erabilerak –kioskoak, txosnak eta abar–.
Ekipamendu erabilerak espazio librearekin bateragarriak diren modalitateetan.
Zerbitzu azpiegiturak.
Santiago Bideari lotutako erabilerak.

Erabilera debekatuak: Aurreko modalitateetatik ezeinetan sartu gabekoak, aurreko titularraren etxebizitza izan ezik, sinatutako hitzarmenari lotuz.

6.3. Jabari erregimena: Titularitate publikoa.

6.4. Berariazko aplikazio erregimena:

Urriaren 18ko 406/1994 Dekretua, aterpetxeak antolatzeari buruzkoa.

Aurreko Dekretua garatzen duen 1997ko azaroaren 12ko Agindua.

6.5. Jarduketa sistema (handitzerik eginez gero).

Desjabetzea.


Debako arau subsidiarioen
BERRIKUSPENA
REVISION
de las normas subsidiarias
de DEBA.



DEBAko UDALA


S.G.24
PARQUE PERIFERICO
SANTA CATALINA

S.G.24




ESTADO ACTUAL.

ESCALA 1:4.000



SUPERPOSICION ORDENACION / ESTADO ACTUAL.

ESCALA 1:4.000



ORDENACION.

ESCALA 1:4.000

FITXAREN ALDAKETA

HIRIGINTZA FITXA.- 24 SO. SANTA KATALINA ALDIRIKO PARKEA

HIRITARREZINA

**Honen barruan hainbat erabilera onartzen dira. Horien artean Santiago bideari lotutako aterpetxe bat.*

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

Debako Udalaren hitzarmena, 2002ko abenduaren 27koa, Santa Katalina finka Debako Udalaren jabetzakoa bihurtu zuena (ikus 2. dokumentua: Antolamendu Memoria, 9. kapitulua).

** Debako Santa Katalinako lurretan jarduketak egiteko hirigintza hitzarmena (29 SO) egin zen jabetza eta udalaren artean, 3 partzelaz osatutako finka udalaren eskutara pasaz.*

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarrezina. *Erabilera onartuen artean aterpetxea baimentzen da.*

2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Landako espazio libreen sistema orokorra (11. artikulua: F.2).

2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : 89.264 m². *Partzelak (54) 63.468 m²*

3 . PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Eremua herritarren aisialdiari begira antolatuko da, pasaiaren behatoki bikain eta aparteko gisa ulerturik, eta Santiago Bidearen funtsezko osagai moduan, Itziarko santutegiaren eta Santa Maria elizaren artean.

4. KUDEAKETA.

Sistema orokorra garatzeko plan berezia. Gutxienez hiru Hirigintzako Esku-hartze Alderdi (HEA) zehaztu beharko ditu:

1 HEA. Santa Katalina multzoa.

2 HEA. Ingurumena lehenera ekartzea.

3 HEA. Ekipamendua.

5. LURRALDE KATEGORIZAZIOA. Lurzoru hiritarrezina: espazio libreen sistema orokorra.

6. ESPAZIO LIBREEN APLIKAZIO ERREGIMENA.

6.1. Eraikuntza erregimena.

Lurzoru kategoria honetan, funtsezko helburua herritarren aisialdi eta olgeta intentsiborako eremuak antolatzea da. Eraikuntza apaingarriak eta espazio libreen erabilera osagarrietarako eta Egiako bizilagunen premiei erantzuteko eraikuntza finko edo behin-behinekoak bakarrik baimenduko dira, eta baita lurpean dagozkien azpiegiturak jartzea ere. **Santiago Bideari lotutako erabileren baitan, erromesentzako aterpetxeak baimenduko dira.**

1 HEA. Santa Katalina multzoa: eraikuntza finkatua:	Solairuan har daitekeen Azalera m ²	Solairu estalgarria m ²
ermita	60	60
aterpea	130	130
baserria	140	350

3 HEA. Ekipamendu epeduna:

Erromesentzako aterpetxea 600 2000

** 50 pertsonarentzako aterpetxeko programa minimoa sartzeko, orubearen izaera kontutan izanda azalera handiagoak beharrezkoak dira eta aldaketa hauek burutu dira ekipamendu berrirako.*

Onartutako gehieneko profila: Santa Katalina multzoa: BS+1+EP

Ekipamendua: ES+BS+1+EP

Zorutik teiltategalerako altuera: Santa Katalina multzoa: 7 metro.

Ekipamendua: 15 metro gehienez.

** Kasu guztietan aterpetxea osatzen duten eraikin zatiak ekipamenduaren barruan sartuko dira. Proiektuan, harrera gunea baselizaren horma zaharren kontra eraikitzen da, baina hau ez da santa katalina multzoa kontsideratuko, ekipamenduaren parte bai da.*

6.2. Erabilera erregimena.

Publikoa.

Erabilera bultzatuak: Espazio libreen erabilerak, horien osagarriak barne.
Aisia estentsiboa eta intentsiboa.

Erabilera onargarriak: Aldi baterako edo behin-behineko lehen mailako merkataritza erabilerak –kioskoak, txosnak eta abar–.
Ekipamendu erabilerak espazio librearekin bateragarriak diren modalitateetan.
Zerbitzu azpiegiturak.
Santiago Bideari lotutako erabilerak.

** Inguruko analisia egin ondoren hainbat aspekturengatik aterpetxe batentzat leku oso aproposa dela ikusi da eta beraz azken hau erabilera bultzatu bezala trata daiteke.*

Erabilera debekatuak: Aurreko modalitateetatik ezeinetan sartu gabekoak, aurreko titularraren etxebizitza izan ezik, sinatutako hitzarmenari lotuz.

6.3. Jabari erregimena: Titularitate publikoa.

** Aurretik aipatutako hitzarmenak dioen bezala udalaren jabetzakoa da.*

6.4. Berriazko aplikazio erregimena:

Urriaren 18ko 406/1994 Dekretua, aterpetxeak antolatzeari buruzkoa. Aurreko Dekretua garatzen duen 1997ko azaroaren 12ko Agindua.

6.5. Jarduketa sistema (handitserik eginez gero).

Desjabetzea.

** Udalak eraikitako ekipamendua izanik, honen eraikuntzak ez du partzelan aldaketarik eragiten.*


02

KOSTA LEGEA

Kostako legearen zor eremu ezberdinetan ikus daiteke nola gure eremua guztiz kanpo geratzen den eta beraz lege honetan behintzat ez dela arazorik egongo.

Zor eremu hauetako bakoitzak baldintza ezberdinak dituen arren guk proiektuan ez dugu hauetako bat ere kontuan izan beharko:

- Servidumbre de Proteccion
- Dominio Publico Maritimo Terrestre aprobado
- Rivera del Mar



KOSTA LEGEAREN ZOR EREMUAK
E:1/2500

03

SANTIAGO BIDEAREN DEKRETUA

Santiago bideari dagokion dekretua justifikatuko da ondoren gure erabilera berriari dagokion legea justifikatzeko asmoz. Bertan gure zonaldearen plano agertuko da eta orubeko elementuei dagokion justifikapena babes mailaren arabera definitua.

DECRETO 2/2012, DE 10 DE ENERO

DECRETO 2/2012, de 10 de enero, por el que se califica como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, el Camino de Santiago a su paso por la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Mediante Decreto 2224/1962 de 5 de septiembre (BOE n.º 215, de 7 de septiembre) fue declarado conjunto histórico-artístico el Camino de Santiago, sin que se documentara gráficamente el recorrido del mismo.

Hasieran Debako tramoari buruzko deskribapena ikusiko dugu:

El siguiente municipio del recorrido es Zarautz. Antes de entrar en el casco histórico, pasa junto al caserío Agirrebekoa y por la trasera del convento de los franciscanos. Tras atravesar el centro de la población, toma la cuesta de Aldapeta, por la antigua calzada que unía Zarautz con Getaria, pasa cerca de la ermita de Santa Barbara y, tras dejar atrás la calzada, continúa hacia Getaria.

Se abandona la villa de Getaria transitando por la calzada de Askizu, hasta llegar a los caseríos Gaintza y Agerregitxiki y de allí al caserío Azti, alcanzado el camino que directamente sube al barrio Askizu donde está ubicada la iglesia de San Martín. En este paraje, antes de llegar a Zumaia, se cruza delante del caserío Arano. En el descenso hacia Zumaia, a través de una zona arbolada, la ruta discurre por un paseo hasta el museo Zuloaga y la ermita de Santiago, llegando a un puente peatonal sobre el río Urola. Desde este lugar, después de salvar la regata de Narrondo por otro puente peatonal, se asciende al casco urbano de Zumaia.

Sale el Camino de Santiago de Zumaia subiendo por las calles Sorazu y Arritokieta, para alcanzar la ermita del mismo nombre y el cementerio. Ya en Deba atravesamos el núcleo de Elorriaga donde se alza la ermita de San Sebastián. Recorre una zona agrícola en la que encontramos los caseríos del barrio Mardari, en el municipio de Deba, entre los que destaca el caserío Zubeltzuzar y la venta Santuaran, algo alejados del casco rural Mardari. Superado el caserío Usaberatza se accede al alto de Itziar donde destaca la iglesia de Nuestra Señora. El Camino continúa por la ermita de San Roque, hasta llegar al casco histórico de Deba.

Nahiz eta hemen Santa Katalina gaina ez den aipatzen (Kostako bidea erreallitatean ez da bertatik pasatzen) erromes askok bidetik desbideraketa egiten dute bertara hurbildu eta geldialdi bat egiteko.

Ondoren dekretuak gure elementuei eta zonaldeari dagokion informazioa azalduko da gure interbentzioaren justifikazioa gehituz.

CAPÍTULO IV CONJUNTOS MONUMENTALES E INMUEBLES AFECTOS AL CAMINO

SECCIÓN 1.ª CUESTIONES PREVIAS

Artículo 22.– Grado de protección.

Para los conjuntos monumentales y los inmuebles afectos al Conjunto Monumental del Camino de Santiago, además de las prescripciones generales contenidas en el Capítulo I, se determinan los siguientes niveles de protección:

- Protección especial.
- Protección media.
- Protección básica.

Artículo 23.– Entorno de protección.

23.1.– Para los bienes de protección especial y media afectos al Camino se establece un entorno de protección de 15 metros, que afectará al propio bien y a los espacios libres circundantes.

23.2.– Los conjuntos monumentales señalados en el listado 3 del anexo IV poseerán además un ámbito de protección que se corresponde con el grafiado en los planos recogidos en el anexo II.

23.3.– Los bienes con protección básica no dispondrán de entorno de protección.

Eremuko eraikuntzak babes basikoa dutela ikusiko da ondoren.

SECCIÓN 4.ª PROTECCIÓN BÁSICA

Lehenengo, IV. eranskinean atal honen barnean sartzen diren elementuak aipatuko dira gure eremuko ermita hemen sartzen dela ikusteko. Listako gipuzkoako elementuak soilik hartu dira.

Listado 3.3.– Protección básica.
Camino de la Costa. Gipuzkoa.

- 110. Ermita de Santa Engracia (Hondarribia).
- 115. Ermita de Santiagotxo y 195. Frontón junto a la ermita de Santiagotxo (Hondarribia).
- 278. Antigua ermita de Santa Magdalena (Hondarribia).
- 1264. Caserío Amezti Zahar (Donostia-San Sebastián).
- 7. Ermita de San Pablo (Aia).
- 40. Casa Martin Portu (Aia).
- 35. Caserío Altzibar (Aia).
- 56. Ermita de San Martin de Ibañeta (Zarautz).
- 16. Ermita de Santa Bárbara (Zarautz).
- 17. Ermita de San Prudencio (Getaria).
- 134. Venta de Askizu (Getaria).
- 11. Ermita de San Telmo (Zumaia).
- 14. Ermita de San Roque (Deba).
- 22. Ermita de Santa Catalina en Egia (Deba).**
- 2. Ermita de la Santa Cruz (Deba).

- 30. Caserío Sindika y frontón (Deba).
- 61. Frontón de Itziar (Deba).
- 52. Hospital de Sasiola (Deba).
- 88. Lonja de Maxpe (Deba).
- 32. Torre de Astigarribia (Mutriku).
- 16. Ermita del Santa Cruz del Calvario (Mutriku).
- 11. Ermita de San Isidro de Olatz (Mutriku).

Artículo 30.– Objeto de la protección básica.

Se considerarán elementos objeto de protección básica los que, sin tener valores individuales que permitan su inclusión en los niveles de protección referidos con anterioridad, forman parte inequívoca del patrimonio edificado afecto al Conjunto Monumental del Camino de Santiago por cumplir con alguna de las condiciones siguientes:

a) No poseyendo valores arquitectónicos, históricos o artísticos relevantes, se reconoce que procede su consolidación como parte interesante del patrimonio edificado desde el punto de vista tipológico o ambiental, careciendo de interés suficiente como para ser incluidos en el nivel medio de protección para el que se prevén obras de restauración.

b) Poseyendo valores arquitectónicos históricos o artísticos relevantes no pueden encuadrarse las intervenciones para su recuperación dentro de las tipificadas para los elementos de niveles de protección superiores.

Artículo 31.– Prescripciones de los elementos incluidos en el nivel de protección básica.

31.1.– El derribo total o parcial de los inmuebles incluidos en este nivel de protección se someterá a lo dispuesto en el artículo 36 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco y al Decreto 306/1998, de 10 de noviembre, sobre la declaración de estado ruinoso de los bienes culturales calificados y de los inventariados, y actuaciones previas y posteriores a la resolución sobre el derribo de los mismos.

31.2.– En toda obra o intervención que afecte a estos edificios, se deberá mantener la imagen exterior del inmueble, su configuración volumétrica y alineaciones, así como la tipología estructural básica, con mantenimiento del material genérico de la estructura.

31.3.– Las intervenciones autorizadas en estos edificios, además de las incluidas en los niveles superiores de protección, serán las reflejadas en el Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de Rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado del Gobierno Vasco para el tipo de intervención constructiva denominado Consolidación, así como las intervenciones de Conservación y Ornato y las de Reforma tipo a).

Edozein dela kasua ere proiektuan nahiz eta integratu egin den ermita, ez da ikutu ezta eraikin berrira lotu ere. Beraz legea betetzen da.

Artículo 32.– Listado de elementos protección básica.


En el ámbito del Conjunto Monumental del Camino de Santiago, se incluyen en este nivel de protección básica, los inmuebles y elementos del Listado 3.3 del anexo IV del presente régimen de protección.

Artículo 33.- Determinaciones.


Aquellos inmuebles afectos al Conjunto Monumental del Camino de Santiago de los que tan solo queden algunos elementos murarios y/o estructuras puntuales que no hayan sido recogidos en ninguno de los niveles de protección anteriormente explicitados, se verán protegidos genéricamente contra el derribo y su desaparición por el articulado general del presente régimen de protección.

33.1.- En los inmuebles que se consideran incluidos en las condiciones citadas en el epígrafe anterior, se permitirán exclusivamente actuaciones conducentes a la consolidación de los restos existentes, evitando su desaparición y previa obligación de efectuar un adecuado estudio arqueológico de los restos pervivientes.

Hemen uler daiteke baselizaren horman ezin dela intebentziorik egin honen eraisketa edo eraldaketa eragingo duena. Hau horrela izanik, proiektuna nahiz eta harrera gune nagusia hona lotzen den ez da fisikoki pegatuko eta beraz ez du eraginik izango ia.



<p>ESKALA / ESCALA</p> <p>440 220 0 440 Meters</p>			<p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>KULTURA SAILA Kultura Ondasunen Zuzendaritza Kultura Ondasunen Zentroa</p> <p>DEPARTAMENTO DE CULTURA Dirección de Patrimonio Cultural Centro de Patrimonio Cultural</p>
<p>Planoa / Plano: C10 DONE JAKUE BIDEA / CAMINO DE SANTIAGO</p> <p>■ ■ ■ ■ ■</p>		<p>Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA</p> <p>Udalerría / Municipio: DEBA</p>	<p>Data / Fecha: 19/12/2011</p> <p>Eskala / Escala: 1:20.000</p>



NATURALISTICO

- E.P.1 A.I.N.1 LITORAL RASA MAREAL.
FRANJA COSTERA PLAYA LAPARI-ITZURUN.
- E.P.2 A.I.N.2 CASA CAMPO- MEANDROS ARZABAL.
- A.I.N.2 ENTORNO CUEVAS ERMITA.
- A.I.N.3 MACIZO IZARRAITZ-ANDUTZ-CRESTERIO LASTUR.
unidad morfológica con Arno- Haranerreka
COMPRENDE ENTORNO CUEVAS EKAIN y URTEAGA.

HISTORICO-ARQUITECTONICO

1. CASA BUSTINZURI.
2. ERMITA DE LA SANTA CRUZ.
3. FUENTE ERMITA CRUZ.
4. LAVADERO BELIOSORO.
5. TORRE DE SASIOLA.
6. CASA CONSISTORIAL.
7. TORRE DE IRIBE.
8. PALACIO AGIRRE.
9. IGLESIA DE SANTA MARÍA LA REAL.
10. ERMITA DE SAN NICOLAS.
11. SAN SEBASTIÁN DE ELORRIAGA.
12. MONASTERIO DE SASIOLA.
13. CASA MEDIEVAL.
14. ERMITA DE SAN ROQUE.
15. ERMITA DEL SALVADOR.
16. CASA PARROQUIAL.
17. CASA AYUNTO.
18. IGLESIA DE NUESTRA SEÑORA DE ITZIAR.
19. CASA DE BAÑEZ.
20. CASA ALDAZABAL- MURGUIA.
21. CASA ARIZAGA.
22. ERMITA DE SANTA CATALINA.
23. CASERIO OLAZÁBAL AZPIKOA .
24. CASERIO MIRAFLORES.
25. CASERIO ALDAZABAL.
26. CASERIO LEIZAOLA TORREA.
27. CASERIO ARRIOLA BEÑA.
28. CASERIO OLAZÁBAL ZAHAR.
29. CASERIO MURGI.
30. CASERIO SINDIKA.
31. MERCADO MUNICIPAL.
32. CASINO.
33. LAVADERO ARTZABAL.
34. ERMITA SAN MARTIN.
35. CONJUNTO ESCULTORICO DE JORGE OTEIZA.
36. CONJUNTO ESCULTORICO DE KOLDOBIKA JAUREGI.
37. CONJUNTO ESCULTORICO DE LA ESCUELA DE ARTE.
38. CONJUNTO ESCULTORICO "GUDARIS".
39. ESTACIÓN DE FERROCARRIL. BILBAO-DONOSTIA.
40. CASA CAMINEROS.
41. FERRERIA Y MOLINO GOIKOLA.
42. MOLINO LASTUR GOIKOA.
43. MOLINO LASTUR BEHEKOA.
44. MOLINO ANDUZPE.
45. PUENTE DEBA.
46. PUENTE SASIOLA.
47. PUENTE GASTAÑEGUI.
48. CASA ITURKALE, 28.
49. CASA GALTZADA, 3.
50. CEMENTERIO MUNICIPAL DE DEBA.
Panteon Lersundi
Panteon Andonegi-Kerejeta
Panteon Salegi
51. HOSPITAL DE SASIOLA.
52. CALZADA DE ACCESO A SAN ROKE, PICOTAS, CAUCES Y FUENTES.
53. CONJUNTO CIUDAD JARDIN PLAYA.
Primera y segunda linea

Debako arau subsidiarioen berrikuspena.
revisión de las normas subsidiarias de Deba.

TEXTU BATERATUA
TEXTU REFUNDIDO

eragilea:
promotor:



talde egilea:



abokatuak:

Juan Landa
EKAIN S.L.

eskala:
1/15.000

ANTOLAMENDUA
hondare eraikuntza
historiko-arkitektonikoen
eta naturalistiko katalogazioa

ORDENACION
catalogación del patrimonio
edificado histórico-arquitectónico
naturalístico

plano nº
4.15
planoa

04

EUSKAL ATERPETXEEN DEKRETUA

Aterpetxeei dagokienez, aurreko Santiago bidearen dekretuak ez du ezer aipatzen, eta beraz Euskal Herriko Boletín Ofizialak ateratako 406/1994 Dekretua, haur eta gazteen egonaldietarako aterpetxeei buruzkoa, aztertuko dugu.

Nahiz eta zuzenean erromesen egonaldietarako aterpetxeei buruz ez izan, proiektuan proposatzen den aterpetxean beste erabiltzaile mota bat ere egon daitekeela suposatuz (nahiz eta lehentasuna erromesek izan) hau justifikatuko dugu.

406/1994 DEKRETUA, URRIAREN 18KOA

406/1994 DEKRETUA, urriaren 18koa, haur eta gazte taldeen alojamendu eta egonaldietarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa.

Hainbat taldek eta elkartek haur eta gazteentzako antolatzen dituzten ihardueretako asko ohizko bizitokietatik at burutzen dira eta, beraz, ostaturako eta alojamendurako lekuak behar izaten dira etxetik kanpo egindako egonaldiak era egokian egin daitezten. Edozein hiritarrek haur eta gazte taldeek etxetik kanpo egiten dituzten egonaldietan gutxieneko baldintza eta eskaintza batzuk izan daitezten bermatzea beharrezkoa da.

1. atala.– Honen bitartez ezartzen diren baldintzak eta horiek garatzeko diren arau guztiak beterik dituztela, «Albergue e Instalación de estancia para Grupos Infantiles y Juveniles–Haur eta Gazte Taldeen Egonaldietarako Instalakuntza eta Aterpetxea» delako izendapen ofiziala eskuratzen duten instalakuntzak antolatzea da Dekretu honen xedea, era horretara, gutxienez errespetatu beharreko segurtasun eta garbitasun betebeharrak batzuk instalakuntza horiek erabiltzen dituzten guztientzat bermatuta gera daitezten.

Egoitza horietan noizean behin beste talde batzuek antolatutako iharduera kultural zein sozialak ezin burutu daitezkeenik ez du esan nahi, edo norbanakoei ostaturik ezin eman dakiekeenik, aterpetxeak erabiltzeko baimendun edo haur zein gazte elkarteren bateko partaide direla erakutsiz gero.

Azken honetan Santiago bideko erromesen ostaldea ahalbidetzen dela ikus daiteke.

5. atala.– 1.– «Albergue e Instalación de Estancia para Grupos Infantiles y Juveniles–Haur eta Gazte Taldeen Egonaldietarako Instalakuntza eta Aterpetxea» izendapen ofiziala lortu nahi duten egoitzetan, establezimendu publiko izateagatik alor horri berariaz dagokionez errespetatu beharreko beste araudi batzuek gainera, ondorengo gai hauek direla eta, ezarritako araudia errespetatu beharko dute zehatz-mehatz:

- a) Elikagaietarako eta osasun–garbitasun arlorako baita ur eta hondakinietarako ere trataera eta instalakuntza egokiak izatea.
- b) Era guztietako energia banaketarako instalakuntzak.
- c) Suteei aurrea hartzeko eta aurre egiteko neurriak, bai egoitza barruan, bai kanpoko aldean suteetatik babesteko esparruak edukiz.

Puntu hauek beteko dira eta suteen nahiz energiari buruzko atalak instalakuntzetan garatuko dira.

2.– Era berean, beharrezkoa izango da egoitzak honako hauek ere edukitzea:

- a) Zuzeneko ur–hornidura.

- b) Instalakuntzaraino bertaraino heltzeko moduko bide egokia.
- c) Ongi ikusteko moduko seinaleztapena, estetikaz inguruari ere ondo dagokiona.
- d) Zenbait gela elkarrengandik ondo bereiztuta: logelak, jantokia, sukaldea eta komunak.
- e) Larrialdietarako premiazko sendagai–botikina.
- f) Instalakuntzarenak berarenak diren atsedentokiak, ahal dela, barruko aldean eta kanpoan.
- g) Etxea berotzeko sistema egokia.

Zerbitzuak ez dira sare orokorretik iritsiko baina zuzeneko hornidura izango dute sistema independente bitartez. Gainera, irisgarritasuna aldatu da eta bertara iristeko aukera egokia dago. Azkenik, distribuzioa bi eraikinetan egin da banatu neharreko estantzia separatuz eta tarteetan atsedentokiak sortuz.

6. atala.– Era berean, elbarrituentzako oztopo arkitektonikoak ken daitezten egoitzak errespetatu behar dituen gainerako araudiez gainera, instalakuntza guztietan honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Kanpoko aldetik beheko solairura sartzeko modua izatea, aldapen bidez eta ateei nahikoa zabalera emanaz.
- b) Bai beheko solairuan baita logela inguruan ere, elbarrituen beharri-zanetara egokiturik prestatutako dutxa eta komun kopuru nahikoa.

Hau beteko da eraikinaren kasu guztietan eta baita iritsieran ere.

IDEIAREN JATORRIA

01

INGURUKO BALDINTZAK

Master hasieran hainbat ideiari buelta ematen ibili ondoren, aukeratutako zonaldearen inguruko baldintza hauek proiektuaren justifikapena guztiz betetzen zutela iruditu zitzaidan. Beraz, ideia jatorri nagusia inguruaren baldintzetan oinarritzen dela esan daiteke.

Hauen barruan aipatzekoak dira zonaldearen paisaia paregabea, bertako gaur egungo egoera eta honi mamia ateratzeko aukera, zonaldearen finta-suna, ibilbide maiztasuna, etab.

Lehen eremuaren deskribapenean ikus daiteke orubeak zein ikusmira izugarriak dituen eta baita hau leku guztietatik ikusteko aukera ere. Honek hainbat zailtasun ekarri ditu projektatzeko orduan, kontu handiz erabaki behar horrek proiektuari zailtasun bat gehitzen diola uste da. Proiektuan bertako bistak integratzeko aukera izateak erronka bat zirudien, paisaiaren gaur egungo egoera zakartu gabe egitea nahi izan delako batez ere.

Beste alde batetik, gaur egun nahiz eta ermitak erabilerarik ez izan ia paisaiaren parte bihurtu da eta baita horma ere bai. Honek proiektuan eragin zuzena izan du integratzeko orduan. Hala ere, proiektuan integratu denean gaur egungo elementu erabilera-gabeei zerbitzu bat gehitu zaienez eraikin eta zerbitzu multzo bat sortu da.

Azkenik, lekua behin ondo ezagututa eta proiekturako hainbat onura dituela ikusita ondoren, bertatik pasatzen diren ibilbideak aztertu ziren eta hauen maiztasunak orube hortan aterpetxe bat egiteari zentzua ematen bukatu zuten.

Ondoren lekuaren baldintzak eskema eta argazki bitartez hobeto ikusi daitezke eta bertatik pasatzen diren bideen trazadura eta maiztasunak proiektuaren jatorri nagusia izan dela justifikatzen dute:

BERTAKO IKUSPEGIAK

Mendebalderako ikuspegia



Iparralderako ikuspegia



Ekialderako ikuspegia



Hegoalderako ikuspegia



URRUTITIK ORUBEA

Mendebaldetik ikuspegia



Hegoaldetik ikuspegia



Hego-ekialdetik ikuspegia




Oruberan iritsera hegoaldetik



Hemen eremutik pasatzen diren ibilbideak hobeto ikusi ahalko ditugu eta bakoitzaren ezaugarriak ere bai. Lehen ikusi ahal izan da bertatik hainbat pasatzen direla baina ez bakoitzaren baldintzak.

Alboko planoan ikus daitezkeen bideak bertatik pasatzen diren mendi buelta nagusiak dira:

- Kostako bidearen 3. etaparen desbideraketa (Zarautz-Deba)
- Grandes Rutas 121. ibilbidea (Zumaia-Elorriaga-Deba)
- Flyscharen Ruta (Zumaia-Deba-Mutriku)



KOSTAKO SANTIAGO BIDEA 3.ETAPA:

Karretera bidearen trazadura Zarautz eta Getaria lotuta daude jada oinezko bidearekin, Juan Sebastian Elcanore herrirarteko paseo atsegina batekin. Getariatik (4km) oinezko bidea hasiko dugu igoera gogor batekin. Tramo honek bide mediebalearekin bat egiten du puntu batzuetan. GI-3392 karretera iristean Askizura bideratzen da (km 7,5) eta hemendik Zumaiararte jarraitzen da (km 10).

Zumaia hilerritik lagako dugu atzean eta baserri eta landa bidetik N-634 karretera arriskutsura (km 16,5) bideratzen ditu erromesak seinaleztapenak. 2004 eta 2005 urteen bitartean bide alternatibo batzuk seinaleztatu ziren karretera arriskutsu hau saihesteko, izan ere hainbat istripu izan dira bertan erromesekin lotuak. Nazionala eta GI-3210 karreteraren arteko bidegurutzerara iristen denean Itziaraino igotzen da bidea (km 21,5). Amaitzeko, hemendik Agerretxe auzoa pasata Deba herrira jeisten da (km 25,5).

GR 121 (Zumaia-Elorriaga-Deba): 3h 5min - 10,8km

Talaia ibilbideak Gipuzkoako kostalde osoa hartzen du, Hondarribitik Saturraraineraino, eta biotopoaren ibilbide honetako ikusgarrien eta interesgarrietako bat da, zalantzarik gabe. Ibilbide honek bidexka sareko puntu ikusgarrien eta interesgarrietako batzuk lotzen ditu ezin hobeki seinaleztaturiko bidexka batetik. Talaiak ahalegin fisiko handiagoa eskatzen du, baina ingurune babestu honen zientzia, paisaia eta natura balioak ezagutzeko erarik onena da.


Ibilbide labur eta erraz hau Debako itsas pasealekutik abiatzen da, hondartzen ondotik, eta biotopoko harkaitz zaharretara garamatza: flysch beltza. Formazio honek, Zumaiakoa baino gutxiago ezaguna bada ere, puntu guztiz deigarri batzuk ditu, hala nola Aitzandiko tolestura handiak edo Debako noduluak eta septareak. Bideak, era berean, Behe Kretazeoko koral paisaian sartzen gaitu eta ohiz kanpoko hedadura dakarkio biotopoaren erregistro geologikoari.

FLYSCH RUTA:

Geologia da paisaia honetako egiatzko protagonista, Lurraren historiako parte zirrargarrienak gordetzen baititu. Geoparkeko 13 kilometroko itsaslabarrek haitz-geruzek osatutako formazio ikusgarria gordetzen dute, Flysch izenekoa

Flyscharen ibilbidea itsas trabesia batean egiteko aukera duzu, mendi irteera nahiago baduzu, berriz, ibilbidea oinez ere egin dezakezu. Izugarriko paisaia eta lurmuturrak, internazionalki erreferentzia geologikokoak osatzen dute 8 kilometroko kostako Zumaia eta Deba bitarteko ibilbide hau (Biotopo babes-tua). Gainera, Deba eta Mutriku arteko ibilbideetan ere aukera asko eskaintzen ditu bai itsaso eta baita lurretik ere.

Gune honetan sartu baino lehen kontuan izan behar da itsasoa zein egoeratan dagoen. Komeni da itsasbehera dagoenean joatea, gutxienez 3 orduz zabalgunek gordetzen dituen sekretuez gozatu ahal izateko. Haitzen artean eroso ibiltzeko oinetako egokiak erabiltzea gomendatzen da.



02

GAUR EGUNGO ATERPETXEA

Proiektuaren ideiak hainbat jatorri ezberdin izan ditu. Horietako beste bat Debak erakartzen duen jendeak gaur egun dakartzen "arazoak" izan da. Lehen aipatutakoarekin jarraituz aipatu beharra dago gaur egun Debak jende asko erakartzen duela eta honek herria turismoarekin lotzea ondorioztatzen duela. Honek hainbat alde on ditu baina askotan beste txar batzuk ere dakartza.

Esan daiteke, herriak udaran bere biztanleria bikoizten duela, izan ere etxea duten asko ez dira bertan bizi urte guztian zehar, udaran soilik etortzen dira oporraldi garairako. Honek, udara garai horretan herriko giroa asko alaitzen du eta jende gehiago erakartzeaz gain ekipamendu eta komertzioek asko irabazten dute.

Hauetz gain, kostako herri txiki bat izanik, ezagutzen ez duten kanpotar asko erakartzen dituen herria da baita ere. Hauek bertako eta inguruko ostatu ezberdinetan pasatzen dute oporraldia herria eta honen aukerez disfrutatzeko asmoz, baina beste asko lekuri gabe geratzen direla aipatu du udalak kasu batean baino gehiagotan.

Ondoriozta daiteke beraz ostatu nahikoa ez dagoela herrian bertan eta inguruan ere. Gainera, lehen lurraldearen planotan ikusi den bezala Santiago bidearen etapa baten amaierako puntua da eta honek ibiltari asko ekartzen ditu. Hauek asko izaten dira, eta askotan taldetan bidaiatzen dutenez ez dute nahikoa leku izaten herriko ostatu xumeetan. Ondorioz askok kalean lo egiten amaitzen dute eta proiektuaren ideia nagusia hemendik etorri zen. Santa Katalina orubea ezagutu ondoren bertan mota honetako ekipamendu bat txertatzeko aukera paregabea zela iruditu zitzaidan.

Jatorri hau hobeto ulertzeko ondoren herriko nahiz inguru gertuko ostatu aukerak deskribatuko dira hauen aukerak eta erazgopenak azalduz. Horrela, proiektuan proposatzen den erabilera berria beharrezkoa dela justifikatuz.

HERRIKO OSTATU AUKERAK

ATERPETXEA

-Geltoki aterpetxea, Pl. Araquistain, Deba. T. 943 19 24 52

PENTSIOAK

-Zumardi. Marina kalea 12, Deba. T. 943 192 368 www.pensionzumardi.com

APARTAMENTUAK

-Camping de Itxaspe. Itxaspe auzoa, Deba. T. 943 199 377 www.campingitxaspe.com

KANPINAK

-Itxaspe. Itxaspe auzoa, Deba. T. 943 199 377 www.campingitxaspe.com

LANDA-TURISMOAK

-Arriola txiki. Arriola auzoa, Deba. T. 943 192 000 www.nekatur.net/arriolaxiki




-Donibane. Egia auzoa, Deba. T. 943 191 554 www.nekatur.net/donibane

-Txerturi goikoa. Itxaspe auzoa, Deba. T. 943 199 176 www.txerturi.com


GELTOKI ATERPETXEA



ZUMARDI PENSIOA



ITXASPE KANPINA, APARTAMENTUAK



ITXASPE KANPINA



Kanpina nahiz eta herritik oso urrun geratu erromes askok aukera hau aukeratzen dute, izan ere nahiko merkea da. Udaran soilik irekitzen da. Bi aukera dauzka, kanpin aukera, merkeena, eta bungalow aukera ere, nahiko garesti ateratzen dena erabiltzaile hauentzat. Kostako bidetik nahiko banandua geratzen den puntuan kokatzen da baina aukera egokia izan daiteke.

ARRIOLA TXIKI LANDA TURISMOA



Deba herritik urrun kokatzen da. Gianera, nahiko garestia suertatzen da erabiltzaileentzat, 66€ gau bakoitzeko. Egoitza etxe baten barnean alokatzen diren logelak dira.

DONIBANE LANDA TURISMOA



Landa turismo eraikin hau ere egoitza pribatu batean alokatzen diren logelak osatzen dute. Santiago bidearen pasoan geratzen den ostatu bakarrenetakoa da eta beraz askok aukera hau aukeratzen dute.

TXERTURI GOIKOA LANDA TURISMOA



Txerturi goikoa Itxaspe auzoan kokatzen da eta beraz kanpina bezala bidetik kanpo geratzen da. Gainera, oso garesti ateratzen da erabiltzaile zehatz hauei dagokionez.

INGURU GERTUKO OSTATU AUKERAK

Itziar:

HOTELAK


-Kanala. Itziar N-634, Deba. T. 943 199 035 www.hotelkanala.com

OSTATUAK

-Hostal Itziar, Alto de Itziar s,n, Itziar. T. 943 19 90 61 www.hostalitziar.es

LANDA-TURISMOAK

-Perlakua saka. Arriola auzoa, Itziar. T. 943 191 137 www.sakabaserria.com
-Santuaran bekoa. Mardari auz., Itziar. T. 943 199 056 www.nekatur.net/santuaranbekoa



Aukera oso garestia. Hotela izanik ez da erromesen aukeran sartzen.



Errepideari lotuta kokatzen da eta asko hurbiltzen dira bertara batez ere jate-
ra. Lehen ostatua zen baina gaur egun jatetxea soilik dela uste da.



Perlakua Saka Arriola auzoan kokatzen da. Santiago bidetik hurbil. Errome-
sek aukera hau gutxitan aukeratzen duten arren ez da hain garestia.



Errepideari lotuta kokatzen da Kostako bidean bertan. Hala ere etapa erdian
kokatzen da, beraz ez dute askok aukeratzen.

Zumaia:

ATERPETXEA

-San Jose konbentua, Arritokieta kalea, Zumaia. T. 943 14 33 96 (Oficina de
Turismo)

PENTSIOAK

-Goiko. Erribera kalea 9, Zumaia. T. 943 860 078 · 696 584 804

APARTAMENTUAK


-Tomás. Eusebio Gurrutxaga plaza s/n, Zumaia. T. 943 861 916 · 615 721
333

KANPINAK

-Zumaia. Basusta Bidea 15, Zumaia. T. 637 419 744 www.campingzumaia.com

LANDA-TURISMOAK

-Santa Klara. Arritokieta s/n, Zumaia T. 943 860 531 www.agroturismosantaklara.com



Aterpetxea herriko San Jose konbentuan kokatzen da. Bertan erromes asko
geratzen dira, izan ere lehentasuna dute. Hala ere, etapa baten erdiko pun-
tuan kokatzen denez ez da hainbeste jende ibiltzen.



Pentsioa eta baita apartamentuak ere urte guztian zehar irekita daude baina
normalean ez dira erromesek aukeratzen duten istatu mota presioagatik.

Kanpina normalean aukeretak
bat izaten da erabiltzaile hauentzat
baina Zumaiakoa ez da egokiena.
Gainera, etapa erdian kokatzen da.



Santa Klara landa turismoa nahiko ga-
restia da erromesentzat. Heritik urrun
geratzen da.

Mutriku:

HOTELAK

-Zumalabe. Porturako Aldapa 2, Mutriku T. 943 604 617 www.hotelzumalabe.com

-Arbe. Laranga auzoa, s/n Mutriku T. 943 604 749 www.hotelarbe.com

PENTSIOAK

-Kofradi zaharra. Mutrikuko portua, Mutriku T. 943 603 954

KANPINAK

-Aitzeta. Ctra. Gi-638 km 3.5, Mutriku. T. 943 603 356
-Galdona. Barrio Galdonamendi s/n, Mutriku. T. 943 603 509
-Saturrarán. Caserío Arbelaitz, Mutriku. T. 943 603 847
-Santa Elena. Barrio Galdonamendi s/n, Mutriku. T. 943 603 982

LANDA-TURISMOAK

-Haitzalde. Eskimera parajea, Mutriku. T. 943 604 865 www.haitzalde.com
-Pikua. Laranga auzoa s/n, Mutriku. T. 943 942 222 www.pikua.es
-Koostei. Artzain Erreka s/n, Mutriku T. 943 583 008 www.nekatur.net/koostei




Mutrikun hainbat ostatu aukera daudela ikus daiteke. Hala ere hotelak ez dira
erabiltzaile hauen aukera nagusia izaten. Gainera hauek ez dira herrian bertan
kokatzen baizik eta bidean zehar.



Portuko Kofradia zaha-
rrean logela batzuk alokat-
zen ditzuzte pentsio beza-
la. Aukera nahiko ona izan
daiteke erromesentzat.



Mutrikun hainbat kanping daude funtzionamenduan. Hauek normalean uda-
ra aldean soilik egoten dira irekita, nahiz eta batzuk urte guztian irekita izan.
Gehienak heritik urrun kokatzen dira eta Kostako bidetik aldentuta ere. Hala
ere aukera merkea izan daiteke.



Landa turismoak na-
hiko garestiak dira
erromes hauekarentzat.
Gainera hauek ez dira
bidetik gertu geratzen.

03

ATERPETXEEN ARKITEKTURA


Gaur egun aterpetxeak eta hauen erabiltzaileen beharrak aldatu egin dira eta beraz hauen programak ere hainbat aldaketa izan ditu. Hasiera batean erromesei ostan emateko leku bat soilik zen arren gaur egungo aterpetxe batek beste hainbat zerbitzu gehigarri behar ditu izan.

Aterpetxeak lo egiteko leku zabalez gain, sukaldatzeko lekuren bat behar du erromesek edo erabiltzaileek behar izanez gero zerbait sukaldatu ahal izateko. Gainera, logeaz gain deskantsurako guneak ere behar dituzte, ahal dela kanpo eta barnealdean. Horrez gain, arropak garbitzeko gela txiki bat behar izaten da normalean, nahiz eta ez den beharrezkoa. Baina motxilak eta material pertsonala gordetzeko gela edo takilla batzuk erabiltzaile bakoitzeko behar izaten dira derrigorrez. Azkenik, gaur egun Santiago bidea hainbat modutan egin daitekeenez (oinez, zaldiz, bizikletaz...) bizikletak lotzeko leku bat beharrezkoa da.

Ondoren azken urteotan eraikitako aterpetxe batzuen ereduak aztertuko dira programaren ereduak ikusteko eta proiektua ahalik eta konpletuena izateko alde horretatik. Horretarako hauen programatik baliogarriena dena aipatuko da ondoren proiektuan txertatu dela ikus dadin.



Sa Vinyeta Hostel / Ripolltizon
Ronda Nord, Ciutadella de Menorca
1125.0 m²
2008




Aterpetxe hau Menorkan kokatzen da, antzinako hondar batzuk kokatzen diren lekuan. Hauen inguruan orube lau bat dago eta bertan eraikitzen da aterpetxea.

Bertan material naturalak erabiltzen dira, harria batez ere, eremura gehiago integratzen dena. Bestalde luzitu zuria du eraikinak, kliman eta herri horietan akabera hau tradizionala delako.

Distribuzioari dagokionez, garrantzitsua ikusi da erabilerak bereizten dituela eraikin ezberdinetan. Eraikin beraren parte direnak baina kanpo espazioez banandua daudenak. Jateko guneak alde batetik, logela guneak bestetik, eta harrera guneak azkenik. Gainera, estalkiak terraza erabilerarako erabiltzeko aprobetxatzen du. Aipatutako puntu hauek gure proiektuan balioko digute.



Pe no Monte - Turismo Rural / [i]da arquitectos
7630-174 Odemira, Portugal
820.0 m²
2014



Beste aterpetxe honetan berriz, proiektuan baliokoa izango dena logela ezberdinak txertatzen dituela da. Gainera, apartamentu txikiak ere sartzen ditu eta honek erabiltzaile aniztasuna dakar. Horrez gain, terraza ere ateratzen ditu naturara begira.

SAN BARTOLOME MUINOAREN HORMA, DONOSTIA

Nahiz eta ez izan aterpetxe baten eredua, kontutan hartzeko adibidea da San Bartolome muinoan egindako interbentzioa. Donostiako erdiguneko muino honetan hainbat proposamen pasa ondoren azkenen muinoa mantentzeko aukera onartu zen. Bertan konbentua mantendu eta erabilera berri bat emateaz gain hirigintza aldaketa ugari egitea proposatzen da.

Alde batetik muinoaren gailurrera irisgarritasuna handitzen da zerbitzu berriak txertatuz. Malda baten bitartez paseo berri bat sortzen da.

Santa Katalina proiektu honetan garrantzia izango duen puntua muinoa eusten duen horman egindako eraberritzea da. Hau orain arte harlangaitzezko horma altu bat izan da. Orain, hormigoiz indartzez gain itxura naturalago bat emateko asmoz, eta lehengo itxurara hurbiltzeko asmoarekin gabioizko kaiola esekiekin estali da.


Soluzio honetan itxura soilik da garrantzitsua, eta gure kasuan itxuraz integratzeko aukeratutako soluzioa izango da. Kaiola hauek perfleria metaliko berezi batzuen bitartez eusten dira hormigoira kanpotik azal berri bat emenez. Kaiola hauek duten pisu handia dela eta perfleria hau berezia izan behar da.

Proiektuan soluzio hau erabiliko da baita ere, aipatu bezala naturan integratzeko eta batez ere bertan aurkitzen diren elementuekin bat egiteko. Horrela, fatxada eta gaur egungo eraikinek jarraipen bat izango dutelarik.

HORMAREN LEHENGO EGOERA



HORMAREN GAUR EGUNGO EGOERA




DOMINUS WINERY
Yountville, Napa Valley, California, USA
HERZOG & DE MERURON
1995, realization 1996-1998

Proiektua Napa Valley kokatzen da, non klima oso gogorra den; oso bero egunez eta hotz gauez. Proiektuan kondizio hauek aprobetxatzea nahi zen eta horretarako materiala garrantzitsua bihurtu zen arkitektura estrategia bezala.


Fatxadak harrizko gabioiz egin ziren, ingeneritzan erabilitako sistema. Masa inerte bat osatzen dute klimaz babesten duena. Bertako harria, basaltoa, erabili zen inguruko naturara moldatzeko. Gainera, aipatzekoa da gabioi kaiolak gehiago edo gutxiago betetzen dira argi naturala pasa dadin edo ez.

Santa Katalinako proiektuan balio izan duena materiaaren erabilera izan da naturara moldatzeko eta bertako harria erabiliz.

Ondoren proiektuaren argazki batzuk ikus daitezke.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



SANTA KATALINA ATERPETXEA, DEBA
 CRISTINA ARIZMENDIARRIETA _ IÑAKI BEGIRISTAIN
 2017ko UZTAILA

Topografiaren morfologia dela eta eraikina iparalde, ekialde eta mendebaldera orientatuko da. Koten jeitsiera alde hauetara ematen bai da. Proiektuaren ideia nagusia orubearen paisaia mantentzea da eta zerbitzu gehigarri bat eskaintzea aldi berean. Honek eraikina hegoaldera ez orientatzea dakar.

Eguzkiaren ibilbidea dela eta, eraikina bi zatitan banatzea ekarri du proiektuan. Alde batetik ekialdera norabidetuko den programa zatia, eta bestetik ipar mendebaldera norabidetuko dena.

Gaur egungo hormari lotuta harrera nagusia planteatzen da, erreferentziako elementu bat izanik harrera bertan kokatzea ideia ona dela irudituz.

Bestalde, erdi-lurperatutako programan jateko guneak kokatzen direnez hauek mendebaldera norabidetu dira. Bertan afaltzeko gunea egongo denez eguzkia mutrikurako lurmuturren inguruan ezkutatzen ikusteko aukera izanez.


Hemen jatetxea ere gehituko da, kanpoko erabiltzaileak ere disfruta dezaten. Hauek terraza elkarbanatuko dute aterpetxeko erabiltzaileekin.

Gaur egungo ibilbideak mantendu direnez, beheko ibidearen parean bigarren harrera bat jarriko da goikoarekin batera funtzionatuko duena.

Ipar mendebaldeko eraikina eraikin publikoa dela esan daiteke.

IPAR MENDEBALDEKO PROGRAMA

- HARRERAK
 - Goiko harrera (horma zaharrarekin)
 - Beheko harrera
 - Langileen gela
- JANGELA
 - Aterpetxeko erabiltzaileena
 - Terraza
- JATETXEA
 - Kanpotarrentzat
 - Terraza
- SUKALDEAK
 - Aterpetxekoa
 - Jatetxekoa
- BEGIRATOKIAK



Erromesentzat aterpetxe bat izanik, garrantzitsua da eguzkiaren orientazioa kontutan hartzea. Izan ere, erromesek oso goiz hasten dute ibilbidearen martxa, egunsentiaren aurretik.

Hau horrela izanda, eraikinaren distribuzioa honen arabera izango da. Horregatik, logelak ekialderantz orientatzen dira, erromesek goizean goiz eguzkia izan dezaten eta arratsaldean, lotara doazenean itzala izanez.

Horrenbestez, logelen artean hainbat deskantsurako egongela gehituko dira, hauetatik kanporaldeko terrazak daudelarik. Horrela gainera, ekialdera ikus daitezkeen bista ederretaz gozatzeko aukera izan dezaten erabiltzaileek.


Noski, hasierako ideari jarraituz, estalki lauetan begiratokiak kokatzen dira. Berdegunearen jarraipena tartekatuz eta inguruko paisaiari jarraipena emanez.

Beraz, ekialdera logelen eraikin pribatuagoa kokatuko da, honekin batera prestatu diren programa gehigarriarekin batera.

EKIALDEKO PROGRAMA

- LOGELAK
 - 4,6,8 eta 10 pertsonakoak
 - Elkartuta 14 eta 16 pertsonakoak
- DESKANTSU ESPAZIOAK:
 - Egongelak
 - Jolas guneak
- TERRAZA PRIBATUAK
 - Barne egongelako kanpo espazioak
- BAINUGELAK
 - Logeletako bainugelak
- BEGIRATOKIAK





Proiektuan gaur egungo elementuak integratzen direnez, hauekin hainbat interbentzio egiten dira.

Ermita bera babestua dagoenez bere horretan lagatzen da.


Baselizaren sarrerako horma gaur egun dagoen moduan lagatzen da baina handipen bat izango balitz bezala tratatu daiteke.

Baselizaren antzinako kortako horma (ermitar lotuta dagoena) bere horretan lagatzen da baita ere.

Azkenik, ur depositua kendu egingo da. Gaur egun ez du erabilpenik eta naturarekiko oztopo bat da gaur egun.



ERAIKIN PUBLIKOAREN
DISTRIBUZIOA



BARNE ESPAZIOAK

- Jolas gunea
- Barneko espazio publikoa
-Egongelak, pasoko guneak...
- Komun publikoak
- Elbarridunen komuna
- Komunikazio nukleoa
-Ilogailu eta eskailera
- Literadun logelak
- Dutzak
- Logeletako komunak
- Elkar daitezkeen literadun logelak
- Instalakuntza gela

KANPO ESPAZIOAK

- Sarrera portxea
- Begiratokiak
- Naturaren jarraipena, berdegunea
- Terrazak
- Instalakuntza gelara zerbitzuen iritsiera, ibilgailuak

ERAIKIN PRIBATUAGOAREN
DISTRIBUZIOA

BIGARREN SOLAIRUA

- LANGILEEN GELA.....11,08 m2

Bigarren solairuko azalera TOTALA11,08 m2

LEHEN SOLAIRUA

- LANGILEEN GUNEA.....11,43 m2

- HARRERA GUNEA.....44,06 m2


- BILTEGIA.....5,86 m2

- TERRAZA.....12,11 m2

Lehen solairuko azalera TOTALA67,40 m2

* Begiratokiak kanpo espazio publiko bezala kontsideratzen direnez, naturaren jarraipen bat egiteko asmoz, hauen azalera ez dira eraikinaren barruan kontsideratuko.

* Terrazen azalera erdia kontatuko da azalera totala kalkulatzeko orduan.



BIGARREN SOLAIRUA

BEHE SOLAIRUA

ATERPETXEA

- HARRERA GUNEA27,80 m2

- HARRERAKO KOMUN PUBLIKOAK.....14,44 m2

- EGONGELA26,04 m2

- ATERPETXEKO SUKALDEA.....12,08 m2

- ATERPETXEKO JANGELA.....63,70 m2

- JANGELAKO KOMUNAK.....13,80 m2

- JANGELAKO TERRAZA42,32 m2

JATETXEA

- JATETXEAREN ESERTZEKO GUNEA.....54,97 m2

- JATETXEKO HARRERA GUNEA22,54 m2

- JATETXEKO BARRA12,03 m2

- JATETXEKO SUKALDEA.....15,48 m2

- JATETXEKO KOMUNAK.....16,65 m2

- JATETXEKO TERRAZA46,26 m2


GELA TEKNIKOAK

- HONDAKINEN GELA.....8,07 m2


- INSTALAKUNTZA GELA.....27,39 m2

- GASAREN BILTEGIA.....2,05 m2

Behe solairuko azalera TOTALA361,33 m2



LEHEN SOLAIRUA



BEHE SOLAIRUA

LEHEN SOLAIRUA

- JOLASEN GELA.....36,41 m²
- IRAKURKETA GELA8,20 m²

Lehen solairuko azalera TOTALA44,61 m²

BEHE SOLAIRUA

- HARRERA GUNEA.....62,97 m²
- ORDENAGAILU GUNEA.....7,27 m²
- KOMUN PUBLIKOAK.....12,80 m²

Behe solairuko azalera TOTALA83,04 m²

* Begiratokiak kanpo espazio publiko bezala kontsideratzen direnez, naturaren jarraipen bat egiteko asmoz, hauen azalera ez dira eraikinaren barruan kontsideratuko.

ERDISOTO SOLAIRUA

- LOGELA 143,89 m²
- LOGELA 230,89 m²
- 1 ETA 2 LOGELEN KOMUNAK6,22 m²
- 1 ETA 2 LOGELEN TAKILLA GUNEA4,89 m²
- 1 ETA 2 LOGELEN DUTXAK6,53 m²
- EGONGELA 139,37 m²
- LOGELA 329,19 m²
- LOGELA 429,35 m²
- 3 ETA 4 LOGELEN KOMUNAK6,03 m²
- 3 ETA 4 LOGELEN TAKILLA GUNEA5,64 m²
- 3 ETA 4 LOGELEN DUTXAK5,62 m²
- EGONGELA 236,45 m²
- KOMUN PUBLIKOAK8,54 m²
- LOGELA 520,40 m²
- LOGELA 630,15 m²
- 6 LOGELAREN KOMUNA3,31 m²
- 6 LOGELAREN DUTXAK7,76 m²
- PASABIDEA104,71 m²

- INSTALAKUNTZA GELA

- TERRAZA 1.....41,19 m²
- TERRAZA 2.....27,72 m²
- INSTA GELARA IRITSIERA.....24,08 m²


Behe solairuko azalera TOTALA465,435 m²



LEHEN SOLAIRUA



BEHE SOLAIRUA



ERDISOTO SOLAIRUA

Eraikinaren azalera TOTALA bi eraikinak kontutan hartuta, baina kanpoko eraikinaren parte diren begiratokiak kontutan hartu gabe 1.032,89 m²-koa da.

ERAIKIN PRIBATUAREN AZALERAK

PROIEKTUAREN PLANOAK

01

PLANOAK



INGURUA
E:1/500



ERDISOTO SOLAIRUA
E:1/250





BEHE SOLAIRUA
E:1/250




LEHEN SOLAIRUA
E:1/250





BIGARREN SOLAIRUA
E:1/250




A-A' EBAKETA
E:1/125











02

PROIEKTUAREN IRUDIAK









DESKRIBAPEN TEKNIKOA

01

ERAIKUNTZA

Eraikuntzaren arloan proiektuan garrantzi gehien duena erabilitako materialak izan dira. Betiere proiektuaren kokapena dela eta ingurura ondo moldatu behar den eraikin bat egitea izan da helburua. Horregatik, material naturalak aukeratzea izan da hasieratik nahia.

Nahiz eta proiektu aldetik bi eraikin isolatu bereiz daitezkeen, eraikuntza aldetik bi eraikinek nahiko soluzio berdintsuak erabiltzen dituzte. Beste ataletan egin den bezala, eraikuntza garapenean ere erabilera publikoak hartzen dituen eraikina garatu da. Planotan ikusi den bezala, eraikinak topografiara moldatzen doaz eta beraz beheko solairua erdi lurperatuta geratzen da eraikuntzan soluzio ezberdinak ondorioztatuz.

Eraikinak gure natural batean kokatzen direnez, hasieratik bertako begetazioa mantentzea izan da helburu nagusia. Gainera legeak dio bertako landareria babestu behar dela eta zerbait egin ezker gehiago gehitu beharko dela. Proiektu honetan mantentzea izan da hasierako nahia eta gainera eraikitako eraikinen tarteko espazioetan landaredia berria gehitu da ibilbideak natura indartzeko eta integratzeko.

ERAIKINEKO ITXITURA SISTEMAK

Esan bezala, eraikina horma zaharraren kontra sortzen da eta denari bateratasuna emateko asmoz kanpoaldeko fatxadaren harriz betetako gabioizko (15zm-ko kaiolak perfileria metaliko baten bitartez barneko adreiluzko hormara lotuta) itxitura aireztatu bat planteatu da. Hau eraikineko solairu guztietan emango da, eta fatxadaren atzerapenetan zurezko akabera argiago bat jarri da sarrerak markatzeko eta material naturalekin jarraitzeko.

Aipatutako material naturalen ideiarekin jarraituz eta legeari kasu eginez, leihoak ere zurezkoak jarri dira, fatxadaren antzeko kolorea mantenduz eta bateratasuna emanez.

Barnealdeari dagokionez, akabera zurezko panelen bitartez egin da. Hauek barneko adreiluzko hormari itsatsiko zaizkio. Lurrean ere zurezko tarima planteatzen da materialtasunaren jarraipen bat emanez. Komun eta sukaldeetan berriz Gres baldosak jarri dira bai horma eta lurrean.

Estalkiari dagokionez, erdi lurperatutako gunetan estalki laua egongo da. Izan ere, hauen estalkia zapalgarria da kasu batzuetan, esertzeko gunedun begiratokiak sortuz eta naturaren jarraipena interpretatuz estalki begetalaren bitartez beste kasu batzuetan. Hau aukeratutako ereduaren antzekotasun bat da, lekuari onura handia egiten diola uste bai da. Bestalde, gorantz igotzen diren bolumenetan teilatua egongo da ermita eta inguruko eraikinei keinu bat eginez.

Lurraren aurkako forjatuetan, erdi-soto bat dugunez eta induskapen handiak egin behar direnez proiektuan, forjatu sanitarioa proposatu da, lurretik igo daitezkeen hezetan edo gasak erraztasunez kanporatzeko eta eraikinera ez sartzeko. Gainera, gela heze guztiak solairu honetan kokatzen direnez, saneamenduko tutuak eramateko balioko digu sistema honek.

02

EGITURAK

Egiturei dagokionez, nahiko egitura arrunta duen eraikina dela esan daiteke. Bi materialetako egitura portikatua da. Erdisotoan hormigoizko egitura, erdilurperatua dagoenez hormigoizko soto horma bat egin behar izan bai da. Gainera, estalki laua zapalgarria denez eta gainera begetazioa duenez nahiko pisu hartuko duenez hormigoizkoak hobeto eutsiko diolakoan. Goiko bolumenak zurezko egitura bstakoa dute.

Landa eremu oso esposatu batean kokatzen denez, urrutitik leku askotatik ikusten den puntu bat da. Honek, diseinuan inguruko elementuak kontutan hartzea ekarri du eta ondorioz eraikin nahiko txikiak sortzea. Egituran honek ez du zailtasun handirik eragin nahiz eta eraikinak topografiara moldatzen doazen.

Programa gehien hartuko duen solairua erdi lurperatua planteatu da eta honek hormigoizko egitura izango du. Bertan sotoko horma in situ egin da, honek ez duelako makineria berezirik behar ezta langile oso espezializaturik ere. Kokapena kontutan izanda eta sotoko horma non dagoen ikusita ahalik eta material txikiena komeni da. Behin hau eginda beste egitura nahiko ordenatua geratzen da eraikinaren forma dela eta. Hau hormigoizko portikoz egingo da behealdean, ondoren egitura ere zurezko akaberarekin amaituko den arren.

Goiko solairuetan inguruko baserrien itxurara hurbiltzea nahi da eta horregatik bolumen hauek txikiagoak eta ermita eta inguruko elementuen eskalan jolastuko dute zurezko egitura bistakoarekin. Harrera gunean batez ere sentsazio goxo bat eta landa itxura bat eman nahi izan da. Horregatik bai zutabeak eta baita estalkiaren zurezko egitura bistara lagatzeak hau lortzen lagunduko digu. Espazio altuak izanik oso gune atsegin bat lortuz.

Eraikin honetan daukan dimentsio eta morfologia dela eta ez da dilatazio juntarik behar. Beste eraikinean bai behar da eta bertan zutabeak bikoiztu egingo dira puntu horretan. Hala ere, erdisotoko soto hormetan beharrezkoa da dilatazio juntak jartzea eta babes handiagoa ertzak sortzen diren gunetan batez ere.

Egituraren azterketa erabilera publikoak biltzen dituen eraikinean oinarritu da, honek hartzen bai ditu material ezberdinak, hauen arteko loturak, eta aterpetxea osatzen duten egitura elementu ezberdin guztiak.

Kalkulu guztiak eskuz egin dira ordenagailuko programa baten laguntzaz, Wineva. Ondoren honek ematen dituen emaitzak konparatu dira eskuzko emaitzekin.

03

INSTALAKUNTZAK

Instalaktzen atalean sistema bakoitzaren kalkulua eta legearen justifikazioa (bakoitzari dagokiona) egin dira. Beste atal teknikoetan bezala, hemen ere goiko eraikin publikoa garatu da, izan ere beheko eraikinak baino sistema gehiago izango ditu eta beraz osatuagoa da.

Instalakuntza batzuk Cype programaren bitartez kalkulatu dira eta beste batzuk eskuzko kalkulu sinpleago baten bitartez. Sistema bakoitzari dagokion dokumentazio komertziala ere gehitu da eta amaieran eraikin honi dagokion aurrekontua.

Garatutako sistema honakoak izan dira:

- Suteen aurreko babesa
- Azterketa termikoa
- Berokuntza sistema
- Aireztapen mekanikoa
- Ur hotz eta bero sanitarioa
- Saneamendua
- Elektrizitatea
- Iluminazio artifiziala
- Gas erregaiak

Eraikin isolatuak direnez, instalakuntzak modu independientean funtzionatu dute kasu guztietan. Hau horrela izanik, eraikin bakoitzak instalakuntza gela propio bat izango du eta bertatik pasabideen bitartez instalakuntza guztiak banatuko dira. Kasuan kasu sabaitik ala lurretik garraiatuko dira.

Instalakuntzetan suteen kasua berezia da. Gaur egun bertara ez dago autoz irisgarritasunik, baina eraikin berri bat planteatzeko momentuan arauak dio larrialdietako zerbitzuak iritsi behar dutela. Hau horrela izanik bertarako iritsiera bideak aldatu eta eskakizun hauetara moldatu behar izan dira.

Horrez gain, suteen instalakuntzei dagokienez ez da aparteko arazorik izan. Eraikin bakoitzak sektore bakarra du eta hainbat arrisku baxuko gela (instalakuntza gela, hondakinen gela eta gasa biltzeko gela garatu den erakinean).

Eraikinak dituen baldintzak ikusita zur bitarteko Biomasko galdara bat erabiltzea erabaki da. Honen bitartez berogailua, burdinezko radiadore bitartez, eta ur bero sanitarioaren instalakuntzak egingo dira (sukalderako eta komunitarako).

Aireztapen mekanikoari dagokionez, aparte doan instalakuntza bat izango da. Bero errekuadore bat jarriko da instalakuntza gelan: kanpoko fatxadan airea hartu eta botatzeko rejillak rekuadorera lotuko dira barruko airea berriztatu eta mugitzeko.

Ur hotzaren sarea iristen da bertaraino, beraz instalakuntza honetarako beharrezko emaria bertatik hartuko da.

Saneamenduan, kokapena kontutan hartuta instalakuntza independente bat edukiko du baita ere fosa septiko baten bitartez.

Elektrizitatea iristen da gaur egun bertaraino ez bada ere alboko baserrietaraino. Hau horrela izanik bertaraino luzatuko da eta sare orokorretik hartuko da.

Iluminazio artifizialean berriz sabai faltsurik ez dagoenez leku batzuetan luminariak aukeratzerakoan kontutan hartzeko gauza bat izan da hau. Esekitako

luminariak izango dira gehienak, erdilurperatutako eraikinean izan ezik, enpotratuak aukeratu bai dira. Lampara denak Led motakoak izango dira ahalik eta gehien irauteko asmoz.

Gasaren kasuan, sukaldeak daudenez bai jangelarako eta bai jatetxerako propanozko botilak proposatzen dira. Nahiz eta berez behar handirik ez izan, kokapena kontutan hartuta eta banatzailearentzat iritsiera zaila duela pentsatuta 4 botila elkarri lotuta planteatzen dira denbora baterako eskakizunak asetzeko asmoz.

Efizientzia energetikoari dagokionez, Hulec programaren bitartez egin da. Hau azterketa termikoaren barruan sartu da, itxitura motekin eta hornidura sistemeekin zerikusia duelako. Bertan A balioa atera zaigu eta beraz eraikina oso efizientea dela esan daiteke.